

**Joan M. TORREALDAY**

# **Iraultzaz**

**Azala:**  
**FERNANDO**

**J A K I N**  
**ARANTZAZU**  
**OINATI**

*JAKIN* liburu sorta (12)

Zuzendari: Joseba Intxausti

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

NUMERO REGISTRO 1.692

DEPOSITO LEGAL S. S. 568/73

ISBN N.º 84 - 7242 - 200 - 3

---

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

## Aurkibidea

Hitzaurrea .....	9
------------------	---

### GERTAKARIEN IRAKASBIDEAK

1. Iraultza gertakari denean .....	15
1.1. Iraultza jardunaldi gisa .....	15
1.11. Iraultza aurea .....	19
1.12. Iraultza festa .....	21
1.13. La Terreur edo iraultzaren gobernamendua .....	22
1.14. Thermidor edo iraultzaren geroa .....	24
1.2. Iraultzaileaz nota laburrak .....	26
1.3. Iraultzaren «legeez» .....	29

2. Iraultzaren ingurumariak ... ..	34
2.1. Iraultza: test hitza? ... ..	34
2.11. Iraultzaile grinatsuak? ... ..	35
2.12. Iraultzaren gesaltzea ... ..	38
2.2. Iraultza hitzaren historia ... ..	39
2.21. Izarlaritzan ... ..	40
2.22. Politikazko alorrean ... ..	41
2.23. Frantziako iraultzaz gero ... ..	43
2.3. Iraultza hitzaren erabilkizunaz ... ..	47
2.31. Industriaren iraultza ... ..	48
2.32. Kristianismoaren iraultza ... ..	48
2.33. Iraultza nagusien araberako iraultza ... ..	49
a) Inglaterrako iraultza ... ..	50
b) Ameriketako iraultza ... ..	52
d) Frantziako iraultza ... ..	53
e) Errusiako iraultza ... ..	54
f) Txinako iraultza ... ..	55
3. Iraultza baitan ... ..	57
3.1. Zentzu-mugaketa funtzional bat ... ..	57
3.11. Iritziak sakabanaturik ... ..	58
3.12. Iraultza Marx-en arabera ... ..	60
3.13. Aldakuntza bai, baina nolakoa? ... ..	61
3.2. Kordularen irizpidea ... ..	65
3.21. Iraultza eta eboluzioa ... ..	66
3.22. Erreforma eta iraultza ... ..	68
4.23. Erreboltatik iraultzara ... ..	73
4. Proiekto Iraultzailea ... ..	81
4.1. Proiektoaren egitamua ... ..	82
4.11. Mitoa ... ..	82
4.12. Teorigintza ... ..	87
4.13. Programa ... ..	88
4.2. Proiektoaren funtsa ... ..	89
4.21. Proiekto iraultzailea eta osotasuna ... ..	90
4.22. Osotasunaren jaiotzan ... ..	93
4.23. Proiekto iraultzailea eta historikotasuna ... ..	99
5. Iraultza: Ilustrazioaren seme ... ..	103
5.1. Errenazimendutik Argien Filosofiara ... ..	105
5.11. Ideiak eta asmoak ... ..	105
5.12. Jakintza eta aurrerapena ... ..	107

5.2. Eredu nagusia: Prometeo ... ..	110
5.21. Arrazoimenaren garaitzapena ... ..	110
5.22. Aurrerapenaren zorabioa ... ..	111
5.23. Naturalezatik gizartera ... ..	113
5.24. Oharpen gisa bi kritikaxo ... ..	114
6. Iraultza eta modernutasuna ... ..	117
6.1. Modernutasuna atzo eta gaur ... ..	117
6.11. Modernutasunaren zimentarria ... ..	119
6.12. Modernugintzaren oinarri euskarriak ... ..	120
6.13. Eraskin gisa ... ..	123
6.2. Modernutasuna hauzitan ... ..	124
6.21. «Susmoaren maisuak» ... ..	126
6.22. Urrunago joaterik? ... ..	127
6.23. Maurice Clavel-en iritzia ... ..	130
7. Kontrairaultzaz ohar laburrak ... ..	133
7.1. Kontrairaultzaren barne-egiturak ... ..	134
7.2. Kontrairaultzaren iritziak ... ..	136
7.21. «Jatorrizko bekatuaren fruitua da iraultza» ... ..	136
7.22. «Iraultza biolentzia hutsa da» ... ..	137
7.23. «Piztikeria da iraultza» ... ..	138
7.24. «Iraultza mito hutsa da» ... ..	138
7.25. «Iraultza ilunbetako lana da» ... ..	139

### IRAULTZA BERRIAREN ZANTZUAK

1. Gizarte berriari borroka berriak ... ..	145
1.1. Asmamena agintera! ... ..	149
1.2. Elizatik kanpo ... ..	152
1.3. Munduko hiritar ... ..	154
1.4. «Gauza bat bakarrik beharrezko: DENA!» ... ..	157
1.5. Asetuen iraultza ... ..	159
2. Ekologiatik iraultzara ... ..	163
2.1. S. O. S.: lurra bortxatzen! ... ..	165
2.2. Teknikazko arazoa ote? ... ..	169
2.3. Hazkuntzaren mitoia ... ..	173
2.4. Iraultzaren beharra ... ..	175

3. Iraultza-haizeak mendebalean? ... ..	179
3.1. Ezkertiar berriek diote ... ..	179
3.2. Etorkizun iraultzailerik bai ote? ... ..	186
3.3. IL MANIFESTO-k: Mendebala iraultzarako heldurik ...	193
4. Iraultza berria, Garaudyren arabera ... ..	198
4.1. Garaudy edo ezinaren grina ... ..	199
4.2. Gazteriaren aupada ... ..	203
4.3. Estrukturen aldakuntza ... ..	205
4.4. Kontzientzien aldakuntza ... ..	208
4.5. Zibilizazio-xedeen aldakuntza ... ..	210
4.6. Autogestioaz ... ..	213
Bibliografia ... ..	219

## Hitzaurrea

*Tesiaren aurretik azterketa jarri nahi izan dut.*

*Azterketa, gizartearen filosofiazko hurbilketa. Horrelaxe urreratu natzaio iraultzari. Beste askok bezala tesika jaso nuen nik ere iraultza: baieztapen bat hemen, ukapen bat han. Beste askok bezala iraultzaren guraso batzuk ezagutzen nituen nik ere. Eta beste askok bezala politikazko alorrera mugatzen nuen nik ere iraultza.*

*Beta izan dudalarik, guzian hizpide den iraultza hori aztertu nahi izan dut. Iturbururaino joanik. Horra asmoa.*

*Iraultzaren soziologiazko eta filosofiazko lurpea ara-*

*katzeari ekin diot. Eta iraultza izpiritu eta pentsamolde bezala ulertuaz, Argien Filosofiaz gero egikaritu dela ikusten da, hain zuzen lurra ondo gozaturik zegoelako. Iraultza Ilustrazioaren seme da.*

*Politika-puntarik ez da liburu hontan falta. Halere, esan bezala, liburu hontako azterketa izpiritu eta pentsaera batena da, ezen eta ez zuzenki politikazko indarrena. Politika-bideak agertzen direlarik ere, gehienetan bederen (politikologoa ez naizenez gero) ez ditut politikazko zientziaren arabera neurtzen, baizik eta aipaturiko ideia-eramaile diren ala ez kontutan harturik. Hau da: taldeak ez baino mogimenduak eta korrontak dute hemen munta; eta hemen jakin nahi dena da, ea zeintzuk diren etorkizun-eta aurrerapen-eramaile, eta nola situatzen diren iraultzaren pentsamolde jatorrari buruz.*

*Hortaz gainera, ideologiazko determinismo guzien gainetik eta estrategia eta talde-iritzien azpitik jardun naiz. Ahal den neurrian, noski. Eta, ahal den neurrian, holaxe irakurri behar dela liburu hau adierazi nahi nuke.*

*Geroz eta sinetsiagorik nago errealidadeak ematen dituen datoekin pentsatzen hasteko ordua etorri dela. Horregatik, -nola esan?- irakatsi baino gehiago erakutsi egin nahi izan dudala esango nuke. Eklektizismoaren kutsua somatuko du norbaitek, han eta hemen. Baina errealidadea dogma gogortu batzutan kabitzen ez bada, ez dut nik errurik. Eta ortodosiaren betaurrekoak modaz pasatuak badira ere ez. Edo-ta, hiruzpalau printzipio (ustez) oroespikatzailleekin gertaerak neurtu ezin direla-ta beste printzipio zenbaiti ere dei egitea eklektizismoa ote da?*

*Eklektizismorik ez dago liburu hontan. Eklektizismorik ez dago, iritzi guzien berdinbaliorik ez dagoelako. Eklektizismorik ez dago, hasieratik azkenerraino ardatz bat bada-*

goelako. Eta ikusiko denez, ardatz horren arabera balioztatzen edo baliogabeztatzen dira iritzi ugariak.

Liburu honek, neurritan oso desberdin badira ere, bi zati nagusi ditu. Lehenengoa, iraultzaren azterketari dago-kio. Eta bigarrenean, iraultza berri izenda genezakeenaren lerro nagusiak agertzen saiatu naiz.

Ezaguna da Zerutar Inperioaren esaera zaharra: «Txinako Kaisar izan behar baldin banu, hiztegi bat idazteari ekingo nioke lehen lehenik: gizonen gaitza hortixe bait dator, alegia, hitzen zentzuaz ez dutela elkar ulertzen». Oroit Babel.

Iraultzaren azpian esperientzia eta esanahi asko gordetzen da. Hori dela-ta, iraultza zentzumugatzeari ez zaio interesik falta. Ikusi beharra dago, esaterako, iraultza eta errebolta, erreboluzio eta erreforma zertan ez diren berdin.

Eta iraultza beraren funtsa aztertu beharra dago. Iraultzak badu jaiotza bat, badu bere historia bat (edo asko), eta iraultzak badu batez ere barne-xede eta proiektu bat. Iraultzaren erdigune edo funts hori da baitipait liburu hontan estudiatu nahi izan dudana.

Bigarren partea, ohar luze batzuk osatzen dute. Gehiegi jantzi gabe doa dena.

Helburu bat bada, baina biderik ez, zioen Kafkak. Gure gizarte-moldeari buruz, alderantzira esan lezake gazteriak, alegia, bide asko dagoela baina helbururik ezetz. Horregatik, bide berrien bilaketa bat, politikagintzan bezala gizartegintzan, bada gaur, lehengoak ukatuz edo gutienez baliogabeztatuz. Bide berrietatik xede berrietara iritsi nahi da, lehengo xedeak ere ukatuz edo bir-pentsatuz.

Korronta hauek oraingoz negatibuki agertzeak, hots,

dagoenaren ukapen eta «kontestazio» gisa, horrek ez du inor engainatu behar. Hasarre guzizkoaren atzean bilakuntza guzizko bat bait dago. Baieztapen hori nolakoa den jakiteak du guretzat munta (eta ez ortodosia hontan ala bestean nola egoki daitekeen).

Kontrako asmoz, garrantzia kendu nahiz-edo, egindako beste bi argumentu ere ezagunak dira:

- bat, iraultza berri delako hori minoria baten kontua omen da;
- eta bi, horiek aipatzen dituzten kontradizioak sekundario direla eta ez nagusi.

Zer esan? Eskabide berriak, halanola, agintearen banakuntza eta partiketa, bizimodu-kalidatearen hobekuntza, etab. oraingoz minoria edo gutigo batenak izatea babiliteke. Baina bihar gehiengo batenak ez ote dira izango? Egun, bigarren mailako bezala senditzen den beharkizunak, ez ote du lehen plaza bihar hartuko? Autogestioaz, gaur gaurkoz, minoria ohartu bat axolatzen da. Komentziturik nago ez dela batere berdin izanen hamar urte barru. Etsenplu bat da.

Hauzia hontantxe bait dago: ez ote da, gero, betiere berdin gertatu, hots, historiako une batetan gizarte-kontradizio berri bat sortu den bakoitzean, lehen mementu batetan hartaz jabetzen direnak gutigo batzuk izatea? Eta jende-masara geroago hedatzea? Horrela bada, kontradizioaren hedapena eta nagusitzea denbora kontu bat izan daiteke. Posible dela diot. Eta hain zuzen posible hori aztertzea eta posible guzien artean zein den etorkizun-ekarle erabakitzea izango da gizarte-aztertzailearen grina.

**GERTAKARIEN IRAKASBIDEAK**

# 1. Iraultza gertakari denean

## 1.1. Iraultza jardunaldi gisa

Iraultza, orain, gizarteko fenomeno bezala aztertu nahi genuke. Filosofiazki ikusteko denbora gero izanen dugu aski.

Noiz sor daitekeen?

Gizarte-egituren eta gizarteko talde biziaren nahikunde kolektibuen artean desegokitasun handi

bat dagoelarik eta desegokitasun horren konzientzia soziala bizitzen delarik, esan dezakegu.

Egiazkoa globalki izanik ere, erantzun merkea. Operazional ez delako da merkea, nahi bada.

Baina uztagun dagoen hortan. Bi arrazoigatik bereziki. Lehendabizi, gure asmoa ez delako iraultza zergatik sortzen den erakustea, ideologia ba-koitzak bere aburua bait du puntu hortaz. Eta gero, lanaren interesagatik. Izan ere, xehetasun gehiegirik ezin liteke aurreratu, esanez bezala, iraultzaren lege batzuk badirela: hau eta hau gertatzen denean, esaterako, iraultza bistan dela, etab.

Agian inpresio hori utziko dio irakurleari jarraiko lanak. Tamala litzateke. Funtsean guk ez dugu hemen iraultzaren eskemarik presentatu nahi. Gutiago bide bat, lege batzuk, iraultzagintza aurrez idatzirik balego bezala.

Ez dago bide markaturik. Konstante batzuk bai, ordea. Iraultza *processus* bezala ulerturik, soziologiazko azterketa bat egin ohi denean, tradizionalki, iraultza nagusien artean, tankerazkotasun zenbait bilatzen da. Lan hau, lau iraultza nagusietatik (bereziki Frantziakotik) ateratzen diren «kidetasun», «antzekotasun» zenbait aztertzea izan ohi da. Iraultzaren mogimendu hori nola gertatu den gizarteko fenomeno bezala, alegia. Soziologiaren alorra, beraz.

Hona asmoa. Haatik, eztabaidak ez dira agor-

tzen, baizik eta hasten. Zeren-eta eskubide guziazekin eztabaida genezake holatsuko lan bat egiteko posibletasuna, iraultza bakoitza zerbait aparteko eta berezi bezala dela uste bada. Demagun interesgarritasuna ere oso dudagarria dela. Dena den, holako estudio baten gaurkotasunak ematen ditu lanak, nere iritzian. Gaurko fenomenuak estudiantzeko baliagarri ote da eskema gisako hau? Ez dakidan zein neurritan oraindik ere baietz uste badut ere, geroari begira bere erabilkizuna gero eta baliogabeztatuago izango delakoan nago (1). J. L. L. Aranguren jaunarekin bat nator:

«...la grande nouveauté stratégique des révolutions contemporaines, la *contestation*, élargit le *continuum* révolutionnaire jusqu'à envelopper la période pré-révolutionnaire elle-même. Jadis, les étapes et les rôles étaient très nettement répartis. Pendant la période pré-révolutionnaire, les penseurs (par exemple Rousseau), créaient une nouvelle pensée politique ou socio-politique. Ensuite, lorsque les conditions objectives de la révolution étaient réunies, les élites militantes menaient les masses et tous *faisaient* la révolution. Aujourd'hui ce schéma ne paraît plus valable. Comme les principaux protagonistes sont les étudiants et les intellectuels, les rôles de «penseur», de «meneur», d'«élite» et de «masse» se confondent. Et les conditions objectives sont à créer culturellement, on n'attend plus passivement qu'

---

(1) Iraultza jardunaldi gisa estudiantuz, gure asmoa iraultzak bidean idorotzen duen zenbait gorabehera agertzea da (agintea, esate baterako), eta ez etapaz zehazki definitzea.

elles se produisent d'elles-mêmes. Et on considère comme étroitement liées la révolution culturelle et la révolution structurelle...» (2).

Honekin azpimarkatu nahi genuena zera da, alegia, etapak nahasi egiten direla, hain zuzen iraultza premiatzeko mila bide berri dagoelako gizarte modernu batean.

Besteak beste, soziologiazko azterketa hauen pontutxo batzuk agertu nahi dizkiot irakurleari. Crane BRINTON-en *Anatomía de la revolución* (3) eta André DECOUFLE-ren *Sociologie des révolutions* (4) erabiliko ditut gahienbat lan hontarako.

Iraultzaren prozesoa honela banantzen dugu: (5)

---

(2) Ikus *Commentaire à "Etat des recherches sur la révolution"*, in "Société injuste et révolution", Ed. du Seuil, Paris 1969, 72-73 hor.

(3) Ed. Aguilar, Madrid, 1962.

(4) Ed. PUF, Paris, 1970.

(5) Laburki esanik, honela ikusten du Houtart-ek (*Société injuste et révolution*, 57 hor.) iraultzaren processus osoa:

- "la cristallisation des hommes en deux groupes, les partisans de l'ancien et ceux du nouveau,
- une période d'euphorie révolutionnaire qui voit s'unir les "idéalistes" et les "réalistes",
- puis des luttes pour le pouvoir (la révolution mange ses propres enfants),
- une période d'intransigeance et de puritanisme révolutionnaire pour sauver les acquis de la révolution,
- enfin, une accommodation progressive au nouvel ordre des choses".

Iraultza aurea / Iraultza festa / 'La Terreur' edo iraultzaren gobernamendua / 'Thermidor' edo iraultzaren geroa.

### 1.11. *Iraultza aurea*

H. M. Johson soziologuak, iraultza baten gertatzeko, sei baldinkizun ikusten ditu:

- gizarte ordenuaren haustura
- herri-iritzi ohartu bat
- leader bat
- talde iraultzaile bat
- ideologia iraultzaile bat
- gobernamendu ahul bat, moral aldetik baitipait.

Esanaren arabera, erreboluzio-eztandaren aurretik, bada jendearen artean halako deskontentu eta ezinegon hedatu bat.

Gobernu zaharra koloka-antxean somatzen da. Ez dela aurrerantzean gobernatzeko gauza, pentsatzen dute gero eta gehiagok. Gobernuan bertan ere mesfidantza dago, beren artean.

Gizartean bertan ez dagoke krisi sakonik. Esaterako, Frantzia (iraultza nagusi aurrean) zabalitzen eta ekonomiazki prosperatzen zihoan. Baina horra, martxa hortantxe «stop» bat sortzen da, horrela esperantza guzia zimelduz. Geldiune horren errua oso osorik gobernuerai botatzen zaio. Deusetarako gai ez dela salatzen zaio:

ez gizarteari irtenbide aurrerazale bat emateko, ez justizia egiteko.

Ezarritako sistimarekin printzipialki ados direnak ere, horiek ere gobernuak kulpatzen dute, alegia, sistimaren arauz sozietatea zuzentzeko eta gidatzeko traba besterik ez dela gobernu hori akusatuz.

Haserrea *crescendo* doa, gora eta gora. Gobernuaren tirania, diktadura, talde batzuekiko faboritismoa, gobernariaren diruzalekeria eta usteleria, inkompetentzia... egia direla gero eta errazago sinesten du jendeak. Gobernuaren kontra publikatzen den guziaz egiaz hartzen da. Haien kontrako komeriak eta txisteak eta hitz-jokuak arrakasta handia dute.

Gobernuak berak, zampaketa lanean, ez du arrakastarik, dela oposizioa oso zabaldua edo gogorra delako, dela gobernuko asko ez dagoelako oso bero eta sineskor.

Presio-taldeak ez dira falta. Gutxi edo gehiago antolaturik eta bateraturik. Baina beti sator lana eginaz, oso ekintzaile eta susperturik.

Intelektualek ere ez dute gobernuak sostengatzen. Eragidura handia dute intelektualek. Kritika-izpiritu zorrotzarekin, sistimaren eta gobernuaren ahuldadeak argitara ekartzen dituzte. Eta bidenabar, mundu berri baten beharra opagarri presentatuz jendea hartaraten.

### 1.12. *Iraultza festa*

Harritzeko dá: erreboluzioaren eztrandak us-tekabeen harrapatzen du ia beti jendea, nahiz eta haren esperoan lehian borrokatu. Sorpresa da.

Gertakizun seinalagarri batzuk inauguratzen dute ofizialki iraultza. (Gertakizun horien seinalagarritasunaz jendea ez da berehala ohartzen). Egun eta gertakari horiek balio sinbolikoa dute. Halanola: Inglaterran, 'Parlamentu luzea' edo Shafford-en hilketa (1641, maiatzak 12). Frantzia, Bastilla hartzea edo Abuztuaren lauko gaua. Errusian, Romanov-en kentzearekin 1917-ko martxoa edo Urriko hamar egunak.

Gertakizun horien bidez, edo horiekin batera, errejimen zaharra eragotzi denean, iraultzaren «ezti-aldia» (Brinton) hasten da. Edo nahi bada, iraultza bera festa izpirituarekin hartzen da, bizi-ki ongi A. Découflé-k analizatu duenez.

Herriak liberazio sendimendua du. Kateak hautsi ditu. Berrikuntza posible guzien ateak zabalik daude orain bere aurrean.

Jendeak bere-bere egiten du garaitzapena. Populua herriez jabetzen da: kaleak, plazak, herri osoa, nazio osoa da berea. Kalez kale ibiliaz, zerbitzu publikoak doharik baliatuz erakusten du hori.

Eta iraultza nehork ostu ez diezaion, zaintza,

bijilantzia, egiten du herriak berak. Herri-polizia kreatzen da, iraultzaren defentsarako komiteak. Kontra-iraultzaileen ihiza.

Arras bestelako gizartea eraiki nahi litzake. M. Foucault-ek dioen *société inverse*. Hortarako, lehen lege eta ohitura zenak ez du gehiago baliorik. Iraultzak mundu erabat berri bat ekarri nahi duelako, mundu zaharrari zegokiona ukatu egin behar da, eta berritasun hori oraintxetik, eguneroko bizimodu arruntean, hezurmamitzen hasi. Festaren, jaiaren psikologia du herriak. Lanari lotzerik ez du pentsatzen, aurrerantzean beti festa bailitzan. Oroit 1959ko Urtarrila Habanan.

Bihotzean sortu den festa hori, burura eramaten dute iraultzaren gidariak. Iraultzaren aldeko erabiltzen dutela, esan nahi dugu. Erreboluzioa irauarazteko. Festa auspotuz, *herria bateratzea*, bateko; eta, besteko, *iraultzaren baliotasunaren kontzientzia* sortzea erdiesten da. Helburu berekin erakutsi nahi da herriak baduela bere loriazko historia: iraultzaren heroeak, mitoak, sinboluak, egunak badira. Berdin, herria bere buruaren jabe (eta ez nolana hiko!) dela erakutsiz: iraultzaren etsaiak kondenatu eta urkatzeko, herriak herri-tribunalak ditu horrela herriaren justizia eginaz. (*Gillotina, berdintasunaren tresna hori*).

### 1.13. La Terreur edo iraultzaren gobernamentua

Itzala argiari edo beroa suari bezala omen dagokio iraultzari *La Terreur* delako hori. Hitz ho-

nekin aditzera eman ohi da agintearen inguruan iraultza-indarrak atondu nahi den denboraldia eta horrek dakartzien hauziak. (Izatez, *La Terreur* Frantziako iraultzaren denboraldi bat izan zen. Momendu eta izpiritu bat, hobe esan).

Orainarte nornahi (pertsonekin zein talde) mintza zitekeen iraultzaren izenean. Aurrerantzean ez. Iraultza ofizialdu egiten da. Haren abotsa, eta haren izenean mintzatzeko deretxoa, ez du edonork. Gobernamentu berriak monopolizatzen du (izana ez bada ere) izena.

Lanak ematen dizkio aginteak iraultzari. *Ezti-aldia* amaitzen denerako, iraultzaile *moderatu* eta *muturzaleen* artean borroka latza nagusitzen da. Lehen-gobernamentua (probisionala, eman dezagun) moderatuek osatu dute. Baina *garbiza-leak* ez daude ados, iraultza ez bait doa aski azkar ez aski urrun. Hauentzako, agintea gogortu beharra dago, etsaia ez bait dago lotan; kanpoan eta barruan dago etsaia. Eta *iraultza salbatzeko*, iraultzaren ekarria bere osotasunean gorde nahi dutelako, aginteaz jabetzen dira. Ausaz gutienak dira estremista hauek, baina bai erabakienak! Puritanoak Ingoterran; Jakobinoak Frantzian; Boltxebikeak Errusian; Maotarrak kultur iraultzaren Txinan. Hauek desafiatzen ez da inor auzartuko.

Saturno berria, iraultzak ere bere haurrak jan egiten ditu. Bertutearen erreinua jarri nahi lukete. Eta bertutetsu ez dena infernura ez baino gartzelara doa. Lehen bertutea, iraultzailetasuna

da. Honi so epaitzen da jendea, honen izenean bilatzen dira etsaiak, traidoreak, salduak, dudazkoak. Baina horra, nor ez da dudazko eta etsai Robespierre batentzat? Ondorioa?: *La Terreur*, Ikararen erreinua.

Agintea eta iraultza nola bateratu, batak bestea jan gabe nola iraun?, hor dago problema guzia. Erreboluzioak irautea nahi bada, iztituzionaldurik eginen du, dirudienez. Baina ez ote beti egia, Joxe Azurmendik dioena, alegia, «*gero erreboluzioaren asmoak erabat betetzeari baino axola gehiago ematen zaio erreboluzioa tinkatzeari*»? Hortik 1794-an *Comité du Salut* delakoak Calvados-en lanegiten zuen ordezkariari idatzitakora ez dago pausu bat baino: *Gobernamendu iraultzailea eraikitzea premiazkoagoa da gaur erreboluzioa egitea baino*.

Fenomenu hauek direla-ta, Robespierre, Napoleon eta Stalin iraultzaren fruitu jator direla uste dutenak ez dira falta. Hauen iritzian, diktadura eta iraultza hertsiki loturik daude. Ez da gauza segurua, halere. Kausa-ondorengotasun hori erabakitzeke dago.

#### 1.14. Thermidor *edo iraultzaren geroa*

Garbizaleen gobernamendu horrek berea (eta bereak!) egin duelarik, *Thermidor* dator. (*Thermidor*, Frantziako iraultzak sorturiko egutegiaren bigarren urtea da).

Robespierre bertutezalearen heriotzarekin, ar-

nasa hartzen du askok. Eta iraultzaren beste mementu bat hasten da. Iraultzaile garbizaleen gehiegikeriak higuindu du jendea, eta ez da gehi-ago holakorik nahi. Amnistia bat bezala hasten da orain. Bertutearen ordeztu Atsegina. Jendearen ohituretan, jantzetan, koloretan, libertimendutan, eguneroko bizitzan nabari ahal daiteke aldakuntza. Eta bereiziki gobernamentuan. Oraingo gobernariak ikarazko giro haren errua muturzale haien gain botatzen dute. Fanatiko, odolzale, agintezale eta tirano batzuk zirela esango da. Eta kitto.

Iraultzaren une hontan lehengo berotasun hura epeltzen hasia da. Sinboluek eta fraseek ez dute lehengo eraginik. Emeki-emeki iraultza ez da egunero ospatzen, hortarako atondu diren egun jakin batzuetan baino.

Deus berririk gertatu ez denik ezin daiteke esan. Baina oraingo lana ez da hainbeste berritasun horiek goratu eta festatzea, baizik eta bizi-molde berrira jendea molda dadin laguntzea. Hortan saiatzen da gobernamentua.

Hemen sortzen zaizkio iraultzari salatari gogorrenak, ezkerretik sortu ere. Erreboluzioa traziokatu egin dela diote, tinkatu beharrean hil egin dutelako agintariak iraultza. Etabar. Oroit Trotsky. Eta gerora, bigarren belaunaldi iraultzailea plazara datorrenean, problemak ez dira gutitzen. Batez ere hauzia iraultza iztituzionalduaren aldekoen eta iraultza etengabearen defendatzaileen artean dago. Iraultzaren *kontserbado-*

*reentzat* iraultza etengabeak anarkiara darama. Besteek, ordea, iraultza iztituzionaldu hortan *ortodoxia* madarikatu bat besterik ez dute ikusten.

## 1.2. Iraultzaileaz nota laburrak

Iraultzailea, gizon arrunt bailitzan ikustea ikaragarri nekeza bide da. Santuen koroarekin edo deabruaren buztanarekin ikusten dugu beti.

Iraultzaileaz jendeak duen irudipena arras bitaratu liteke:

Batzuentzat, iraultzailea, bizarduna da, hiztuna, biolentzia eta odolzalea, abenturazalea, maltzurra, tipia eta meharra, funtsean kobarde hutsa, fede eta lege gabekoa, inbiriak zulatua, frakasatu bat (6), gizartearen hondakina, mendekari amorratua (7).

Beste batzuentzat, kontrara, gizon zintzoa da iraultzailea, idealzalea, herriaren aldeko martiri bat, ausarta, bizkar zabala, gazte izanagatik ere gizon heldua, amorekaitza, izpiritu garbikoa.

Gonbaraziobidez: Mao, mundu guzia deuseztu

---

(6) *La Fayette*-gatik esaten da, Luis XVI eta Maria Antonietaren gortean bere eite lotsagarriagatik esitorik ez zuelako, hartu zuela iraultza-bidea.

(7) Victor Hugo-k (1850): "Ces révolutions, ces événements maladroits qui faut sortir de l'homme en même temps de si hautes idées et de si petits hommes".

nahi lukeen ilunpetako deabrua da. Eta Mao bera, bestalde, mirarigilea da, bere zahartzaroan ere kilometroka igari egiteko gauza den supergizona.

Aingeru edo deabru bezala barik, behingoz bederen, gizakume bezala ikusiko bagenu iraultzailea? Asmo horrekin urreratu zaizkio iraultzaileari giza-jakintzak, eta batez ere psiko-soziologia.

Anitz estudio egina da hortaz. Ikusi nahi izan da ea egia ote den iraultzaileek buru-neurri bereziak ote dituzten, ea gehienetan beltzeranak diren, eta baitipait ea egia den iraultzaileek psikologia bereiziko gizonak diren. Iraultzaileen gizarte-jatorriaz ere ikertu da. Etabar.

Brinton jaunak (8) analisi sakon bat egin du puntu hauetaz denetaz, iraultzaileak talde gisa eta pertsonalki aztertuz, bere gizarte-egoera eta giza-izakera sakonduz. Gaia oso interesgarria da, eta mitoak oro neurtzeko estudio jakingarria. Pontutxo batzuk bil-laburtuko ditut irakurlearentzat.

Iraultzaileak behereneko mailatik sortu omen dira, gizarte-jatorriari dagokionez, pobreziatik datozke. Iraultza nagusiak azterturik, hori ez da egia. Irizpide hori ez litzake inolaz ere analisi baten fruitu, aurre-iritzi batena baizik. Nondik datorkeen iritzi hori? Agian hemendik: iraultza

---

(8) Ikus aip. lib. 120-153 hor.

egiteko deskontentu egon beharra dago. Deskontentutasun hori ekonomiari soilik lotzen badiogu, horra iraultzagilea derrefente bilaturik: pobre. Historian hala gertatu ote den jakin behar. Robespierre eta Lenin pobre-pobreak ote ziren? Idealak eta gainontzeko faktoreek deus kontatuko ez balute bezala!

Oro har, Brinton-en iritzian, mundua egiteko bezala iraultza egiteko, era guzietako gizon eta emakume behar dira. Eta denetarik dago egon ere. Iraultzan parte-hartzen dutenak ez dira erabat apartekoak: ez hobeak ez makurragoak. Iraultza guzietan, aprobetxategiak badira, egoera normal batean egoterik ez zutenak eta iraultzari esker promozionatu direnak berez balio gutikoak izan arren. Baina edozein egoeratan funtziona zezaketen goi-mailako gizonak ez dira falta. Hor ditugu Cromwell, Washington, John Adams, Jefferson, Mirabeau, Talleyrand, Carnot, Danton, Lenin, Trotsky, Mao...

Analisiaren bidez iraultzailea ez gauzeztana ez supergizona dela ondioztatzen bada, nola esplika haren jokabidea situazio normal batetakoaren antzekoa ez izatea? Zeren-eta, paradoxalki, nahiz-eta gizon arruntak egin iraultza, iraultzako jokabidea ez da arrunta. Onartzen denez, balegoke holako radikaltasun berezi bat, sinesmen bero-bero bat, maitasunean eta gorrotoan, ausardian eta esijentzian neurririk-eza bezalako bat, etc...

Brinton-ek, hori esplikatzeko, bi hipotesi eman du: bateko, iraultza aurrera ateratzeko, gehiene-

tan, iraultzaileak bizimodu gogorra eraman behar du; bizitza-kondizio horiek baldintzatu egingo lukete, horrela, iraultzailea bere jokabideetan. Besteko, ezin liteke ahantz iraultzaren pentsamoldeak berak osotasun tankera bat ematen dio la iraultzailearen bizitzari, eta bidenabar zentzu azkar bat. Iraultza giro hortan, bada, izpiritu berezi bat barneratuko luke iraultzaileak.

### 1.3. Iraultzaren 'legeez'

Iraultzaren eta kontzientziaren harremanak ikertzeari ez zaio interesik falta.

Gaingiroki (gaiak askoz gehiago merezi duela aitortuz) azterpide bat edo beste emanen dugu, normatibutasuna besteentzako utziaz gainera. Gai hontan ikasia denak ondo daki ez garela hemen kontzientzia moralaz ari baizik eta (labur esanik) subjelibutasunaren eta objetibutasunaren hauziaz. Hauzi larria hauxe, eta egun bizi bizirik dagoena. Boluntarismoa, espontaneismoa, maioria eta minoriaren arazoa, eta hauekiko estrategia eta planteamenduak oro hemen sartzen dira.

Iraultzaren sorreraz, J. Comblin-ekin (9) mila galdekizun egin genezake, jakiteko alegia, iraultza beharrak ala libertadeak sortarazten duen, iraultza zoriaren edo halabeharraren ondorio den, iraultza kontzientziaren ala oharkabeki eginga den.

---

(9) Ikus *Théologie de la révolution*, Edit. Universitaires, Paris, 1970, 163 hor.

Joera batetakoa ala bestetakoa izan, bistan da estrategia guziz desberdinetara lerratzen dela. Adierazbideen mailan ere ezberdintasun bera bi-la dezakegu, histori idazleen artean, kasurako. Alfred Cobban-ek egin analisietatik, Godechot-ek dakarrenez (10) iraultza nagusien bi interpreta-zio-eskola dagozke:

Lehenengoak, *thèse du complot* deritzanak, iraultzan gizonaren borondatea besterik ez luke ikusiko. Minoria intrigatzaile baten lana, filosofo batzuen influentzia, horra iraultzaren kausak. Iraultza, bada, konplot eta konspirazio baten ondorena da. Horrela, Frantziako iraultza nagusia, franc-masoi-en eginkizuna da, Barruel-en iritzian.

Bigarrenak, *thèse des circonstances* delakoak, gizonaren eragina huskeriatzat du. Kondizioak ikusita iraultzak gertatu beharra zuen, hori da dena. Barnave-rentzat, badakigu ekonomiazko eta gizarteko estrukturen aldakuntzak ekarri zue-la Frantziakoaren lehertzapena.

Ez determinismorik, ez boluntarismorik.

Iraultza, Lotz-ek azpimarkatu eta gero ikusi-ko dugunez, Frantziako iraultza arte, fisikatik eta astronomiatik etorria, konzeptu objetibu be-zala azaltzen da. Fisiko-politikotik politika hu-tsera orduantxe lerratzen da. Eta orduantxe hain zuzen, zera adierazten hasten da, alegia, aldakun-

---

(10) Ikus *Las revoluciones (1770-1799)*, Edit. Labor, Bar-celona, 1969, 194-205 hor.

tza objetibua eta ekintza subjelibua. *Iraultzaile*-konzeptua 1789-an agertzen da lehendabizikoz. Baina oraindik, Frantziakoan, iraultzaren barneratzea ez da osoa. Frantziako erreboluzioko iraultzailea, erreboluzioaren defendatzailea da, abogadua, iraultzaren alde dagoena.

Geroko urratsik handiena Marx-ek emango du. Iraultzaileak osoki baitaratzen du iraultza. Erreboluzioa nahi eta burutu egin behar da. Ez da aski gertatu dela ikustea, ez eta haren alde egotea. Probokatu, sortarazi egin behar da. Harez geroz, iraultzailetasuna izpiritu bat da.

Geroztik, kondizio objetibuak eta subjelibuak bereiztea eta azpimarkatzea, klasiko bilakatu da. Baina ez problemarik gabe, bata ala bestea auzotzeak jokabide desberdinak sortzen ditu eta. Stalinek (11) naturaren, ekonomiaren berezko eta betiko lege aldakaitzak azpimarkatu ditu. Eta harekin Europako Alderdi Komunista gehienek. Gauza ezaguna da giroa ez dagoela sekulan heldurik, iraultzari ekiteko. Beste alderdian, Mao. Subjelibutasuna lerropetzen du honek. Iraultza guzien zioa eta faktore erabakitzailea, gizona da. Objetibua sortzeraino joango litzateke subjeli-

---

(11) "Le marxisme conçoit les lois de la science —qu'il s'agisse des lois de la nature ou des lois de l'économie politique— comme le reflet des processus objectifs qui s'opèrent indépendamment de la volonté humaine. Ces lois, on peut les découvrir, les connaître, les étudier, en tenir compte dans ses actes, les exploiter dans l'intérêt de la société, mais on ne peut les modifier ou les abolir". (Numéro spécial des *Cahiers du Communisme* (nov. 1952), cf. pages 4, 6, 7, 8, etc.).

bua, ausaz. Aise konprenitzen da ulerkera hontan, nahizkotasunaren lehentasuna eta giza-atxikimenduaren premia. Cubakoa ere faktore objektibuak bigarren mailan utzita egina da, probokatu, premiaua, AK guzien ortodosien hasarreakin.

Marxismoari egokituz aztertu du gauza bera Rikardo Arregik, joerazko arriskuak agerian ipiniaz:

Bada marxismoan beste bi muturren arteko dialektika bat: halabeharra eta nahikortasuna, determinismoa eta boluntarismoa. Sozialismoak zientifikoa behar du izan. Naturalezaren legeak, ekonomiarenak, gizartearenak, historiarenak eta politikarenak ezaguturik bakarrik joka lezake. Hortikan determinismoan erortzeko arriskua azaltzen da, naturaleza makina bat balitz bezala jokatzeko arriskua. Orduan, erreboluzioa hasteko, lehen-dabizi *kondizio objektibuak* gertatzea eskatzen da, eta, jakina, hauek oso osoan ez dira gertatzen. Horregatik joera honek frenuaren papera egiten du, gauzak bere gisara gertatzen direla uste izateko joera duelako. (...)

Besteek, berriz, nahi izateari nagusitasun handiago ematen diote alabeharrari baino. Hauek erreboluziogileak eta besteak erreboluziolariak direla esan daiteke. Hauek sinpatia gehiago jasotzen dute besteek baino. Hauen arriskua kondizionamentua ahaztea eta baztertzea da (12).

Zer esan? Hautabeharkizun bezala barik dia-

---

(12) Ikus Rikardo Arregi, JAKIN sorta, 1971, 106-107.

lektikazki ikusi behar dela gauza, hori lehenengo. Eta gero, (estrategiazkoa aparte utzirik) filosofiazko problema sakona dagoela honen azpian. Gizonak egiten ote du historia? Ala historiak gizona?

## 2. Iraultzaren ingurumariak

### 2.1. Iraultza: test hitza?

Hitzaren bidez elkar ulertzea ez dela bat ere erraza esanez hasten banaiz, irakurlea ez da harrituko. Eguneroko bizitzak erakusten bait du horren egia.

Gertakari honi arrazoi asko bila dakiok. Ez da hau gure oraingo eginkizuna. Halere, interesgarri deritzat zera gogoratzeari, alegia, hitza hondar mugikorra bezala dela. Hermeneutikak ondo

gogoan du hori, eta horregatixe hizkuntzaren interpretaketa oro historia eta gizartea kontutan harturik egiten da. Iraultza hitzarekin gertatuak, hots, hastapenean adierazten zuenaren kontra-koa esatera igarotzeak, Hermeneutikaren pentsaburu hau balioberritu egiten du.

Gero ikusiko dugu *iraultza* hitza historia zehar zein gertakari ezberdinak adierazteko baliatua izan den.

Eta egun? Hitz ekibokorik baldin badago, hau da bat. Zein hitz prestigiatsuagorik hau baino? Hitzaren erabilkera-maiztasunak zerbait adierazten badu, iraultza hagitz esanahitsua da, zalan-tzarik gabe. (Ez ote gabezia adierazten?).

Iraultza hitzak sagaratu gisa funtzionatzen du gure gizartean. Hau ere ezaguna da. Izan ere, batzuei begirunea sortzen dien neurri berean besteei beldurra ematen die. Eta hitz magiko guziak bezala burura orduko bihotzera doa, ezagutzapena baino gehiago sendimendua, afektibidadea dakar.

Hau den hau gure giroan gertatzen denik nekez uka daiteke. Jokabide ezagunegiak dira, eta guti edo asko guztiok sartzen gara barne. Tipologia bat egiteko ez ausardiarik ez asmorik gabe ere, kasu zenbait ikus genezake.

### 2.11. *Iraultzaile grinatsuak?*

Iraultza hitzaren erabilkeratik epaituko bagintuzte, denok ginake iraultzaile gaur. Jokabi-

detatik judikatuaz, ordea, ondorio beretara hel-tzea ez litzake agian horren erraza. Halere, gure eginkizuna ez denez gero, intentzio-prozesorik ez dugu egin nahi. Bakar bakarrik iraultza hitz be-deinkatu hau zein sentidutan eta zertarako era-biltzen duen jendeak ikusi.

Badira iraultzaile erromantikoak. Hauek iraul-tzaren zentzu mitikoa soilik onartzen dute. Errea-lidadea (edozein errealidade eta errealidade oro) ezagutzeko eta neurtzeko bide eta ikuspegi ba-karra iraultza litzake. Abantail ikaragarriak ditu honek, halanola, izatetasuna hurbildik eta kon-kretuki ezagutu behar hortatik libratzea, ezagu-tzapenaren lanak arintzea eta ekintza-tresna se-gur bat eskaintzea. Nola hori? Iraultzak eman ohi dizkien eskema eta klitxe horietara erreali-dadea egokitzea aski delako. Izan ere, gizarteari eta historiari buruzko jakintza guziaz badute. Jo-kabide honen salakuntza irakurri beharrezkoa *Kolakowski* liburuan ikus dezake irakurleak (1). Hona iraultza, erreboluziogilearen lobelar bila-katurik.

Ezkertiar agertzeagatik iraultza gora eta iraul-tza behera dihardutenak badirela esango banu, ez nintzake hortan lehendabizikoa. Aspaldidanik sa-latua izan da joera merke hau. Izenak izana eka-rriko balu bezala. Antzeman daitekeenez atsegin eta kontzientzi-lasaitasun inbidigarria eman be-har du hitz honen ezker-eskuineko erabilkerak.

---

(1) ARREGI, Joseba, AZURMENDI, Jose: *Kolakowski*, JAKIN, Arantzazu, 1972, 105-124 hor.

Tabernazuloetan bezain usu bulegoetan idorotzen dira iraultzaren ahoberoak, noski.

Iraultzaz jardutea bera iraultza egiteko traba zaienen kasua, biziki fin ikusi du Vassilis Alexakis jaunak «Aste hontan ez» izendaturiko lan-txoan (2):

Bat gatoz, iraultza egin behar da. Dena aldatu behar da! Bai, jaunak, egin dezagun erreboluzioa. Baina ez aste hontan, mesedez.

Ez dut astirik. Astelehen goizean iraultzaile gazte batzuen *meeting* batean hitzegin behar dut. Eguerdian, Lot-eko anarkista taldeko ordezkari batekin bazkaltzen dut. Arratsaldez eta gauez, herri-gerrilaz bi tomotan agertu den liburu bat irakurri behar dut. «Il faut que ça change» (Hau alda dadila beharrezko da) aldizkarirako astero bidaltzen dudan kronikan aipatu nahi nuke. Asteartea hartuago dut oraindik, eta askoz gehiago asteazkena.

Bi orduko hutsunea dut ostiral arratsaldean, baina erreboluzioaz egun hortantxe agertzen den filma ikustera joatea pentsatzen dut.

OLAS-eko Konferentziaren mandatua ahanzten dute holakoek: *Iraultzaile guzien eginkizuna, iraultza egitea da. Edo Marxek ziona, alegia, egiazko mogimenduzko urrats bat hobe da hamabi programa baino.* (Gotha, 1875) (3).

(2) *La Croix*, aldizkaria, 21.X.72.

(3) Ikus *Révolution et Socialisme* (pages de Karl Marx), Maximilien RUBEL-en hautapena, Payot, Paris, 1970, 88 hor.

Mundu guziarentzako mito bihurturik dagoela iraultza dio Aranguren jaunak, eta ondorioetatik bat hau litzake:

...hain zuzen iraultza hitz hau hainbeste erabil-tzean, manipulatzeko arriskua dagoke: egon ere mitifikatetik mistifikatzera esakuntzan ez dago alde handirik, eta errealidadean ez gehiago. *Iraultza* hitzaren *hala-hola* hori aldentzen duena, jokatibide benetan iraultzailea da (4 eta 5).

## 2.12. *Iraultzaren gesaltzea*

Erreboluzio hitzaren ahultzea, fenomeno eza-guna da.

Zernahiri dietzen zaio iraultza. Bataio hauxe da munduan hedatuena. Edozein aldakuntza, iraultza da. Kontraketa guziak, iraultzaile dira.

---

(4) ARANGUREN, J. L.: *Commentaire à 'Etat des recherches sur la Révolution'* de Houtart, in *Société injuste et Révolution*, Seuil, Paris, 1969, 70 hor.

(5) Iraultzaren erabilkera gaistoz mintzatzerakoan, nahiz-eta ekintza sanoaren garrantzia derrigor azpimarkatu, tipologiarik ez dugu erabaki ez moralik eraiki. Germán Guzmán jaunak (*Camilo, el cura guerrillero* liburuan, 32-33 horrialdeetan) bai egin du. Hauek aipatzen ditu berak:

“EL REVOLUCIONARIO de café, de bufete, callejero, de plaza, atolondrado, azuzador, oportunista, ocasional, egó-latra, explotador, gritón, teórico, por conveniencia, bohemio, por snobismo, sin compromiso, burócrata”. Eta zerrenda luza liteke, noski. Baina beste edozein ekintzaile harturik, berdin berdin kanta genezake litania hori. Gehienez ere, denetik bada iraultzaileen artean ez beste deus ez luke honek erakutsiko. Eta hori lehendik ere bagenekien, eta horren monopoliorik iraultzak ez duela ere bai.

Analogiaz ulertzen da iraultza. Eta areago: analogiaren analogiaz. Aldakuntzaren sakontasunari baino gehiago azkartasunari begiratur, alegia. Afrikako eta Hego Ameriketako gobernu berri guziak, iraultzaren izenean hartzen dute gobernutza. Artista, kantari, teatrolari guziak... iraultzaile dira.

Gaur, iraultza hitza kale-mutur guzietan ikusten dugu. Nork ez ditu ikusi kapela iraultzaileak? Gona iraultzaile gabeko denda guti dago. Sukalde-tresna berriak oro iraultza ikaragarria dakarte. Klorofila apur bat jarriz gero, ortzak garbitzekoa derrefente erreboluzionario bihurtzen da. Publizidade guzia hortik doa.

Iraultza, gure artean, aldakuntza adieraztera etorri da, aldakuntza enfasis pixka batekin.

## 2.2. Iraultza hitzaren historia

Iraultza, gaurkoaren aldean, oso bestelako zentzuan erabili ohi zen XVIII mendera arte.

Antzinateak, erreboluzio hitza, mogimendu biribil eta ziklikoan erabili izan du, hots, zerbaiten hastapen-puntura itzultzea adierazteko. Esaterako, Sisiforen harriaz, pergaminoen biltzeaz aritzerakoan.

Mendebalak, erreboluzio hitz bera, astronomiazko konzeptu bezala jaso du. Gero, askoz geroago, lerratuko da politika eremura. Eta poli-

tikan, ikusiko dugunez, hastapenean zuen zentzua ez baino kontrako esanguraz jabetuko da.

Aldakuntza hau nola eta zergatik gertatu zen adierazi nahi genuke, baitipait Georges MOREL eta Michel CERTEAU jaunen lanez baliatuz (6).

## 2.21. *Izarlaritzan*

*Robert* frantses hiztegiak dakarren iraultza-ren lehen esanahia, itzuliarena da, higidura biribilarena, mogimendu ziklikoarena.

Historian ere berdin da, iraultzak izan duen lehen zentzua jirabira hitsiarena da. Mendebalean, astrologian erabili denean, (eta astrologian erabili da lehendabizikoz), konzepzio ziklikoaren lekuko da iraultza.

Iraultza, bada, «itzulia» da, harat-hunata, joan-etorria, astroen zirkunboluzioa. Ikusten da: ez deus goxoagorik, deus bareagorik, izarren betiko mogimendu ezti hori baino.

Eguzkiaren, lurraren, astroen iraultzaz mintzaten zaigu XVI gizaldiko gizona, abiapontura, hastapen-lekura itzultzen direla adieraziaz.

---

(6) MOREL, Georges: "Réflexions sur l'idée de révolution", in *Etudes* (mai eta juin-juillet), Paris, 1968.

CERTEAU, Michel: "La révolution fondatrice, ou le risque d'exister", in *Etudes* (juin-juillet), Paris, 1968.

(7) "Révolution", in *Dictionnaire français*, Genève, 1680.

Iraultzaz honela dio, esate baterako, P. Richelet-ek: *jira, itzulia, ibilaldia eta segida* (7). Eta gerora, oraindik argiago, Trévoux-eko Hiztegi sonatuak: *Jira, ibilaldia, itzulia, astroen higadura betea, zodiakoren lehen pontura itzultzen denean* (8). Copernico-k *De revolutionibus orbium celestium* (1543) idatzi duenean, gauza bera.

(Hau dela iraultza hitzaren esanahi arruntena eta bortitzena ongi agerturik utzi ondoren, halere esan beharra dago, denbora berean, bazegoela bigarren mailako beste zentzu bat ere. Iraultzarekin zoritxarra, patua, neurrizgaineko aldaketa aditzera emanen litzake hemen. Bada, beraz, ebakiduraren, hausturaren ideia, nahiz-eta zorigaitoari, izialdurari lotua egon.)

## 2.22. Politikazko alorrean

Izarretatik politikara jeistean, ostatu berria bilatu duela iraultzak esan genezake.

Hemen bi puntu argitu beharko dira: noiz eta nola hasi den jendea iraultza hitzarekin politikazko fenomenuak esaten eta, bigarrenagoz, zein politika-gertakari adierazi nahi den.

Iritziak ez datoz bat.

*Robert* hiztegiak XVI mendean aplikatzen dela iraultza gizarte-fenomenuetan dio. Morel

---

(8) *Dictionnaire de Trévoux*, Paris, 1732; f. 4, c. 1554.

jaunak, ordea, hasiera hori XIV-XV mendeetan jadanik jartzen du.

Urte kontu hau ez da horren inportantea. Hagitz inportanteagoa da bigarren pontua, alegia, iraultzaren zentzua. Politikan zer adierazten du iraultzak?

Certeau jaunak, Arend aipatzen du, eta honekin pentsatzen politika eta gizarte barrutiko iraultza hitzaren lehenengo erabilkerak, astrologian tradizionalki izan duen ordenuaren eta normaltasunaren sentidua gordetzen duela. Ez da ebakidurarik, ez mogimendu astindurik. Frogabidetzat Inglaterrako iraultza dakar Arend-ek. Hara: XVII mendean Inglaterrako iraultzaz mintzo diren hango dokumentuak, zeri deitzen diote *iraultza*? *Cromwell*-ek ekarritako aldakuntzari? Ez, baizik-eta 1660-an Cromwell erori eta atzera errege tronuan esertzea... horra zer den haientzako iraultza.

Iraultza ez da ekaitza, ekaitz ondoko eguzkiaren agerpena baino, ordenuaren berriztapena, eta ez ordenu *berria*. Certeau-ren gardiz, Frantziako iraultza arte (1789) antzinatera eta hastapenara itzultzea esan nahi du iraultzak. Hau da, izarlaritza beti eduki duena.

Morel jaunak bestela pentsatzen du. Frantziako iraultza orduko hartu du iraultzak gaur duen haustura bortitzaren esanahia. Esangura-aldaketa hau politika-alorrera jeistearekin gertatu da, hots, Errenazimendu Haroan.

Nola? Ordurarte, astrologian soilik erabili ohi da hitza. Garai hontan, politika-sistimen aldakuntza mogitzen eta azkartzen hasten da. Politikazko sistimen joan-etorri hori izarren mogimenduekin gonparatzen da. Gonparaketa hau hagitz hedaturik eta komunzki erabilirik dago. Baina politika-bizitzak gonparazioaren arrazoia ahantzirik, hitza gordeko du, eta hain zuzen, ezari-ezarian, has-tapenean esan nahi zuenaren kontrakoa adieraz-teraino. Izan ere, garai hartako politikazko eror-keta eta aldakuntzek ez dute zer ikusi handirik, ez-titasunari gagozkiolarik, hilargi beteko gau ba-ketsu baten zeru aldean ikusten den baretasu-nerekin. Gobernuetak maiz aldatzen bait dira, eta ez bake santuan. Horrela, politika-sistimen aldakuntzen lasterrak eta maiztasunak izarren higiduraren baretasuna ahaztu egingo du, eta ize-na lapurtu.

Morel-en ustez, gaurko iraultzaren esanahia Errenazimendu Haroko sistema politikoaren egor-aren seme da, hein handi batetan. Gero ikusiko dugu zein neurritan, gaurko iraultza aldaketa hori baino askoz ere sakonagoa eta aberatsagoa da-ta. Dena dela, aurrerantzean iraultza ez da lehen zena.

### 2.23. *Frantziako iraultzaz gero*

Errenazimendu haroz gero, iraultza ez da lehen zena. Baina ez eta gero izango dena. Auto-re guziak ados dira hontan. Kasurako, Certeau jaunak aipatu duen iraultza-iritziari, «hastapena»,

«haustura» falta zaio. Morel-en iraultza-konzeptuak hau badu, baina honi «sakontasuna», «iraultzaren proiektu» deitzen den hori falta zaio. (Irakurleak ikusi du, iritzi horren arabera, erresuma-kolpe bat eta iraultza bat bereizterik ez legokeela.

Komunzki onartua denez, Iraultzak bere zentzu modernua Frantziako iraultza nagusian hartzen du. Frantziako iraultzan eta Argien Filosofia inguruan, dudarik gabe. Gero ikusiko dugu, Argien Filosofia eta Modernutasuna aztertzerakoan, nola moldatu den hitza ez baino konzeptua.

Zein da, baina, esangura berri hori?

Iraultza, hastapen gisa presentatzen da beti. Hastapen absolutua bailitzan. Mementu honen aurrekoa, aurre-historia da. Zeren-eta historia, egiazkoa, benetakoa, oraintxe hasten da. Ongi ikusi du berrikuntza hori *Hannah Arend*-ek:

Iraultzaren pentsaburu modernua, historiaren jarraipena bortizki ebaki eta historia berriz hastea doala pentsatzen duen ideiarik lotua dago. Historia erabat berria, orainarte ezagutu ez den eta inoiz kontatu gabeko historia dela aurrerantzean desarroilatuko dena, hori XVIII mendearen azken aldira arte eta Iraultza handiak arte, ez ezauna zen.

Iraultzak egutegi berria inauguratu nahi du. Hain zuzen tradizioarekin ebakidura, historiaren hastapena adierazteko.

Iraultzak deretxo berria inauguratu nahi du. Ezaguna da iraultza guziek deretxo zaharra hautsi eta berria sartu nahi izan dutela. Zergatik hori, iraultzaren xedea legedia aldatzea ez izanik? Legedi hortan, sinbolu bezala, ikusten delako gizarte zaharraren muina. Pontu hau argitzeko, *E. Rosenstock-Huessy*-k dioena itzuliko dut (9):

Legedi zaharrarekiko haustura, honen oinarrien ukapena, iraultzaren ikur bereizgarria da. Lege-dia ez da-ta zerbait kanpoko, axaleko. Gizarte bizitzaren eta horren erabilkera eta indar-harremannen adierazpide pentsatua da. Horregatik ematen die legediak talde batzuei edo agintea dutenei indar-harremanak aldatzeko posibletasuna. Hola bada, denbora berean, ordenuaren adierazpena eta aldakuntzaren bidea da deretxoa. Iraultza, bada, ez da soilik aldaketa, ez eta aldaketa biolentoa. Erresuma-kolpea ere aldakuntza biolentoa da. Lege-hauste hutsak ordenua ukatzen du... eta ordenu beraren *baitan* dagoen ezarritako ordenuaren transformaketa-deia ez du ezagutzen. Holako jokabideak ez dira iraultza: ez dute munda aldatzen.

Iraultzak historiarekin duen zerikusia azterzen ari gara. Eta ikusi dugu nola denboraren biribila adieraztetik denbora lerro zuzena bezala ulertzeraino etorri den. Eta marra zuzen hortan ebakidura bat egiten du iraultzak: historia-ren hastapena. Iragana, horrela, desbaloreturik gelditzen. Eta kontrara, etorkizuna balioztaturik.

---

(9) Martin Lotz jaunak aipatua: *Le concept de révolution dans la discussion oecuménique*, in Discussion sur "la Théologie de la Révolution", Cerf, Paris, 1972, 30-31 hor.

Halere ezin da uka aurrera bakarrik ez baino atzera ere iraultzak begiratzen duela. Iraultzak anitzetan geroari buruz eskaintzen duen gizonaren on-izate hori, berdintasuna, askatasun osoa, kreatzailetasun mugabakoa, etab., etab., Paradisuaren mitoa da. Beraz, gizadiaren hastapenera bertara itzultzea. Hori dela-ta, iraultzari kontserbakor tankera hartzera laster ailegatzen da zenbait.

Iritzi honi amore eman orduko, hiruzpalau ohar egin daiteke.

Iraultzak antzinatera begiratzen duela, egia da. Baina nolakoa da begirapen hau?, hor dago hauzia. Gizarte edo politika forma batzuk orain berriztatzeko? Antzinatera bi eratara so egin ohi duela iraultzak iruditzen zait. Bat, historiako antzinatera, alegia, historia osoa iraultzaz-iraultza esplikatzeko. Historiaren berrirakurketa bat egin nahi da. Eta bi, antzinate absolutura, hots, gizona bekatari bilakatu aintzin nolakoa zen hurbildik ezagutu nahiz.

Bataz beste, joera honi buruz zihur esan dezakeguna hau da: iraultzak lehengo baloreak onartzen dituenean, sintesi berri batean sartzen ditu.

Lehenerako joera honen asmoaz ongi dio *Jacques Ellul* jaunak:

...iragana berriz bilatzea da, baina ez bizi izana bezala, ez errepetizio bezala, ez eredu bezala. Abiagune baten absolutua bezala baizik: iraga-

nera itzultzeak gaur ezagutzen eta sofritzen ditugun akatsak aurrerantzean gertatuko ez diren historia bat inauguratzea permititzen digu.

Iraultza nola lotzen zaion tradizioari? Paul Tillich-en iritziz, negatibuki eta positibuki. Alde batetik, lehenagokoa, tradiziozkoa ukatu egiten du iraultzak. Eta, bestetik, tradizio horren alderdi zenbait jaso egiten du, *baina aldatzeko*.

### 2.3. Iraultza hitzaren erabilkizunaz

Iraultzaren inguraketan gabiltza. Iraultzari buruzko sasi iritzi eta ulerkera oker zenbait salatu dugu. Gero, iraultza hitza bera ardaztat harturik, esanahi desberdinetaz jardun gara. Definizio zehatz (nahiz eta funtzional) batetara heldu aurretik, iraultzak gaur dituen hiru zentzu nagusi aztertu nahi genituzke. (Zein neurritan baliagarri diren erabakitzea, irakurlearen esku uzten dugu, proiektu iraultzailea ikusi eta gero egin dezan, borondate badu).

(Nahasterik sor ez dadin, ohar bat egin nahi genioke irakurleari. Eta gogoratu, ez dugula iraultzari buruzko iritzi-metarik egin nahi izan. Metaketa ez baino hurbilketa da gure metodia. Esan nahi bait da, iraultza hitza ibili arren iraultzarekin zerikusi handirik ez zuen ustekaritik hasi garela, arik eta iraultzaren muineraino iritsi arte. Eta orain aipatzen ditugun iraultza-motak, muin inguruan daude. Hemen Jules Monnerot (10) jaunaren tipologiaz baliatzen naiz.)

---

(10) *Sociologie de la révolution*, Fayard, Paris, 1969.

### 2.31. *Industriaren iraultza*

Inglaterran XVIII mendean, eta Europako gainontzeko herrietan XIX eta XX mendeetan gertatzen den lantegizatzearen fenomenuari dagokio. Europa nekazaritzatik lantegitara lerratzen da.

Teknikari eta zientziari eskerrak, azken mende hauetan gizarteko eta ekonomiazko estrukturren aldakuntza ikaragarria gertatzen da.

Linea berean mintza gaitezke, Jules Monnerot jaunaren ustetan, Nekazaritzaren iraultzari buruz. Kondaira aurrean gertaturiko aldaketa da hau, eta giza-andana baten fruitu biltzetik lurlantzera igarotzea adierazi nahi da. Izan ere, lurrak eman ohi zuena jasotzetik, lurra bera landu eta gizonak nahi duena emanaraztera iristek, gizonaren barnean eta langailuetan benetako erreboluzioa aditzera ematen du. Holako fenomenuei zergatik eman ohi zaien iraultza izena? Hastapen antzeko zerbait badelako hor, bizimoduaren egiazko aldaketa bat dagoelako, eta tresnerietan eta pentsamoldeetan funtsezko diferentzia dagoelako, lehenaren aldean.

### 2.32. *Kristianismoaren iraultza*

Gure kalendarioa Kristianismoarekin hasten dela ez daiteke ahantz. Kristianismoak historia bitan zatikatzen du: gizon zaharra eta gizon berria bereizten dira aurrerantzean.

Jesusekin, gizonak Jainkoarekin, kideen artean eta munduarekiko harremanak aldatzen dira. (*Esana zaizue... baina nik diozuet...*). Ez da honekin ulertarazi behar Jesusek deusetik dena asmatu zuenik. Kristianismoko ideia asko gairontzeko erlijioetan ere badaude, eta bestalde, Kristianismoa judaismoarekin lotu-loturik dago. Baina Kolakowski-rekin azpimarkatu nahi genuke, bateko, ideia horiek bultzada eta abiada berria hartzen dutela Jesusekin; eta, besteko, gure kulturara Jesusen bidez sartu direla.

Fede arazoa aparte utzirik, gure kulturara zein berrikuntza ekarri du Jesusek? Hona Jesusen ekarri garrantzizkoena, Kolakowskiren iritzian: *maitasunaren nahiez legea gainditzea / gizonen arteko harremanetan indarkeria gainditzeko itxaropena / gizona ez dela ogitik bakarrik bizi / herri aukeratu baten ideia gainditzea / denboratasunaren zorigaizto fisikoa (11).*

Konprenitzen da, beraz, holako fenomenuei iraultza izena ematea. Badago, egon ere, halako berriztapen guzizko bat, hutsetik hasiko balitz bezala, badago zertasunezko (kalitatibu) kanbiamentu bat, pertsonaren transformaketa bat.

### 2.33. *Iraultza nagusien arabera iraultza*

Inglaterrakoa, Ameriketakoa, Frantziakoa eta

---

(11) Ikus hontaz Kolakowskiren "Jesukristo, igarle eta erreformatore" in *Kolakowski* (Joseba Arregi, Jose Azurmendi), Jakin, 1972, 235-264 hor.

Errusiakoa: iraultza *klasikoak* dira. Bai, klasi-koak. Ideia ezagun batzuen izenean, eta ideia horiek aurrera ateratzeko, egin diren iraultzak, laurak. Beren artean alegiazko batasun bat badutenak. Gutierrez *processus* bezala harturik.

Iraultza klasiko hauek iraultzaren zentzua biziki kutsatu dutelako, asmo eta ekintza bezala nola situatzen diren denboran eta lekuan ikustea onuragarri deritzat. Hiruzpalau hitz bakoi-tzari buruz:

#### a) INGLATERRAKO IRAULTZA

XVII mendeko (1640-1660) gertakariez ari gara, puritanoen, santuen iraultza deitzen den hortaz.

Aipaturik utzi dugu Cromwell-en borroka gertatu eta hala ere ez zela iraultza bezala ulertua izan. Burke-k egiten du hori lehendabizikoz, 1790-ean, hau da, Frantziako iraultza giroan.

Ideia modernuetarik gehienak han omen ziren puritanoen erreboluzioan: demokrazia, gizabanakoen askatasuna, giza-eskubideak, itun soziala, erresuma, etab.

Cromwell gidariak Parlamentuan honela zioen: *Kontzientzien askatasuna eta gizabanakoen askatasuna: bi askatasun horien alde borrokatu behar dugu.*

1647-an, Maiatzeko Zelaian, «Justizia» aldarri-

katuz, *eskubide berdinen eta guzientzako libertade berdinen* gobernu bat eraiki nahi dute Cromwell eta gisakoek.

Puritanoek aldarrikatzen dituzten ideia hauen hazia, aspaldi ereina da, J. Comblin jaunaren iritziz (12). Erdi Haroko heresiak, Lollaridoak eta Wiclefitak, Huss-en mogimendua, Luteroren ideiak, anabaptisten mogimendua...: guzietan arnasa bera nabari da. Eliza berri bat fundatu nahi da, santuena, hautatuena, benetako kristauena. Eliza hori *covenant* batek, itun batek bilduko du. Ez gehiago klerikalismorik, ez aurrerantzean nobleziaren jopu! Eta itun hori, gizabanakoaren libertadean eta eskubideen berdintasunean egingo da.

Idea hauetan finkatu nahi da Erresuma berria. Inglaterran, politikaz janzten dira ideioak (13).

---

(12) Ikus *Théologie de la révolution*, Editions universitaires, Paris, 1970, 121-131 hor.

Luzaz mintza gaitzke Comblin-ek Iraultzaren eta Kristianismoaren artean ikusten duen loturaz. Comblinentzat, Kristianismoa berez da iraultzaile.

“Sinetsirik nago Kristianismoak erreboluzioetan eragindura handia izan duela, gure artean berak hedaturiko ideiatan finkatzen dira-ta erreboluzioak. Baina beharrezkoa zen gizonak historiarekin eta gizartearekin zuen harremanaren kontzientzia berria har zezan. Eta hori Erdi Haroan ez baino orain bi mende gertatu da”.

(13) Jacques Ellul-ek (*Autopsie de la révolution*, Calmann-Lévy, Paris, 1969, 53 hor.) Inglaterrako iraultzaz interpretazio oso bestelakoa egiten du. Haren aurrebaldintza XIX mendera arte ez dagokeela erreboluzio aurrerazalerik da. Eta Inglaterrakoari buruz dio, ordenu onaren, erlijioaren eta jabe goaren segurtasuna omen zen Cromwell eta gisakoen asmoa.

## b) AMERIKETAKO IRAULTZA

1660-ean berriz ere monarkia nagusitzen da Inglaterran, eta orduan puritanoek ihes egiten dute. Holandara doaz, eta handik Ipar Ameriketara. Ez esku hutsik. Inglaterrako igoaltasun ideiez gainera, Holandako Estaduaren teoria federalista (Althusius-en formulazioaren arabera) eta flamandarren artean jadanik gertatua) eramango dute Ameriketara.

Ipar Ameriketako ere, gertatu eta gero jotzen da iraultza bezala. Hau ere Frantziako iraultza ondoren.

Oraindik ere Ipar Ameriketari 1775-etik 1782-era gertatua epaitzerakoan, iritziak arras bitartzen dira. Batzuentzat, Frantziakoa baino iraultza sakonagoa eta osoagoa litzateke. H. Arend-entzak, hauxe da benetako iraultza bakarra. Beste batzuen ustez, Ameriketako independentzi borroka izan da eta ingles kolonia horientzat ez du funtsezko aldakuntza ekonomiazkorik ez sozialik ekarri.

Jacques Godechot jaunak erdi-bidea nagusitzen dela gaur, dio (14). Konstituzioaren mailan ikusten da han iraultza. 1776-ko uztailaren 4-ean, bosteko Batzorde batek, Thomas Jefferson buru dela, Independentziaren Deklarapena prestatzen

---

(14) Ikus *Las revoluciones (1770-1799)*, Labor, Barcelona, 1969, 20 hor.

du. Gero Estadu bakoitzak bere Konstituzioak eratzen ditu. Konstituzio berrietatik gehienek *eskubideen deklarazio* bat dute aurrean.

Independentziaren Deklaraziotik bost urtetara (1781), Ameriketako lehenengo Konstituzioa, hots, *Konfederazioaren Artikuluak* delakoa, onartzen da; eta hor, batasun-lokarrien gainetik nabari da demokrazia gordetzeko desirkunde hori. Konstituzioak aristokrazia kutsua badu ere, benetan iraultza demokratikoa izan dela Amerikakoa, dio Godechot historizaleak (15).

#### d) FRANTZIAKO IRAULTZA

1789 (*l'année cruciale*, Braesch) da, histori aztertzaileen iritziz, bi urte lehenago hasi bazen ere, Frantziako iraultzaren lehen urtea. Uztailaren 14-ean Bastilla eskuratzearekin, Parisen hasi eta Frantzia osora zabaldu zen haserrea eta matxinada.

Iraultza honen kausa urruna zein eta zein urkoa, zer arrazoia eta zer aitzakia, demografiak, ekonomiazko krisiak, «filosofoen» ideiek, Asanbleako hirugarren estaduaren intentzioak nekazarien eskabideei amore ematean... hori dena eztabaidagai da bakoitzaren eragindura zehazki mugatu nahi delarik.

Dela Mendebaleko, dela Europako iraultza be-

---

(15) Ibidem, 24 hor.

zala ikusten da Frantziakoa. Izan zuen influentzia eta prestigioagatik baitipait.

Frantziako iraultzak sortu dituen testuak eskutan harturik, irakurlea gehien harritzen duena bere unibertsalismoa da. Diputadu legegileok mundu osoarentzako, hobe Gizadi osoarentzako, mintzatu nahi zuten. Ipar Ameriketako iraultza lurralde batean mugatzen da, Inglaterrakoa giza-andana bati (kristauei) dagokie. Leku, lurralde, denbora eta jende ororentzako da Frantziakoa.

Giza-izakeran eta Arrazoimen orokarrean finkatzen da frantsesen askatasuna. Lehen artikulak dioenez: *gizonak libre jaiotzen dira, eta de-retxoan libre eta igoal irauten...* Askatasuna eta igoaltasuna.

#### e) ERRUSIAKO IRAULTZA

Marxen iritzian badakigu orainarteko iraultzak oro iraultza-erdi izan direla. Problemaren benetako korapiloa ez dutelako askatu. Alejandro berria, Gordiako korapiloa askatzera dator 1917-ko Errusiako iraultza.

Iraultza sozialista, hobe komunista, bezala ezagutu ohi da. Frantziako iraultzak pribilegiorik gabeko gizartea eskatzen zuen, eta hortarako, ohitura, apeta eta sineskeriak ezabatzerako jo zuen gogotik. Iraultza sozialistak pribilegio-iturburua ekonomian ikusten du (marxismoak erakutsirik, klase-banaketan) eta horregatixe klaserik gabeko gizartea eraiki nahi du.

Berdintasunaren, igoaltasunaren iraultza, Errusiakoa.

Berdintasunik ezaren zioa non dea? Edo berdindaldetzea dena: zanpaketaren egitura ekonomiazkoen kausa zein da? Erantzuna, bidezkoa da: jabego pribatua.

Borroka honen bidez, iraultza marxistak behararen erreinuaren lekuan, eta honen ordez, libertadearen erreinua ezarri nahi du.

#### f) TXINAKO IRAULTZA

Txinako iraultzak problema berriak sortarazten ditu, iraultzaren estudiorako. *Consensus* bat egina zen, iraultza guziok Modernutasunaren pentsaerarekin loturik ikustekoa alegia. Edo gutierrez, Kristianismoak eragindako herrietan gertatu ohi direla iraultzak onartzekoa.

Txinakoan, itxuraz, ez bata eta ez bestea betetzen dira. Horrela bada, Txinako iraultza gure tankerako sozialismoari ala txinatar tradizioari lotu behar zaio? (16). Kulturazko iraultza delako hori marxismoaren azken punta da, ala txinatar izakerari propio dagokiona? Holatsuko mila galdera egin daiteke.

---

(16) Ikus hontaz YAMADA KEIJI: "Révolution culturelle et tradition chinoise", in *Esprit* 409. Japoniar irakasle honek sozialista mogimenduaren historian barik txinatar kulturaren tradizioan situatzen du kulturazko iraultza.

1966-an Alderdiaren aparamenaren kontra bultzatzen du Maok Txinako herria. Politikazko eta administraziozko antolamenduetako %80 aldatzen da, lanera bidaliz. Burokrazia arindu egiten da. Burulanetik eskulanetara joanetorri etengabea sortuko da. Hitz batean: gizarteko harreman berriak kreatu nahi dira. Eta batez ere honetan gizonak lanarekin (erresponsable eta krea-tzaile izanez), agintearekin (behetik gorakoa eta taldeko mogimendua auspotuz) eta kulturarekin (burulana eta eskulana konbinatuz) dituen harremanak.

### 3. Iraultza baitan

#### 3.1. Zentzu-mugaketa funtzional bat

Nietzsche-k salatzzen duen *argiarekin iluntzeko trebeziarik* guretzako ez dugulako nahi, iraultzarekin zer ulertzen dugun agertu nahi genuke.

Iraultza definitzeko enpeinua ez da alferra. Nik bezain ongi daki hori irakurleak, edozein gertakari erreboluziotzat hartu ohi den garai honetan. Halere, nik hemen hautatutako definizioak

ez dira «oso-osoak». Ez izanik ere, baliagarri dira, funtzional. Esan nahi dut, definizio horren bidez, iraultza eta erreforma, iraultza eta eboluzioa, etab. bereiz daitezkeela. Eta oraingoz aski dugu horrekin. Izan ere, hemen esandakoaz gainera, iraultzaren muina (guzizkotasuna, historikotasuna) arakatzean, jabetuko bait gara iraultzaren goiti-beheti osoaren muntaz.

### 3.11. *Iritziak sakabanaturik*

Iraultzaz zentzu pluraltasun bat dago. Iraultza-mota desberdinez eman ohi diren definizioak (politikazko, gizarteko, kulturazko, etab.) aparte utzirik oraingoz, definizioan bertan zein pontutan jartzen den azentua erabakitzen sortzen direnez ari gara. Halanola, aldakuntzaren sakondurari, edo azkartasunari, edo mogimendu hutsari, etab. Arazo hau lehen ere erabili dugu. Beste ikuspegi batetik begiratzen diogu hemen. Zerrenda gisa emanez, lautan banan daiteke:

- soziopolitikazko iraulpen osoa bezala,
- teknikazko eta zientziazko aurrerapen bezala,
- gizarte barnean gizonen arteko harremanen aldakuntza azkarra bezala,
- gizarte zuzentasun eta libertade gehiagorantz egin ohi den desarroilo eta eboluzio kontzientea bezala.

Aipatu berri ditugun ustekari hauek deus guti erabakitzen dute. Galdera gisa kontraerasoz, iri-

tzien ergelkeria bezain zentzu mugaketaren premia larria ikustarazteko esperantza dut.

Soziopolitikazko itzulipurdikatzea omen da iraultza.

Demagun. Baina estrukturak aldatzea aski ote da? Eta gizonaren hobekuntza? Eta egitura zaharren orde ez eta lekuan jartzen denak ez ote muntarik? Faxismoak iraultzaile ote dira?

Zientziak eta teknikak dakarren aurrerapena iraultza kontsideratzen da.

Demagun. Baina orduan aurrerapena eta iraultza gauza bera den jakin behar da. Teknologia-  
ren aurrerapena eta iraultza sinonimo ote? Progresoaren eta iraultzaren artean ez ote dago diferentziarik?

Gizonen arteko harremanen aldakuntza azkarra omen da iraultza.

Demagun. Aldaketaren azkartasunari bakarrik begiratu behar ote zaio? Sakondurak ez ote du muntarik? Zein liteke, beraz, iraultzaren eta erreformagintzaren bereizgarri?

Justizia eta libertatea nagusitzera daraman desarroiloa omen da iraultza.

Demagun. Erreformaren eta iraultzaren muga non dagoke, beraz? Gizartearekiko eta gizonarekiko helburu horiek desarroilo gisa eta ebo-

luzio kontziente gisa bilatu nahi izatea, eta iraultzaren bidez erdiestea, gauza bera ote da? Iraultzari dagokion *ebakidura* konzeptu hura non gelditzen da, orduan?

Bataz beste, iraultzaz eman ohi diren definizioetan bi muturrak idorotzen dira. *Ikuspegi es-tuégia*, anitzetan, iraultza bapateko kolpearekin, esaterako, Erresuma-kolpe batekin nahasten dutenena. Eta *ikuspegi zabalegia*, beste askotan, gizarteko harremanen sistimaren aldakuntza bezalatsu hartzen dutenena.

### 3.12. *Iraultza Marxen arabera*

Marxen baitan ez da dudarik iraultza dela aurre-historiaren eta historiaren muga. Klase-borrokak markatzen du prehistoria. Historiako gizartea klaserik gabeko izanen da, eta hor gizona bere buruaren jabe eta sortzaile izango da. Aldakuntza hau erreboluzioaren bidez egikarituko da.

Zer da, baina, iraultza?

Aldakuntza osoa:

- ekonomiazko «oinarriarena», hots, produzio-harreman burgesena.
- politikazko «oinarriarena», hau da, Erresuma burgesarena.
- ideologiazko «oinarriarena», alegia, klase menderatzailearen ideologiarena.

Iraultza hau, gizatasunaren ukapena den (baina ukapenaren ukapenez baieztapen bilakatu den) klase unibertsalak soilik eraman lezake aurrrera.

Baina ez nolana eta noizna. Izan ere baldintza objetibuak hor daude. Eta kondizio objektibu horiek ondo kontutan hartu behar dira, gairaitzapena nahi bada.

Baina iraultzabideak ez daude, gizonaz kanpo, historian idatzirik. Gizonak egiten bait du iraultza. Nola eta noiz eta non iraultza egin, hori gizonaren esku dago. Baina hortarako gizonak berak prestatu beharra du, historia irakurtzen ikasiaz, antolatuz eta antolamentuetan lanegiteko gaituz, etab. Behar dena, hau da: kontradizio objetibuak gertatzen direlarik, kontradizio horietaz konturatzeko eta horietaz hasirik gizarte berria eraikitzeko preparaturik egon. Eta bigarren, kontradizio horiek sortarazten lehiatu.

### 3.13. *Aldakuntza bai, baina nolakoa?*

Aldakuntzaz baino hobe dela *hausturaz* mintzatzea, iraultzari gagozkiolarik, dio J. L. L. Aranguren. Eta arrazoi du. Baina oraingoz dagoen hortan utziko dugu, horrela ere iraultzaren munita azaltzea badagoelakoan. (Ohar hori azpimarkaturik beti, halere).

Iraultzaren lehen definizio-saiaera bezala, *Jaimé Snoek* jaunak dakarrena presentatu nahi nuke, nere ustez aski aseptiko eta baliagarri dela-

ko. Izan ere joera desberdinen plataforma gisa ez da txarra, eta iritzi ezadosak, kupidarik gabe, zokoratzeko baliozko dateke.

Iraultza bezala zera ulertzen da, alegia, espres, azkar eta sakon eginikako aldakuntza, oinarrizko egiturak oro (hots, politikazko, legezko, gizartezko eta ekonomiazko) harrapatzen duena eta ideologia eta plangintza bati dagokiona... (Iraultzak), konzeptuan bertan, lekuko ordenuarekin haustura inplikatzan du eta ordenu berri baten elaborazioa (1).

Bide beretik doa Jacques Ellul ere, iraultza gerta dadin, baldintzapen hauek eskatzen ditue-  
nean: *Konstituzio politikoaren aldakuntza / klase gidariaren aldakuntza / ideologiaren aldakuntza / gizarte-egituren aldakuntza / ekonomiazko koa-  
droen aldakuntza.*

Ikusten da: ez da edozelako aldaketa, sako-  
na baizik. Ez da aldaketa aldaketagatik, proikto  
baten izenean eta esperantzan egina baino. *Arthur  
Rich*-ek ongi ikusi du hau:

Iraultza bezala hau konprenitu behar da: tekni-  
kazko, politikazko eta gizartezko aldakuntza gu-  
ziak, azkarki eta deliberuki eginak, gizonaren  
ekintza aktibu baten bidez, eta gizartearen kon-  
zepzio berri baten seinale bezala jarriak (2).

---

(1) Ikus "Tiers Monde, Révolution et Christianisme", in *Concilium* 15, 34 hor.

(2) Ikus *La Révolution comme problème théologique*, in Discussion sur "La Théologie de la Révolution", Cerf, Paris, 1972, 106 hor.

Iraultzaren oinarrian datzan baliogo-hierarkia berriaz mintzo da, bere aldetik, M. Peuchmaurd.

Definizioa ematearekin batean, zerk duen munta gaur esaten digutenez gero, biziki interesgarri derizkiot François Houtart eta Arangurennek egin duten lanari. Pasarte batzuk itzuliko ditut hemen.

Honela idazten du *Houtart* jaunak:

Gizartearen egituren aldakuntza sustraizko eta azkarra bezala definitzen da iraultza. Onarpenaren (*consentement*) haustura da. Kroeber-ek honela zertzen du: supituki produzitzen den aldaketa, biolentzia neurri ezberdinarekin, eta kultur-multzo garrantzizko batetan eragindura duena, eta gizartearen atzerapena handiagoa izan den neurrian azkarrago hedatzen dena. Ikusten da, beraz, baldintzapenatarik inportanteenetakoa berriztapen-mogiduren itxitura dela (*blocage des processus d'innovation*).

Iraultzaren pentsaburua eta aldakuntzarena ez dira hari batekoak. Iraultzaren ideia aldaketaren aurrekoa da. Eta horregatixe du harek abiaburuan kulturazko kontenidu bat. Esan nahi bait da, alegia, (iraultzak kulturazko funtsagatik) ezarritako gizartearen eta objetibu kolektibuen ukapena (*contestation*) eta sarritan, orobat, oraindik sakonago, legitimazio-sistimaren eta ideologiaren ukapena daramala barnean. Horrela, oraindik gertatu ez delarik ere, gizartearen kultur integrazioa bide berrietatik zuzentzen du, eta dinamismo berri bat sortzen. Gizarte-multzo bategen edo talde ekintzaileak, gizarte batetan, gi-

zarte-modu berriak badaitezkeela-ta, horren kontzientzia hartzen dutenean, kontzientziazte hau bera, jokabide sozialetan ondorio handiak izango dituen gertakizun kulturala da. Hain zuzen horregatik dira sortzailetasun sozialean horren aberats iraultza aurreko bolada eta iraultza garaia (3).

Pasarte honen komentario gisa, Arangurennek ere hiru puntu lerropetu nahi lituzke: ezarritako gizartearen berrikuntzarik ezina, beraz iraultza dela irtenbide bakarra sinestea; iraultzak dakarren dinamika, bultzada berria; eta azkenik, kulturazko alderdi hori, erreboluziogintzan bertan beti sortzen-sortzen ari dena (4).

---

(3) Ikus "Etat des recherches des sciences sociales et politiques sur la Révolution", in *Société injuste et Révolution*, Seuil, Paris, 1969, 52 hor.

(4) "Il vaut mieux, je pense, parler de "rupture" que de "changement", et en insistant, comme il (Houtart) a fait, sur la condition nécessaire d'une "blocage des processus d'innovation" qui supprime toute autre possibilité, sur "la dynamique nouvelle" et sur le nouveau "contenu culturel". Mais d'après moi, le nouveau contenu culturel est authentifié seulement comme création d'une pensée qui va de pair avec le mouvement révolutionnaire, qui se construit *dans* le processus de réalisation de ce dernier ou du moins dans une situation pré-révolutionnaire, mais dans la mesure où celle-ci est finalisée déjà, orientée vers la Révolution. Donc, cette "pensée révolutionnaire" n'est ni une analyse abstraite, ni une réflexion *a posteriori*. Mais, et ceci nous intéresse davantage, la pensée révolutionnaire aujourd'hui n'est plus une série d'objectifs nettement définis d'avance; cela appartient à un temps révolutionnaire révolu, à une conception classique en un sens de la révolution".

(*Commentaire* à l'Etat des recherches des sciences sociales et politiques sur la Révolution, *ibidem*, 70 hor.).

Esandakoarekin hauzia argiago gelditu dela sinetsi nahi nuke. Beste mila definizio ere (5) aipa daiteke. Baina gure asmoa, jarraian estudiantuko ditugun fenomenuetatik iraultza bereizteko haina seinale ematea zenez, egindakoarekin aski delakoan gaude. (Sail hau gainontzeko guziarekin, eta bereziki proiektuaz ariko den kapituluarekin, batean irakurtzeko oroitarazten diogu irakurleari).

### 3.2. Kordularen irizpidea

Iraultzaren bereizitasuna eta sakondura jakiteko, nahasmendura eraman gaitzaketan fenomenu batzuekin aurrez aurre jartzea ez dela alferrik iruditzen zait.

---

(5) Ez zaio, esate baterako, Germán Guzmán-ek ("Camilo, el cura guerrillero"n) dakarren definizioari interesik falta. Gehienbat *Mensaje 115*, Chileko aldizkaritik jasoa da. Hego Ameriketara bilatzen den definizio-egikeraren eredu bezala ikusenezake. Hala dio:

Revolución es: "*Un cambio, fruto de una ideología, deliberadamente producido, previamente planificado, rápido, radical, e integral.*"

Abarca todas las estructuras básicas, o sea, las políticas, jurídicas, sociales y económicas.

Es un cambio profundo y tiene carácter de *urgencia*.

Toda auténtica revolución es necesariamente *ideología*, *programación* de un futuro, *voluntad* de realización.

Por lo tanto la Revolución implica una inquebrantable *decisión* de romper radicalmente con un "orden" que es orden para unos pocos y desorden para las mayorías, a fin de construir un *orden verdadero totalmente nuevo* que responda a todos los anhelos justos de las mayorías".

Hitzaren azterketa egina dugu. Konzeptuarena egin nahi genuke orain. Iraultzaren funtsa, barne-egiturak, muina. Bi zatitan eginen dugu lan hau, eta bi azterpide desberdinekin.

Lehen partean, oraingo hontan, alegia, beste gizarte-fenomenu batzuekin gonparatu eta kontrastatu eginen dugu iraultza bera. Halanola, eboluzioarekin, erreformarekin, erreboltarekin.

Bigarren momentuan, iraultza bere baitan filosofiazki ikusiko dugu, iraultza asmo eta pentsakera bezala. Proiektu iraultzailea estudiatzera koan, hau eta gehiago aztertu nahi genuke.

### 3.21. *Iraultza eta eboluzioa*

Iraultza hitzaren historiaz luzaz mintzatu gara. Eboluzioak ere badu beretxoa. 1789 arte, eboluzio hitza matematikariek eta militarrek bakar-rak erabiltzen dute. Hori bateko, eta besteko, gizarte jakintzan sartu zenean ere ez zuen eguneko esangurarik. Eboluzioa, erreboluzioaren bide-lagun zen. XIX mendean, iraultzaren kontrakoak, *restauration* eta *légitimité* dira, ez eboluzioa. Eboluzioa eta desarroiloa iraultzaren adiskide dira, bide beretik doazenak. Diferentzia bakarra: eboluzioa ez dela espres egina, berarizkoa baino. Iraultzaren hastapenean, ostera, gizonaren borondatea eta eskua daude.

Iraultzak eta eboluzioak hau dute batean: dagoenaren aldaketa. Aldaketa-modua da desberdina. Bien arteko azken kriterio bereizgarria, ebaki-

durarena da (beste biak, intentziotasuna eta azkartasuna direlarik). Eboluzioa leguntasunez mailaka-mailaka, kolpe gabe, doala uste da. Eta beti zentzu berean. Eboluzioak, noski, zerbait berri dakar beti, baina berritasun hori dagoenaren luzapena da. Erreboluzioak, kontrara, ezintasuna ez baino eztanda gogarazten du. Eta hori, iraultzaren higidura, kolpez egina, astindua, ebakia delako.

Bigarren kriterioaz, intentziotasunaz, zertxobait esanberri dugu. Iraultzak giza-borondatea, *processus* delakoaren nahizkotasuna du premiazko. Intentziotasun horren derrigorrik ez da narbitzen eboluzioan. Izan ere, berezko mogimendu bat bailitzan hartzen da eboluzioa. (Zorioneko berarizkotasun hori non oinarritzen den erabakitzea ez litzake erraza, nere ustean).

Ohar gisa irakurleari esan nahi genioke, bi hitzok kontrajartzen direnean, sarri asko derrefente gezurtatzen dela jatorrizko berezitasun jatorra. Izan ere, eboluzioarekin bakea adierazi nahi bide da. Eta iraultzarekin, biolentzia. Muntako nahasmendua egiten da horrela.

Bada, azkenik, hirugarren kriterio bat, denbora-neurriarena. Eboluzioa bareago da, astiroago gauzatzen dena, iraultzaren azkartasunaren aldean. Egia izanik ere, ideia bien diferentzia bakarra hau balitz, ez legoke ia sekulan, fenomenuaren mailan, zein eboluzioa eta zein erreboluzioa erabakitzerik. Hemen ez dago ta habailaren kronometrorik.

Jean Jaurès sozialista sonatua *évolution révolutionnaire* delakoaz mintzo zaigu. Artean (1854-1914), problematika mahaian gainean zegoen.

### 3.22. Erreforma eta Iraultza

Gure garaia, ekintza garaia da. Hori dela-ta (esan dugu eboluzioak berezko mogimendu bat adierazten duela) eboluzioaz baino gustorago erreformaz dihardu jendeak. Erreformak, iraultzak bezala bestalde, ekintza suposatzen du, nahiz-kotasun bat, borondate espres bat.

Barnetik arazoa hartuz, halere, ikusiko dugu abiagunean eta abiaburuan direla ezberdin iraultza eta erreforma.

Erreformak, transformaketa bat sortu nahi du; beraz, lekuko errealidadearen gainean eraiki nahi luke etxea. Iraultza zerotik hasten da, huts-hutsetik. Erreformak *berritu* egin nahi duenaren ginoan, iraultzak *kreatu*, *sortu* egin nahi du Jacques Ellul (6) jaunak argi ikusi du: *Iraultza ez da dagoenaren transformazio saiaera bat. Ez du erreformekin zerikusirik. Hutsetik, zerotik hasten da.*

Honen funtsean dagoen beste arazo bat aipatzen du autore berak lehentxeago. Iraultza ez dagoela historiaren sentiduan, dio. Munta handiko arazoa bait da, gero ikusiko dugu astiroago. Nola ulertu behar da esakun harri-garri hau? Harrigarri diogu, zeren-eta beti entzun dugu

---

(6) *Autopsie de la révolution*, 57 hor.

historiaren direzioa seinalatzen duen fletxa-punta dela iraultza.

Ellul jaunak ezetz dio, ustekizun hori XVIII-XIX mendetako hondakina dela. Historiaren zentzuan dagoena, erreforma da. Erreforma bai, dagoena aldatuz etorkizuna gauzatu nahi duelako. Baina iraultzak, egungo egoeratik somatzen ahal den etorkizuna ukatu egiten du, eta berri bat, zeharo eta guziz berri bat asmatu.

Beste modu batetan gauza bera esanik: erreformak printzipioak onartu egiten ditu. Iraultzak, printzipio berriak sortu.

Iraultza eta erreforma, biak hobekuntzara abiatzen dira. Erreformarena, baina, partziala da, zatikazkoa, alderdi batena. Iraultzarena, badakigu honez gero, osoa, guzizkoa, oinarri-oinarrikoa.

Iraultzaren guzizkotasuna da hemen azpimarkatu nahi izan dena. Iraultza ondoan sortzen diren problemarik gehienak guzizkotasuna dela eta ez dela dira. Izan ere, ekintza eremura aldatzen garenerako, guzizkotasun hori non gelditzen da? Gizakumearen ekintza, lana, ez ahal da funtsez mugatua? Iraultzaren filosofiak duen osotasun, goitasun, garbitasun, radikaltasun, guzizkotasun hori bete duen iraultza historiazkorik non eza-gutu da? Iraultzaren osotasunak ez ahal du utopia kreaizaile bezala bakarrik funtzionatu behar, sistema totalitario bat nahi ez bada?

Iraultzaren sinesgarritasunaren problema dabil hemen azpian. Horregatik, galdekizun hauei zein erantzun eman, horrek bereizten du gehien-

bat gaurrenez Europako ezkerre. Barneko borrokarik nagusia hontantxe dago. Batzuentzat, sindikatu nagusientzat bezala alderdi gehienentzat, erreformabidetik jo behar da, (kasu!, denek darabilte iraultza hitza parra parra), burgesiarren aldeko indar-jokua aldatzeko eta kilikolo ezartzeko daduzkagun bidez baliatu beharra dugu. Beste batzuentzako, ezker berrientzat (labur esanik), erreformak egitea berritazalekerian erortzea da, sistimaren bidez baliatzea, azkenean sistema bera funtsean onartzea da. Sistema, luze-zabalean, osotero, ukatu egin behar da.

Oro har, eta geroari buruz, ezkerre beti egongo da tentsio hortan, iraultzaren errealidadea eta errealidadearen iraultza ezkondu ezinik. Orain moteldu den arren, haserre guzizkoa nola politikaratu jakiteak jan ditu ezkerren ordurik hoberenak. Zeren-eta hauzia honela planteatzen zen, dilema gisa-edo: edo iraultza bere garbitasunean eta osotasunean gauzazkotu (politika biderik bai ote?), edo posible dena egin, hots, iraultza hori «erreformatan» mugaturik, dosifikaturik, eman (iraultzarik bai ote orduan?). Iraultza garbitasun botoa egitera behartzen badugu, beldur naiz fruiturik emanen ote duen. Zer egin bada? Iraultza osoa egin bitartean, herri hazietan *iraultza tipiak* egiten joan behar dela zioen Conh-Bendit jaunak. Esakun hori ez ote erreformaren izen berri *iraultzailea*? (Baldin biolentziaz edo legez kanpo egingako erreformari *iraultza tipia* deitzen ez badiegu, erreformagintzatik kanpo zer den hori ez da aise ikusten).

Filosofiaren alturan iraultzaren eta erreformaren diferentziak hartzea, gauza erraza da. Oso besterik da ekintza-mailan. Ez da erraz asmatzen zer den taktika eta zer estrategia. Eta gero, zein kriterio hartu behar da egiten dena erreforma hutsa den ala erreboluzioaren etapa bat erabakitzeke? Batzuentzat ekintzaren politikazko helburuak erabakiko luke hauzia. Hau da, zure politikazko helburua sistimaren kontrakoa baldin bada, iraultzaile zara. Bestela, erreformista. Ikusten da: azken finean (ekintza bat beraren aurrean) kriterio erabakitzailea morala da. Intenztio eta asmoetatik ekintza baten balioa neurtzea ondo politika-bide eskasa da.

Esanak esan, hauziak beti dirau zutik: erreformagintzaren bidez erreboluzioa egitera iritsi ahal daiteke, bai ala ez? Alderdi politikoen jokabidea badakigu: Europako ezker partidu handi gehienek baietz uste dute (edo diote), edo usteko dute laster barru; beste puntan, ezker berria, halanola «Il Manifesto» komunista heterodoxoen iritziz azken urteotan bide horren gezurra egiztatu da (7).

Pontu honekin amaitu aintzin, gizarte-aztertzaille zenbaiten iritzi batzuk eman nahi nituzke. Honekin ez dut nere iritzirik azaltzen ez zure akordiorik eskatzen. Iritziok ohargarri dira, nere gardiz, arrazoi bat bakarragatik, alegia, egin behar dena eta egin litekeena batera, ekintza arloan, jartzen saiatzen direlako.

---

(7) *Nouvel Observateur*, 315.

Jean-François *Revel* jaunak *iraultzaile den deus ezin litekeela egin, eta egin litekeen deus ez dela iraultzaile* pentsatzen duten horien jokabidea salatzen du. Revel-entzat, errealidadea aldatzea da iraultza, eta horregatixe

erreboluzioaren garbitasun fantasmatico baten izenean, edozein transformaketa ukatu ohi duten horiek (aldakuntza hori osoa ez dela eta *sistema barruan* ezartzen delako) ...horiek dira benetako kontra-iraultzaileak. Kondizio hontan, aldaketak oro ukatu egin beharko ziren beti.

Paul *Ricoeur* jaunak (8), problemaren inguraketa eginaz, iraultzaile jarraiturik erreformagintzara jo behar dela pentsatzen du. Unibertsideaz ari da, 68 Maiatza-ko krisi ondoren:

Erakunde hori berriztatzeko eta aldatzeko saiaketak oro sokatira batetan bezala egonen dira aurrerantzean, bi indarrak eraginik: alde batetik, proiektu errefromatzailea, posiblean eta arrazoizkoan finkatua; eta bestetik, proiektu iraultzailea, guzizko eta agor-ezina! Egoera larri hontan, bi hutsegite berdinbaliozkoak saihestu behar dira (biak sinesmen oker eta hiltzaile bera dute), hain zuzen, erreforma eta erreboluzioaren artean hautatu egin behar dela. Batzuek, erreformazaleek, lehengokoak bezain estruktura hesituak eraikitzenko tentagurea izan dute, iraultzaileen indarrak ahultzeko, eta, erresistitzen badute, desegiteko asmoarekin. Besteek, iraultzaile garbiek, eraikidura guziak ukatu egin nahiko dituzte, hortan tranpa eta errekuperazio-saiaera ikusiko dute, eta

---

(8) *Le Monde*, 10.6.68.

horregatik bere funtzionaketa normalari trabak jarriko dizkiote. Bai batzuei eta bai besteei, hau esan behar zaie: erreformismoa egin eta iraultzaile iraun behar den garaian sartu gara.

Jean Jaurès-ek, sozialistari buruz, zioen *tenir compte du réel et aller à l'idéal*, errealidadea hainzatzat harturik idealera joteak, gauza bera esan nahi ote du? Ez jakin.

Oro har, A. Découflé-rekin uste dugu iraultzaren eta erreformaren arteko haserre klasiko hau ez dugula urrunegi eraman behar. Aporiatan eroriko ginake, irteerabako kalean sartuko.

Edota beste harek dioena: politika eremuan, egiaz, iraultzaren eta erreformaren artean berezkuntza erabakitzailerik ba ote dago gero?

### 3.23. *Erreboltatik Iraultzara*

Lege ez bada ere egia da, iraultzaren lehen momentuetan erreboltaren bat edo beste gehientsuetan aurkitzen dela. Errebolta, maiz, iraultza-prozesoa aldiune bat bailitzan agertzen da. Baina, geroago, erreboluzioak, bere burua salbatu nahi baldin badu, errebolta ukatu eta urkatu egin beharko du. Zergatik hori? Bien borroka-arrazoiak, asmoak eta xedeak, elkarrengandik urruti daudelako; eta momentu batera helduz, elkarren ukatzaile direlako.

Uste dugunez, iraultzaren onerako, bien arteko desberdintasunak ongi finkatu behar dira.

Kriterio bereizlea ez dugu ondorio sozialen arabera ezartzen (erreboltak gizarte aurrerapenik ezingo balu sekulan ekarri bezala), ez eta hedaduraren arabera (nazio oso batetan egikaritu arren, errebolta ez da-ta automatikoki iraultza bilakatzen), ez eta biolentzia-neurriagatik (erreboluzioak beti biolentzia gehiago behar balu bezala), eta gutiago, azkenik, garaitzapena irizpide bezala hartuz (alegia, frakasatzen duenean, errebolta; irabazle ateratzen bada, iraultza).

Komunzki egin ohi diren analisisetan, hor eta hemen, kriterio hauek erabili ohi dira. Gonbarazio batez, 68 Maiatza-ri buruz egin diren azterketak ikusi. Batzuentzat, orduan Frantzian gertatua ez zen iraultza izan. Zergatik ez? Edo aski biolentziarik ez zelako izan, edo lekuz mugatuegia zelako, edo frakasatu egin zuelako... etab.

Gure ustez, ez hor baizik izpirituan, barne-dinamikan dago bien arteko desberdintasuna. Hori erakusten lehiatuko gara orain.

Erreboltak ez du historia haintzat hartzen. Holako axolarik ez du. Errebolta ez da etorkizunari buruz egiten, ez eta teoria baten izenean edo baliogo zenbaiten alde. Erreboltan egunerokoak du munta. Eta egunerokotasun horren jasangaitzak, sofritu-ezinak, horrela luzaroago ezin irautearen sendimenduak... horrek probokatzen du errebolta. Bere bizimodu hori hautsi egin nahi du erreboltatuak. Arrazoiaren bizitzagatik ez baino Bizitzaren arrazoiagatik nahi du aldakuntza erreboltatuak:

...azkenetan gaude, Sire, pazientiaren neurriak gainezka daude. Sofrimentu eraman-ezinak luza-tzea baino hiltzea hobe den une ikaragarri hortara jadanik iritsi gara,

idazten zioten, erreguka, 1905-eko urtarrilean San Petersburgoko langileek tsar jaunari. Erreboltaren giroa, oso osoan bilatzen dugu hemen.

Iraultza, berriz, itxaropenak sortarazten du. Esperantzagatik eta esperantzarekin egin ohi da iraultza: *les lendemains qui chantent*, bihar zorionsuaren alde.

Erreboltaren jatorrian, desesperantza guzizko bat dago. E. Mounier jaunak dioenez, heriotza irtenbide eroso da, gainontzeko soluzio-bilakuntzatik libratzen gaitu-eta. Edo euskal esaera zahar batek dioena: *Hil haiz? Erraxena egin den.*

Jacques Ellul-ek (9) historiako errebolta guzietan bi ezagupide idoro ditu: eraman ezinaren sendimendua eta salaketa.

Salaketa, akusazioa. Hain zuzen, jasangaitzaren salaketa da berea, San Petersburgoko langileena bezalatsu. Ezetz erabakitzaile bat, haserre biribil bat botatzen du erreboltatuak, ez printzipio eta ideal, ez etorkizunerako asmo handi batzuen izenean, ez, baizik eta aurrerantzean hola ezin duelako jarraitu. Potenkine gerra-bar-

---

(9) Idem, 14 hor.

kuko erreboltatuek *zakurrak bezalaxe tratatzen gaituzte. Ez gehiago ohiukatu zuten.*

Potenkinen kasu hau gure asmotarako argigarri da. Esenstein-en filmak (esaera batzuk aparte, itsasontziko giroa baino areago 1905-eko Errusiakoa adierazi nahi luke-eta) ongi asko erakusten du matxinada hau. Erreboltaren zio hurbila, haragi ustela izan zen. Baina hori egoera jasaezin baten lehertzapena besterik ez zen. Hartu zuten marinelek barkua eskuetan, nagusiak hil ostean. Baina barku horrekin zer egin ez zuten jakin. Plangintzaren, proiektorearen falta. Lurrarekin bategitea ez zuten lortu. Leninek gauza bera salatzen die.

Salaketari sor dio erreboltak bere bizia. Salakuntza hau bizimodu latzarena da, eta norbaiten kontra egina. Eta norbait hori zehatz konkretatu behar da, ez guti gorabeheraka, ez eta teoriaren mailan. Gainera, arerio hori hurbil behar da. Urruti eta goregi dagoenaren kontra ezin da borrokarik egin. Horregatik, errebolta batean, Estadia bera baino sarriago Estaduko gizonak jartzen dira hauzitan.

Agian harriturik dugu irakurlea, baliogo batzuen izenean erreboltatua ez dela borrokatzen esan dugulako. Hortan gaude, esan gabe, halere, erreboltatuarena likidazio-izpiritu hutsa denik. Baliogo batzuen izenean ez bada hasi ere, baliogoak erantsi egiten zaizkio erreboltari mar-txan doala. Baitipait libertadea. Baina erreboltatuarentzat eta guretzat hitz honek ez du berdinaliorik. Guk printzipio bezala jartzen dugu, filosofigai egin dugu. Harentzat, egunerokotasunaren mailan du munta, borroka-arrazoien kon-

kretapen hutsa bezala. Gu Libertadeaz (L handiarekin) mintzo gara. Hura, libertadeez, libertade hontaz edo hartaz.

Erreboltaren ondoan, iraultzak bi elementu berri du: *Teoria* eta *Instituzioa*.

Iraultzak, teoria bat, programa bat, dotrina bat, ideologia bat, printzipio batzuk (hau den hau *sensu stricto* hartu gabe) suposatzen ditu. Hitz baten esanez, proiektu bat.

*Teoria iraultzailerik gabe, praxis iraultzailerik ere ez.* Testuinguru hontan, iraultzaren seinagarrietarik bat litzake. Errebolta, erreminduaren, jasangaitzaren bapateko mogimendua, pentsamendurik, proiektorik jatorrian ez duena dela frogatzen berrikitan saiatu gara. Teoriaren, ideologiaren, ideiaren premia filosofiaren mailan ematen du A. Camus-ek (10):

Hastapeneko errebolta mogimendua motz bilakatzeko da orain. Batasunik gabeko testigutza besterik ez da. Iraultza, kontrara, ideiatik hasten da. Hain zuzen, historiazko esperientzian ideia ezartzea da; errebolta, aitzitik, esperientzia indibidualetik ideia daraman higidura bakarrik. Errebolta mogimendua baten kondaira, kolektibua bera ere, zerarena da beti, alegia, egintzetan irtenbiderik ez duen konprometatzearena, ez arrazoirik ez sistimarik konprometatzen duen protestazio ilun batena. Iraultza, koadro teoriko batetan mundua eratzeko asmoz eginkizun bat ideia batetara mol-

---

(10) *L'homme revolté*, 134 or.

deatzen lehiatzea da. Hori dela-ta, erreboltak gizonak hiltzen dituela esan daiteke, erreboluzioak gizonak eta printzipioak deusezten dituen bitartean.

Bigarren elementu berezlea, ideologiazkoaren aldamenean, Instituzioa, Egitura da.

Iraultzak, esistitzeko, organizazio bat behar du, instituzionaldu beharra du. Iraultzaileak ez duela egoera jakin batzutan ezetz bakarrik esaten ikusi dugu arestian. Ukatzea ondo dago (gizon izaten jarraitzeko bide bakartzat jotzen zuen Rikardok). Ukapen hutsak, ordea, anarkismora eta nihilismora garamazki zuzenean. Horregatik ahalegindu gara, ukapen hori zerbaiten izenean egin ohi duela iraultzaileak frogatzen. Hortik teoriaren derrigortasuna. Baina bigarren urrats bat ere eman beharra dago: baieztapen hori, teoria hori, ideiatan, ideologian soilki gertatzen bada, ez da eragikor. Idealaren eragipena salbatzearren, instituzionaldu egin behar da.

Instituzionaldu esan dugu, hau da, egitura, molde, antolamendu zenbaiten mugatan bildu. Korapilotsu da puntu hau. Askorentzat, instituzionaltzea bera, ideala itotzea da, *rekuperazioa*, idealaren absolututasuna gesaltzea; iraultzaren traizioketaz mintzatzen dira batzuk.

Bistan da instituzionaltzearekin konformismo kontserbakorraren arriskutan gaudela. Baina idealtzat jotzen duguna praktikara eramatea sisti-

mazki trabatzen diguten garbizaletasun eta anarkiazaletasun deuseztatzaileak ez dira hobe.

Gure ametsak, asmoak, poesia, praktikari egokitzeko diosku François *Perroux* jaunak:

Mettez votre poésie en équations. C'est-à-dire sachez faire le modèle opérationnel de votre ambitieux Projet! (11).

Kapitulu hau amaitzeko. Irakurle ohartua konturatuko zen, sarritan iraultza bezala ulertzen den fenomeno zenbait ez dudala aztertu. Demagun koartelazoa, matxinada, altxamentua, Erresuma-kolpea, sitiaketa, etabar. 1946 eta 1964 artean 380 Estatu-kolpe izan omen dira munduan, diosku Edward Luttwark jaunak. Adierazi nahi genukeena da, funtsean iraultzak ez duela zerikusirik gainontzeko fenomeno hauekin. Nota bezala, jakingarritzat, emanen dugu fenomeno hauen berri (12).

---

(11) *L'Expansion*, 37 zenbakia.

(12) Germán Guzmán-en aipatu liburutik jasotzen dut jarraikoa:

“La revolución no es *cuartelazo* o golpe armado exclusivamente militar, contra la autoridad legalmente constituida.

No es *golpe de estado* o levantamiento dirigido por una camarilla militar, un partido o una facción caudillista.

No es *insurrección* o *sublevación*, levantamiento armado violento contra la autoridad legal con participación de vastos sectores de la población. Su objetivo primario es liquidar violentamente lo que considera un mal nacional.

La revolución puede ir acompañada de insurrección, pero no necesariamente es una insurrección.

No es *revuelta*, *motín* o *rebelión*, levantamiento violento

contra la autoridad legítima realizado por grupos aislados en forma desorganizada y sin perspectivas de lograr su objetivo.

No es *subversión* o actividad encaminada a soliviantar los ánimos contra la autoridad legal, hecha en forma solapada y clandestina.

No es *sedición* o actividad agitadora, provocadora de perturbaciones o desórdenes, con el objeto de minar la autoridad dificultándole el cumplimiento de sus obligaciones. Se caracteriza por el desorden, la violencia y el caos”.

## 4. Proiektu iraultzailea

Sartre filosofuak, eta geroztik askok, hitz honi erantsi nahi izan dioten zentzun berean darabilgu guk ere. Iraultzaren muina adierazteko baliatuko dugu.

Proyekto (*proyecto, projet*) hitza zer den?: Helburua eta guna, iraultzaren barne-muina, irudi irrikatsua, imajina gidaria (gaitza non den ikusten lagunduko diguna, A. Touraine jaunaren gardiz), imajina ulergarri eta komunikagarria, alegia, irudiaren eta hizkuntzaren elkartzea.

## 4.1. Proiektoaren egitamua

Proiekto hau nola zatiz osatua dagoen jakiteari ez zaio interesik falta. Eta bereziki zati desberdin horiek nola jokatzen duten hurbildik eza-gutzeari.

Hiru dira, komunzki onartuak, proiektorearen osakariok: mitoa, ideologia eta programa. Bakoi-tzak lan oso bat merezi luke. Irakurlearen bar-kamenarekin, ikutu besterik ez ditugu eginen. Eta eztabaidagarriena bera delako, mitoaz pitin bat gehixeago luzatuko gara.

### 4.11. *Mittoa*

Hiru pontutxo arakatu nahi nituzke hemen:

- erreboluzioa bera mito bezala,
- erreboluzioak komunzki erabili ohi di-tuen mitoak,
- mitoarene betekizuna erreboluziogi-n-tzan.

— Iraultza mito bailitzan erabili ohi da sarri askotan, gehiegitan. Bai haren propaganda egi-terakoan, eta bai politika-bide bezala hartzen den askotan ere.

Frantziako Iraultza nagusiaren giroan bilatu behar da giro honen sustraia, dakikegunez. Ha-rrez gero, iraultza ez da bide bakarrik, baliogoa

ere bada. Iraultza, adoragarri eta beneragarri da aurrerantzean. Hari atxikitzea dagokio sujetuari. Salbatzaile berria bailitzan presentatzen da iraultza 1789-an. Gero ikusiko dugunez ez da batere harritzeko gizarte hartako bi ezaugarri kontutan hartzen badugu. Alegia: gizarte progresista dela (zientismo haroko baikortasuna oroit) eta laizizatua (Jainkoaren ordeaz eta honen kontra gizona hautatzen da, eta honen obra da iraultza).

Egia da, ia hasieratik, iraultza sinesgai bilakaturik barreiatu dela bazter guzietara. Iraultza-mogimendu bakoitzak duen dotrinari, iztituzgo-eraturari, xedeei zor zaien azterketak garrantzirik ez balu bezala. Garrantzia, alde edo kontra egoteak du. Horrela, aztertu aurretik eskatzen da hura onartzea.

Iraultza, berarizko ontasun metafisiko baten sendimenduarekin hedatu da. Uste da, besterik gabe, iraultzak fruitu eta emaitza onak dakartzielako beti. Arbola onak ezin lezake fruitu txarrik eman. Justizia, libertatea, berdintasuna, anaitasuna... nahi dituzu? Egin iraultza, horra soluzioa.

— Iraultzak erabiltzen eta suposatzen dituen mitoak ugari dira. Eta ia denak, erlijioek erabili ohi dituztenak.

Hasiera hartan bazen inozentzi egoera bat. Inozentzia galtzearekin, ondoriobidez, etorri dira gaitzak oro: Erresuma, gizonak gizonaren gaineko agintea, jabego pribatua, esklabutza. Oker ez

banago, hasierako komunismoaz mintzo da Engels. Mito hauek, iraultzaren zorabioan gori-gori jartzen dira.

Eskatologi mitoak ere ez dira falta. Jules Monnerot jaunak dioenez (1) Zoroastroren erlijioa da eskatologi eredu. Holatsu litzateke eskema:

- borroka luze bat, Onaren eta Gaitzaren artean. Bi munduok kontrakoak dira, eta batetik bestera aldakuntza oso baten bidez igaro daiteke bakarrik.
- Berbizkuntza dator gero. Eta azken epaiketa. Eta honen ondoren, Salbataileak aginduriko Erreinua.

Eskema berarekin (eta iraultzaren kontrako asmoarekin) aztertzen du Monnerot jaunak arazoa. Iraultzan ere hiru momentuok ikus daitezke: *ancien régime* delakoaren kontrako borroka; gero, iraultza bera, denbora bezala bizitza bitan ebakitzen duena. Eta iraultzarekin, zoriontasuna.

Apokalipsi prozesoa ere ez da falta:

- gaitza gero eta handiagotzen; gaiztoak gero eta gaiztoago. Onak persegituak dira, zintzoak sofrimentupean.

---

(1) Ikus *Sociologie de la révolution*, Fayard, Paris, 1969, 222-246 hor.

- gaitza gailurreraino iritsi denean, hondamendi baten bidez, onen eta gaiztoen bereizkuntza egiten. Hauentzat betiko okerra; besteentzat zoriontasuna.
- erreinu berriaren etorrera definitibua ere bada gero, eta harek dakar paradisu, urrezko mendea.

Iraultzari buruz ere, eskema ber-bera egin omen daiteke.

Badira beste mito asko ere. Rousseau filoso-fuak gizona berez ona zela uste izanik eraiki zuen bere sistima filosofikoa. Iraultza guzietan bila daitekeen optimismo metafisikoa (*dena ongi amaituko da*) eta moralala (*gu onak gara*) ere salatzen du Monnerot-ek.

Zer esan?

Jules Monnerot jaunari kontraeraso dakiok e senez iraultzak ez duela mitoen monopoliorik. Mitogintza, filosofia guzietan bezalaxe politika mogimendu guzietan ere bila genezakeela.

Zalantzarik gabe larregi auspotu du zakurra Jules Monnerot-ek. Proiekto iraultzaren muina mitoa da, haren ustetan. Bien arteko diferentziak mila dira. Eta batez ere bi hauek: mitogintzan aldakuntza hori supergizon eta gure gaisetiko izakien obra den artean, iraultzan gizonarena da. Bestetik, aldakuntza hori ez da ritu sagaratu batzuen bidez egiten, eguneroko bizitza eta borrokarekin baino.

Mito mailan, iraultzaren eta erlijioaren artean berdintasun asko badagoela, horrek ez du dudarik egiten. Découflé jaunak ongi ikusi du hori. Gure ustez, Monnerot jaunak esajeratu egiten du dioenean erlijioen historiari legokiokeela iraultzaz okupatzea.

— Mitoarekiko hirugarren puntu hau da guretzat axolazkoena.

Mitoaren dinamikaz baliatzen da iraultza. Mitoa da, izan ere, *azkeneko errealidadeez* mintzatzeko eta haiek adierazbidetzeko forma bakarra. Mitogintza bakoitzean, horregatik, *intención transmítica* delako hori irakurtzen ikasi behar da.

Mitoaren eta gertakariaren artean naturalezako desberdintasuna dago. Mitoaren eta ekinztzaren arteko erlazioa eta tankera ez da eredutik kopiara dagoena. Hontaz ez dago zalantzarik.

Zalantzarik ez baino arrisku asko bai. Mito eta utopia bezala funtzionatzen duen egia bat, ekintza-eredu, politika-helburu hartzearekin kontuz ibili behar da. Horrela, abiagune beretik faltsotua bait legoke politika-ekintza osoa. Esaterako, seguru ahal gaude gizona berez ona dela? Nik ez dakit deus. Dakidana da, aurre-baldintza gisa bota ez baino frogatu egin beharko litzakeela.

Esan nahi bait da, mitoak ez duela programaren lekua okupatu behar. Beste bat da bere eginkizuna. Gure ustez, mitoak, Freud-en atseginarean printzipioari erantzunez, hain zuzen bere izakera erakargarri eta bizigarriagatik, gizartea mogitarazi egiten du. Mogitarazle izatea litzate-

ke bere funtzioa. Eta Comblin-en iritzian, iraultzaren prozesoreen ezteandari dagokionez, mito bezala ezagutarazten diren gai nagusiek (hots, libertatea, berdintasuna, anaitasuna, elkartasuna...) beren arrazoinaketak baino garrantzi handiagoa dute.

Iraultza bera eta iraultza-gaiak oro absolutu kutsu batekin agertzen dira beti. Hori ere mitoreen obra da.

Eta azkenik, mitoak berezko batasun gisako elkartasun bat sortu ohi du, nola sujetuaren eta objektuaren artean, hala sujetuen beren artean.

#### 4.12. *Teorigintza*

Proiektoreen bigarren osakaia, edo nahi bada, bigarren momentua da. Utopiareen eskabideen artean, bateko, eta besteko, ekintzaren premien artean mutur biak elkartzeko erabili ohi diren ezagutzapenak sartzen dira hemen.

Teorigintzarekin, pentsamoldeak, pentsatzeko ereduak, ideologia (ideia-sistema), dotrina-formulazioa, konzeptualizazioa aipatu nahi ditugu. Errealitatea ez soilik gauzen mailan baizik eta, konzeptu batzuen bidez, sujetuaren barnetik irakurtzea, hori da hemen azpimarkatu nahi genukeena, zeren-eta horrela bakarrik eduki liteke gertakizun bat on ala txartzat. Hortik alfabetatzearen eta kontzientizatzearen inportantzia.

Gauza bat da egoera eta beste bat egoera hori

nola ikusia den. Bere miseria injustiziatzat (hona konzeptualizazioa!) hartzen ez duenak, gaitz burutuko du holakoak iraultza. Miseria gorriak eta pobreziak ez dute iraultza bokaziorik sortzen. Herri bat iraultza-bidean jarri nahi delarik, ez da aski irtenbide guziak galeraztea. Lehertzapena lor daiteke, errebolta daiteke herria. Baina ez dagoke oraindik erreboluziorik. Kontzientziaturik ahal dago herria? Hor gakoa.

Politika-, ekonomi-, gizarte-indarren goiti-behetia aztertzea ez da aski, iraultzaren posibletasuna ondoriobidez tatu nahi denean, herri horrek programatzeko, konzeptualizatzeko, proiektatzeko duen gaitasuna erabat ahanzten bada. (Iraultza, lau katu begi zorrotzen afera ez dela sinesten denean behintzat).

#### 4.13. *Programa.*

Giza-naturalezaren bereizgarri funtsezko bat, K. Rahner-en iritzian, historian konkretuki ekitea omen da.

Programa, zehatza, hertsia da. Mugatua beti. Iraultzarena ere berdin. Mugatua bai, baina beti iraultzabidean.

Programaren eginkizuna, iraultzagintzan, ekin-tza eta pentsakera lurraren gainean ezartzea da, ez nihilismoan ez mistizismoan eror dadin iraultzaren helburu zehatzak eta egingaiak markatzea. F. Perroux jaunarena: poesia ekoaziotan jartzea, iraultza posibleztatzea, segurtatzea.

Programa, ekintzarako plangintza da.

Bistan da: programak ez dio ekintzari indarririk kendu behar. Arrazoi du Joxe Azurmendik, bere haserrean, gure programa-zaletasuna, ideologi-zaletasuna eta ekintza-epelkeria salatzen dituenean:

...Badirudi ideologiak justizi-nahia bideratu ez baino ito egin duela; erreboluzioa baino askoz ardurazkoagoa dela erreboluzioaren programa. Eta programa hau ekintzarako plangintza barik, aitzakia hutsa dela (2).

## 4.2. Proiektorearen funtsa

Arestian esan dugu, aldakuntza azkar soil bat bailitzan erabili ohi dela iraultza, bereziki gobernamendu eta politikazko antolamenduen aldaketaz bada.

Lanaren altura hontan, politikazko eta ekonomiazko (areago teknikazko!) barrutietatik kanpora ulertzen dugu iraultza. Bestalde, ez dugu sektorialki hartu nahi, hots, politika-ekintza-mota bat bezala.

Ardurazkoago zaigu filosofiaren arabera iraultza estudiantzea. Iraultzak munduaz, gizonaz, historiaz ikuspegi bat baduela sinetsirik gaude. Ho-

---

(2) Ikus *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa*, E. E., Baiona, 1971, 146 hor. .

rixte aztertzeraz goaz: iraultza bera kultur egitura bezala.

Iraultzaren funtsa bi kategoriatan bil daitekeela uste du Découflé jaunak: osotasuna-unibertsaltasuna, lehenengo; eta gero, historiazkotasuna.

#### 4.21. *Proiektu iraultzailea eta osotasuna*

Proiektu iraultzailea baitipait osakuntza (*totalisation*) eta orokartasuna da. Gizon osoa besarkatzen du, berritzen saiatzen den gizarte-gauzaren gainetik, gizatasun osoari mundu berriaren ikusera komunikatu nahiz irrikatzen dago (3).

Osotasun, guzizkotasun, orokartasun, unibertsaltasun hau ez da eraskintxo ez adabaki bat. Iraultzaren funtsa da.

Berdin da, historialki eta sozialki konprobatur, bere lorkizunak eta emaitzak erreformarenak baino ez gehiago ez hobeak badira. Hori ez da kuestioa orain, ez gara-ta ari iraultza gizarte fenomenu bezala aztertzen.

Erreboluzioak gizon guzia eta gizon guziak harrapatu nahi ditu. Gizona eta gizonari dago-kion oro. Gizona eta gizarte. Zentzun hontan ulertu behar da osotasuna. Deus ez unibertsalagorik.

---

(3) Ikus aip. lib. 33 hor.

## Charles Péguy-k idatzi du:

Erreboluzioak ez dira hasten, ez indarrik ez gairitzapenik lortzen gizartezko, moralezko eta pentsaerazko sistima bat desegiten, itzulipurdikatzeko lehiatzen ez badira... Iraultza bat ez da ezer, plangintza berri bat sartzen ez badu; ikuspegi osoki berri bat, ikusera osoki berria, bizitza berri bat... Iraultza bat ez da iraultza, baldin osoa, orokarra, erabatekoa, absolutua ez bada... (4).

Ongi ikusia. Horrela izanik, ostera diezaguke norbaitek, nola mintza gaitezke erreboluzio «politikoaz», «sozialaz», «kulturazkoaz», etab? Kontraesan ukatzaile bat dagoke hor, osotasunean ez baino sailka hartzen bait da orduan gizarte-gauza.

Eta ez du sentidurik, egia esan, eremu horiek hesparru bezala hartzen badira, hots, sail horietan aipaturiko osotasun hori ikusten ez den neurrian. Pentsamolde honen arabera, erreboluzio kulturalak kulturaren ikusiko du alienazio guzien oinarria. Iraultza sozialak, berebat, gizarte-antolamenduan bilatzen du gaitz guzien iturburua. Analisi desberdinek badute hemen zer-ikusirik eta zer-esanik.

Adierazpide dudagabeko bat. Marx-entzako, iraultza sozialak osotasun-unibertsaltasun baldintza hori bete betean zertzen du:

---

(4) Ikus *Cahiers de la Quinzaine*, 5. serieko XI. Koadernoari oharra.

(La révolution sociale) possède un caractère d'universalité, parce qu'elle constitue une protestation de l'homme contre sa vie inhumaine, parce qu'elle part du point de vue de l'individu particulier réel, parce que la cité sociale, dont l'individu refuse désormais d'être séparé, représente la vraie nature sociale de l'homme, la nature humaine (5).

Clavel jaunarentzako (logika-hari berean baina bestelako filosofiaz), gizonaren osotasuna, radikaltasun guzian, kulturaren bilatu ahal da bakarririk.

Osootasunaren beste elementu bat. Gizon berriaz, mundu berriaz mintzatuko da iraultzailea. Giza-naturaleza bera ere alda daitekeela uste du Rousseau-rekin.

Condorcet filosofoak (1743-1794) giza-izpirituaren mugabako progresioan eta hobegarritasunetan sinesten du, eta etorkizun hurbilerako, gizartearen antolaketa arazoimenaren esanetara eratu gero, askatasunaren, berdintasunaren, anaitasun unibertsalaren erreinua eskaintzen.

Marx, iraultzak bere baitan ekarriko duen giza-erlazioen eta pertsonatasunaren aldakuntzaz komentaturik dago, eta sinetsirik aurrerantzean lana ez dela premia-beharra izango ezpada premia-atsegina. Trotski-ren profezia tankerako sinismena ere ezaguna da:

Gizona (etorkizuneko urian, hain zuzen iraultza

---

(5) A. Découflé jaunak aipatua, ibidem, 38 hor.

mundialak posibleztatuko duen hortan) askoz ere gogorragoa izango da, askoz ere zaluagoa, askoz ere finagoa. Haren gorputza egokiagoa eta neurrizkoagoa izanen da, haren mogimenduak gozoagoak, haren abotsa ozen eta eztiagoa. Giza-maila arrunta Aristoteles-en, Goethe-ren, Marxen alturara igoko da. Eta mendi gailur honen gainetik ere tontor berriak altxatuko dira.

Eta luzatzea badago.

Baina kasu!, esandakotik ez da atera behar osotasunak mito eta utopia bezala funtzionatzen duenik. *La totalité du projet révolutionnaire est de l'ordre de l'image, non de celui du rêve; de la réalité, non de l'utopie*, dio Découflé jaunak.

Osotasun honexegatik, totalitarismoa salatu dio zenbaitek iraultzari. Espreski totalitariora dela dio Découflék. Iraultza, iraultzailearen gogoan eta buruan, sistima osoa da. Badu bere pentsaera, bere legeak, bere bideak, bere xedea. Totalitarismo hau, pentsamenduaren mailan, manikeismo astun baten bidez agertuko litzateke, garbiak (iraultzaileak) eta zikinak, gaiztoak (besteak) ongi kontrabereiziaz. Ekintza mailan ere manikeismo bera agertzen bide da.

#### 4.22. Osotasunaren jaiotzan.

Teknikaren eta zientziaren idorokunde harri-garriarekin, naturalezan, fisikazko munduaren gain kasik neurrigabeko bilakatzen dela bere agintea ikusten du gizonak. Hura menperatuago

eta bere nortasunaren eta ahaltasunaren kontzientzia haziago. Harma zoragarri hori, zientzia da: *Savoir pour pouvoir*, zioen F. Bacon-ek.

Arrazoimenaren garaiak dira. Zer ez lezake arrazoiak? Burua dagoela goren gizonarengana-eta, horrek zerbait adierazi nahiko duela pentsatuko zuen XVIII mendeko gizon baikorrek.

Baina konkista hau ez da poetak kantatzen duen hilargiaren argi epeletan egina. Orduko filosofuentzat, baitipait delako Frantziako filosofismoan, filosofigintza ez da estudio soila, estudioa eta gudua da. Prometeorena egiten dabilela badaki gizonak. Zati bat hemen, zati bat han, misterioari lurra jan behar dio gizonak, etorkizuna egin ahal izateko.

Bi sendimendu hauek, sendimendu nagusi bi direlakoan nago. Biak biziki kontutan hartze-koak, giroak eta baldintzapenak izpiritua kutsa lezakeen neurrian bederen. Iraultzak, XVIII-XIX mendeetatik dakarren kutsapena, ene ustez handia da. Eta ez dago izkutatu beharrik: zientismoarena da.

Lanaren alderdi hontan, ene asmoa oso sinplea da. Iraultza jaio den mende horietako giroa agertzen eta esplikatzeko saiatu. Filosofiaren aldetik, geroago eginen dut espreski. Orain gizarte-sikologiaren aldetik-edo egin nahi nuke.

XVIII-XIX mendetan gaude. Gizonaren dohai-nik nagusia, arrazoimena da. Arrazoi horrek izadia du aztergai. Eta oharkabeki, gizartea ere

naturaleza-zorte bat dela pentsatzen du gizonak. Naturalezaren legeak, zientziak erruz ezagutarazten dituenez gero, zergatik ez gizartearenak?

Eta zergatik ez? Asimilazio bikoitz bat gertatzen, hein handi batetan mundu modernuari sorrera eman diona: alde batetik, naturaleza eta gizartea; eta bestetik, zientzia eta politika. Une hontatixe jar daiteke gizarte-modu bat hauzitan: gizarte-legeak ezagutuz, ados ez gaudenean alda litezkeelako. Lehen naturaleza zen bezala, orain (bereziki Marx-en bultzadarekin) gizartea izango da arrazoimenaren ekintzaren objeturik behinena. Biak batean, hau da, zientziazki izadia eta gizartea kontrolatuz, etorkizunaren giltza eskuetan du gizonak.

Bai, Jainkoaren eskuetatik gizonenetara kanbiatu da agintea, jakintzarekin batera.

Kontzientzia modernu honen kausa eta, berebat, ondorio, sozietatearen desagaratzearen aurrean gaudela ez ahortzi.

Gizartea (berdin mundua) ez da gehiago organismo sagaratu hura, Jainkoaren edo jainkoen (egiaz jauntxoek!) jabego pribatua. Gizartearen sekretuak ezagutzeko ez da goiko Guziahaldunik behar. Gizarte-prozesoak edo historia Jainkoak ez baino gizonak egiten du. Gizarte-estruktura ez da uki-ezina. *Timor fecit deos*, baieztatuko luke gus-tora gizon modernuak, esaera zaharrarekin.

Aburu horietan sinetsirik, arras aldatzen da

gizonaren gizartearekiko jokabidea. Aurrerantzean, sozietatea bere terrenoa da; politika ez da jainkoen apostu, desafio eta dado-jokuen ondorioa, ezpada gizonaren beraren plangintzaren ondorioa.

Gizonak bere bizimodua *kondizionalki* hartzen du. Esan nahi bait da, alegia, ez halabehar-raren eta patuaren fruitu, ez eta indar misterioitsu ez-ezagun eta urrutikoen borondate hotza.

Urrats handi bat eman du gizonak bere egoera *kondizionalki* ulertzearekin. Lehen, ordea, giza-banakoaren egoera, zorigaiztoenetakoa izanik ere, baldin lekuko gizarte-estrukturekin ados baze-torren, injustiziarik ez zegoen. Zergatik ez? Bere kondizio hori osotasun baten osakai izanik, osotasun hori (gizarte-estruktura hori) bidezkotzak, naturaltzat, sagaratutzat jotzen zuelako. Badakigu: oinak ibiltzeko dira, begiak ikusteko, etab. Noiz uto zaio begiari ankarena egitea? Badakizu: bizitza teatro-gisa bat da. Eta teatro-lan hortan zerbitzariarena egitea egokitu baldin bazaizu... ahalik eta hoberen horixe betetzean datza zure gizagintza (eta santutasuna). Badakizu: batzuk aberats jaio dira, eta besteak pobre. Bizitzako legea da: batzuk neurritz handi eta beste batzuk tipi diren bezalaxe.

Hemendik garbi atera behar dena hau da: us-tekizun horrekin gizonak ezin zezakeela pentsa deus aldatzerik, gutienik kolektibuzki eta etorki-zun-lege bat egiteko ginoan. Bere egoera gaiztoa bazen ere, hala irautea zegokion, bere zor-tea hori

zelakoan. Gehienik ere, luzaroago hala irauterik ez zegoenean, erreboltatu egin zitekeen. Erreboltatu, edo suizidatu. Eta biak batera. Zer egin zezakeen besterik? Nekazariak, bere lurrak arrakalatzera ino eguzkiak legortzen duela-ta, kupidagabeko eguzki horri harrika egin diezaioke. Baina ez du horrek euririk ekarriko. Ez erreboluziorik ernaraziko (6).

Gizonak bere bizitza, edo naturalezaren edo gizartearen lege barnetan (lege hauetaz galdetu gabe), naturaltasun guziarekin ikusten jarraitzen duen bitartean, iraultzarik ez da posible. Hor gerta daitekeena, gehienez ere horixe da: errebolta. Hots, haserrearen, amorrazioaren, iraun-ezinaren, jasangaitzaren lehertzapena eta eztanda.

Gizarte-gauza iraultza-indarra izaten Denbora modernutan bakarrik hasi da, eta ez lehenago, hain zuzen giza-kondizioari pobretasuna eranstea zailantzat jarri zutenean gizonek, zirkonstantzia zenbaiten ondoren, indarrari edo engainuari esker, pobrezia kateetatik libratzea erdietsi duen talde tipi horren eta multzo langile eta pobreaken arteko bereizkuntza horren izakera ezinbestekoa eta betikoa hauzitan jarri zutenean (7).

Iraultza posible dadin, zuzentasunik-eza teoriaren mailan behar da haintzat hartu. Ez da aski

---

(6) "En 1793, d'une certaine manière, finissent les temps de la révolte et commencent les temps révolutionnaires, sur un échafaud". CAMUS, A. *L'homme révolté*, 139 hor.

(7) ARENDT, HANNAH: "Sobre la revolución", in *Revista de Occidente*, Madrid, 1967, 28 hor.

zuzen ez den egoera batetan bizitzea; iraultza nahi bada, derrigor behar da egoera horren zuzentasunik ezaren kontzientzia edukitzea. Hori, eta aldakuntza posible dela sinestea ere bai.

Bi kondizio hauek, oso osorik gertatu dira azken mende hauetan. Gizarte-situazioak, derrigorren eta patuaren seme ez baino giza-lanarenak direla deskubritzen du gizon modernuak. Gizonak gizartea antolatu badu, gizonak, deretxo berarekin, alda lezake. Eta aldatzeari ekiten dio. Eta nolako optimismoarekin! Utopiaren erreinu aberatsak zabaltzen bait zaizkio, urrezko gakoari esker. Giltza hori, jakintza da, natur-jakintza, gizarte-jakintza.

Baikor sartzen da erreboluzioa gizonaren bizitzan, buruan hainbat bihotzean. Iraultza, gizartearen aldakuntza, arrazoizko da orain.

Erreboluziozaleak, dena alda daitekeela uste du, giza-natura ere bai. Iraultza ez da itsuaren makila-kolpea.

Iraultza ez da gehiago, haserretuz eta borrokatuz, Jainkoak nahi, maite, mantendu eta bedeinkaturiko ordenuaren kontra gudukatzen duen gaisoaren kontzientzia bekataria.

Iraultza, gizonak bere inguruaren gain duen agintea da.

Iraultza, gizonarekiko sinesmena da.

Iraultza, giza-duintasunaren seinale, garraipen eta eskakizun da.

#### 4.23. *Proiektu iraultzailea eta historikotasuna*

Historiaren gailurtzat du iraultzak bere burua. Bera da mementoa, une erabakitzailea. Haren aurrean, lehenak ez du gehiago gorputzik ez itzalik. Haren aurrean, etorkizuna ahaltasun guzian gunea da. Areago: berak sortarazten dizkio geroari posibilitadeak oro. Bera da hastapena.

Erreboluzioa, J. M. Domenach jaunaren esanean, *le point de non-retour* da. Atzera itzultzerik ez dago, ezin liteke historia berritu. Historia berria egin behar da. Egutegi berria (edo festa berrien zerrenda) erreboluzio guzietan ikusten dugu. Esan nahi bait da, iraultzak bitan ebakitzen duela historia. Ebakidura iraultzaren mui-nean dagoela lehen ere esan dugu. Azpimarkatu beharra dago, halere. Orain, haustura hau erabatekoa ote? Ez noski. Baina ezin daiteke oneski esan deus berririk ez datorrenik iraultza ostean. *Nihil novum sub sole*. Lehengo balioak erabiltzen omen dira gero ere. Nahi bada, bai. Baina sintesi eta baliogo-hierarkia berri batetan. Eta horrek du betiere munta: baliogoak nola gonbinatzen eta elkartzen diren erabakitzeak. Kiniela antzo, bada.

Iraultzarentzat historia linealki beti aurrera doa. Eboluzioarentzat eta progresoarentzat ere berdin. Azkeneko hauentzat, ordea, etengabeko linea da historia. Iraultzak etendura eta haustura sartzen eta sortzen du. Horra diferentzia. Iraultza historiaren kontra, beraz? Bai eta ez. Historia

batzuentzat bakarrik *on* den ginoan, bai. Historiak *guti batzuen* probretxua karreatu duen neurrian, dudarik gabe. Baina iraultzailearentzat, hori *gain-historia* da, axalekoa.

Komentziturik eta sinetsirik dago iraultzailea, benetako historia azpitik doala. Eta iraultzaileak interpretatu egiten du historia hori: *gu hilkorrak gara; hilezkorra, ordea, gure kausa*. Iraultza historiari itsatsirik dago, historiaren benetako mogimendu sakon hortan situatzen da.

Historiarekiko burutapenean, esan berri dugu, iraultzak, progresoak eta eboluzioak iturburu bera dute. Denbora linealki interpretatzen da. Judegu-Kristianismoari esker, Europan hola pentsatzen dugu guk historia. Honen kontzientzia garbia izan dezagun, denboraren beste interpretapen bat kontuan edukirik, bien arteko aldea neurtzeari onuragarri deritzat.

Labur eta azkar emanik, bata, konzepzio ziklikoa, Greziakoa dela esan dezagun. Eta bestea, lineala, Judegu-Kristianismoak ekarri duena. Hitzek berek diotenez, batak aldika, betiko itzuli baten, hartzen du denbora. Urteko haroekin gertatu ohi den bezalaxe, orain gertatzen dena, gero ere berdin gertatuko da. Mogimendu biribila, errobedarena. Besteak, ordea, denbora linea bat bezala ikusten. (Gertatua, igarot da; datorrena, zerbait berri da beti. Mogimendu zuzena, fletxarena.

Denboraren eta historiaren lineazko interpre-

tazioan, etorkizuna iragana baino hobea da; iragana ez bait da gehiago. Etorkizunari begira bizi da gizona. Gertakari bakoitza besteak ez bezalako eta definitibua da. (Ikusten da, bada, iraultzak nola har lezakeen bere denboraldia mementorik inportanteena, bakarra, berezia eta erabakitzailea bezala). Aitzitik, denboraren «harozko» interpretaketan, iragana ez da hilik, berriz eta berriz dator denboraren isurian.

Lineazko interpretazio zuzenean, erabateko hastapen bat dago. Hastapen bat eta helburu bat. Eta bien artean, bidea markatzen duen lerro zuzen bat. Fletxak direziona markatzen du. Historiak, bada, xede bat du, dinamika bat. Historiak norabaitera garamatzi, eta ez edonora. Agindutako lur berria, gaitzik gabeko lurra, klaserik gabeko gizartea, paradisu berria... fletxa horrek markatzen dituen helburuak dira. Mogimendu ziklikoan ez da holakorik. Lerro zuzenari biribila dagokio hemen. Ez dago hasiera absoluturik, ez azkeneko azkenik. Memento hontan hemen dagoena, gero han dago, baina geroago atzera hemen izanen da. Errotarriarena. Baretasun eta bake sendimendu bat ematen dio konzepzio honek gizonari. Dena berriz hasiko bada, zertako etsi? Gizabanakoa desespera liteke, hori bai, espero dituen denbora hobe horiek atzerapen luzeegia hartu dutelako (heriotze indibidualaren problema, gonbarazio batez). Baina etsipen sendimendurik ez dagoke, gizatasun osoari gagozkiolarik. Pazientzia kontua bait da dena, denbora kontua hain zuzen. Itxaron, egon lasai, badator-eta berriz ere

udaberria. Pentsaera hontan, ez desesperantza ez esperantza absoluturik dira ezagutzen.

Beste pentsaera bai, esperantza guzizkoan bizi daiteke. Desesperaziorik gorrienean ere bai. Hemen hondamendia gerta bait daiteke, azken absolutu bat ere badago. Iraultzaileak tragedia sendimendu hau gori-gori du. Iraultzailearentzako ez dago jolasik: *Iraultza ala hil*. Une bakoitza da garrantzizko, etorkizuna hortixek eskegita balego bezalaxe.

Denboraren pentsamolde hau Mendebalean Kristianismoak sartu du. Iraultza eta progresoa, biak bizi dira hortik. Baina progresoaren ideologiarentzat geroa orainaren gisa berekoa (hots, gauza bera koloretan) den bitartean, iraultzarentzat gero hori arras berria eta orainarte agertu gabea da.

Judeguren pentsaeran etorkizunaren interpretazio biak idoro ditzakegu. Eskatologiaren korrante batzutan, geroa iraganaren edo presentearen luzapen hobetua da: Kristo Adan berria, Paradisua Eden berria, etab. Beste korrante batzutan, eskatologia hori hondamendi baten ondoren, guzizko haustura baten atzetik, apokalipsi baten ostean dator.

Baldin, Fr. Heer-ek dioenez, *Europa iraultzen ama* bada, zalantzarik ez da pentsamendu honen eraginez dela.

## 5. Iraultza: ilustrazioaren seme Iraultzaren sorrera, filosofiaren mailan eta giroan

Proiekto iraultzailea bere bere duen estuktura filosofiazkoaren jabe dela esan dugu. *Beretasun* hori ulertu egin behar da, ordea. Hortan saiatuz, berari baino gehiago agian, XVIII-XIX mendei propio zaizkiela ideia horiek ikusiko dugu.

Europar behintzat mentalidade honekintxe erne eta hazi da iraultza. Ez da alferrik azpimarkatu, Europa dela iraultzaren aberria, haztegia. Iraultzak eratu omen du Europa. Camus-en pen-

tsaeraren harian ulertzeko kondizioz, baietz nioke: *Je me révolte, donc nous sommes*. Azken bi mendeotan nagusitu den izpiritu-giroa azaldu nahi nuke horrekin.

Iraultza idealisten babeslekutzat jotzen du zenbaitek. Zer da irizkera honen azpian izkutatzen dena? Agian, giza-pentsakeraren betiko borroka hura, arrazoimenaren eta bihotzaren, buru hotz eta sendimenduarena, gizon kritikoa eta fedegizonaren arteko gudu hura. Logika berean urruntxoago joatea ez da mirari. Hortara: buru hotza, gizon kritikoa, arrazoimena kapitalismoaren (irakur neokapitalismoaren) aldetik leudeke. Eta fedegizona eta idealzalea, iraultzaren aldetik.

Nago ez ote den hauxe J. F. Revel «Ni Marx ni Jesús» liburugilearen asmoa eta pentsaera, hain zuzen gizona alda daitekeela uste duten Marx eta Jesusen kontrako bere haserre bizia ikusiaz.

Dikotomia hori markatu nahi duten aburuei goraki esan behar diegu ezetz. Ez eta ez. Argien filosofiaren ondorengotzat du bere burua iraultzak. Ez alferrik. Iraultza, gaurko mundu-molde europear guzia bezala bestalde, Arrazoiaren eraginez eta honen izenean jaio da. Arrazoiaren izenean bai, baina (amor ematen dut orain) optimismo, harrokeria izugarrian giroturik, progresoan osoki sinetsirik. Hori delata, batzuen iritziz iraultza arrazoizkoa da, zientifikoa; eta beste batzuentzat, sinesmenezkoa eta sendimenduzkoa.

Arazo honen zioa honela adieraziko nuke, esplikatzan jarraian saiatuz: iraultzaren proiektua, handiuste eta anbizio ikaragarritzakoa da, alegia, arrazoimenaren indarretan fidaturik gizona eta gizartea aldatzea, bateko; eta besteko, aldakuntza hortantxe eta horren bidez giza-bizitzaren eta gizadiaren zentzua eta funtsa bilatzea.

Hau den hau ez nuke ahobero baten moduan esan egin nahi, frogabidez erakutsi baino. Horri buruz, ahaleginduko naiz, beraz, XVIII-XIX mendeetako ideia nagusi zenbait aztertzen.

Hasi, lehenagotik hasiko naiz, Errenazimendu Harotik, ideiak ez bait dira perretxikoak bezala bapatean jaiotzen. Eta hala izanda ere, perretxikoa bakarrik ez baino terrenoa bera ere estudiatu nahi nukeelako.

## 5.1. Errenazimendutik Argien Filosofiara

### 5.11. *Ideiak eta asmoak*

Nahiz-eta Errenazimenduak Erdi Haroarekin izan duen lotura edo ebakidura erabakitzeke iritziak beti eztabaida-dantzan ibili, ukaezina da Haro berri hau krisi garai galanta izan dela. Eta orain sortu ez bada ere, hemen abiatzen eta indarrotzen da joera anitz.

Fenomenu nagusia, agian, Sekulargintza da teke. Dakigunez (topiko bait da iadanik), fedearen eta pentsagintzaren erlazioa oso adiskidetsua

zen Erdi Haroan. Batasuna Teologiaren izenean eta lurrean egiten zen. Iadanik Erdi Haroaren bigarren aldian, Teologia gainbeheraka dator, ez bide da deus berri asmatzen, ezpada lehengoa bera latin txarragoan esanberritzen. Amilbide hontan, azken bultzada, Gillermo Ockam-ek eman-go dio. Ockam-i ideia jeneralak, orokorrak zer diren galdetzen badiozu, hitz hutsak, izenak, *flatus vocis* (nominalismoa) erantzungo dizu. Zerk du, bada, munta? Esperentziaren bidez jaso daitekeenak, gizabanakoak, horra. Deduzioak barik induzioak, analisiak, obserbatzeak du aurrerantzean garrantzia.

Errenazimenduko Humanismoak ideia hauek biziki gogo onez bereganatuko ditu. Hauek eta beste asko.

Humanismoaren joera berezgarriena, eta hain zuzen definitzeraino markatzen duena, antzina-tera itzultze hori da. Antzinako autoreak aipatzen eta aupatzen dira bazter guzietan.

Erdi Haroan ere bazen balako joera, kontrae-sango du norbaitek. Bai, hala da. Baina orduko teologarientzat autore zahar horiek Kristianismoaren osagarri ziren. Humanistentzako ez da berdin, ez eta urrik ere. Hauentzako eredu dira. Ereditu Terenzio, dioenean *gizona naiz eta gizonari dagokion deus ez zait arrotz*. Ereditu, funtsean, gainontzekoak ere, denen artean zera erakusten dutelako, alegia, Kristianismora jo gabe ere, gizonak baduela nola bategin, nola bere bu-

rua konprenitu, non bere gizatasuna oinarritu, nola eta zertaz jardun.

Oinarri sostengarri eta bategile hori, naturaleza da, giza-natura. *Sequere naturam* dio garai-ko esaerak. Hori da pentsaburuaren eta bizimoldearen erreferentzia. Ez ahal dugu nabaritzen nola gizona eta kristaua (Erdi Haroan batasunean ezik uler ezin zitekeena) bi den, ez bat? Kristaua, naturaleza naturalezagaina, beraz. Baliogo-neurria, gizona. Baina kasu (Ockam oroit) ez gizona arima bezala, ez eta izaki (ser, être) bezala. Ezpada, gizabanako, indibiduo gisa.

Konkretutasuna, gizakumea, arrazoa: horra Hirutasun berria.

### 5.12. *Jakintza eta aurrerapena*

Naturelezaren eta arrazoiaren elkar topaketa honek gure garaietaraino heltzen den jakintza aurrerapenaren hazia ereiten du.

Baitipait jakintza zehatzak desarroilatzen dira, ideien arabera obserbatzeak eta gizonarekiko-tasunak bait dute munta: historia, matematikak, fisika, midizina, astronomia. Ekonomiazko eta gizartearekikoak ez dira hainbeste sakontzen.

Oro har, gizon hauek jakintzen erabilkera modernuaren oinarriak, zimentarriak jartzen dituzte.

Haro modernuak zientzian fidaturik hasten

du bidea. Errenazimenduarekin hastapenetan gaudе. Baina aspaldiko haro hau aipatu nahi izan dugu, gure ustez gero azkartzen eta hazten joango den dinamika orduantxe jaiotzen delako.

Linea berean (ez derrigor pentsamolde berean) datoz geroko zientzi-gizonak eta filosofariak. Descartes, esate baterako, erabaki hau hartzean, alegia *bere baitan edo munduaren liburu handian bila daitekeen jakintzatik aparte beste zientziarik ez bilatzea*.

Erdi Haroan, liburu irekia den munduan Jainkoa irakurtzen zen (Bonabentura santua). Orain mundu hori zientzigunea da. Mundua nola irakurtu behar den oso ederki erakusten digu Galileok:

Filosofia, gure begien aurrean beti zabaldurik dagoen liburu hortan idatzirik dago (unibertsoan, esan nahi dut), baina ezin da ulertu, baldin erabilitako hizkuntza eta ezagupideak ez bada lehenagotik ikasten. Matematikazko hizkuntzan idatzia dago eta bere ezagupideak, triangeluak, zirkuloak, eta geometriazko beste irudiak dira; hauek gabe, ezina da gizonarentzako hitz bat bakarra ere konprenitzea.

Garai hau, saietsetik bada ere, ezagutzen duenari ez dadukagu esanberritu beharrik zientziak hartzen duen aurrerapena. Aski dugu XVII mendeko izen zenbait aipatzea, aipatu soilak gugarnteko oihartzuna dakar-eta: Gassendi, Galileo, Bacon, Hobbes, Descartes, Pascal, Locke, Male-

branche, Spinoza, Leibniz, Berkeley, Newton... Eta beste asko (Néper, Cavalieri, Fermat... Matematikatan. Copernic, Kepler... Astronomian. Ambroise P. de Laval, Mikel Servet, Joanes Huar-tekoa... Midikuntzan). Etab.

Gero ez gintezke gehiegi harritu, jakintzen eta filosofien aurrerapen honen kontzientzia duten XVIII mendeko gizonen harrokeriaz. Aurrerape-na hemen, aurrerapena han, alde guzietan aurre-rapena ikusiaz... azkenean aurrerapena bera si-nesmen-gai eta dogma bilakatuko da.

J. Chevalier jaunak, Pentsamenduaren Kon-dairan, egokitasunez lerropetzen ditu, nere uste-ko, XVIII mendeko ideia deigarriak. Hona hiru:

- *progresoan sinesmena*, esan nahi bait da, aurrerapen hau unibertsala, mu-gabakoa eta etengabea izanen dela.
- *zientzia*, izpirituaren bidez materiaren menderakuntza adierazten duena, pro-gresoaren tresna. Zientzia, sorburua eta xedea da, denbora berean.
- *gizatasuna*, aurrerapenaren objetua, gaia, gunea, non gizonak (Theilard-en hitzez) *ihes-ezineko bakoitzaren he-riotzaren perspektibak, eta derrigo-rrezko senditzen zuen mugabako etor-kizunaren itxaropenak ezkontzen as-matu nahi zuen*

## 5.2. Eredu nagusia: Prometeo

### 5.21. Arrazoimenaren garaitzapena

Hegel-ek Kant goraki alabatuko du, honi eskerrak *arrazoimenaren beregaintasunaren printzipioa, bere gaitasun absolutua, gure garaiko axioma filosofiazko bezala kontsideratua delako.*

Arrazoimenaren bidez liberatzen da gizona. Ilunbetatik irten eta argitara agertu (Argien Filosofia). Jakintzarik eza, zientziarik eza, sinesmenkeria, sinesmena... horra ilunbe hori. Hortik arrazoimenaren bidez ateratzen gara (agian hobe: arrazoimenak ateratzen gaitu), arrazoimen hori zientziari, teknikari egokituz, aplikatuz.

Argien mendea, Arrazoimenaren mendea da.

Arrazoimenari, eta berari bakarrik, eskatuko zaio zibilizazio berriaren zimentarri definitibuak ezartzea.

Gizakumearen bizitzan bezala, Gizatasunarenean ere, haurtzarotik Arrazoimenaren bidez ateratzen gara. Kant-en iritzian (1), Aufklärung

---

(1) "Qu'est-ce que les "lumières"? La sortie de l'homme de sa Minorité, dont il est lui-même responsable. Minorité, c'est-à-dire incapacité de se servir de son entendement sans la direction d'autrui, minorité dont il est lui-même responsable, puisque la cause en réside non dans un défaut de l'entendement, mais dans un manque de décision et de courage

ekin gertatu da hau osoki. Haurrari bezala ez baino gizon helduari bezala mintzatu beharko gatzazkio aurrerantzean gizonari. Entzun Volney proklamatzan:

Gizona nagusitu den hontan, arrazoimenaren arabera mintza dakion garai da.

Gizona hazi, hezi, nagusitu, heldu... borroka latzean... eta Jainkoaren pentzura. Jainkoa ukatuz, gutienez baztertuz. Izan ere, ahalguzidun izateko, ahalguzidun oro behar da ukatu.

Gisa da. 1700-an Claude Gilbert-en esaera, be-rea ez baino mende osoarena dela esan genezake. Hala zioen:

Arrazoimena jarraitzean, geure manupean soilik gara, eta horrela jainko bilakatzen.

## 5.22. Aurrerapenaren zorabioa

Sertillanges-ek (2) esango du, XVIII mendean Arrazoimena, Aurrerapena, Argiak, pertsonaia jainkotiar bezala ikusten direla.

*Progresoa, izatez, dena da, ala deus ez, pen-*

---

de s'en servir sans la direction d'autrui. Sapere aude! Aie le courage de te servir de ton propre entendement. Voilà la dévige des Lumières". Ikus KANT: *La Philosophie de l'histoire*, Ed. Gonthier, Bibliothèque "Médiations", n.º 33, 46 hor.

(2) Ikus *Le Christianisme et les Philosophies*. Edit. Montaigne, Paris, 1941, 166 hor.

tsatzen da. Progresoaren abantailez sinetsiegi dago XVIII mendeko gizona, deus ez dela erabakitzeko. Iragan mendeetan, eta orain bertan, zientziaren bidez lortutako aurrerapenak eta zientzia beraren aurrerapena, ongi gogoan ditu XVIII mendeko gizonak. Beraz: progresoa dena da.

Zientziaren bidez, arrazoiaren bidez alegia, izpirituak materia ezagutuz gero, luza gabe materia hori menderatuko duela, naturalezaren jaun eta jabe bilakatuko dela badaki jakintsuak. Horrek ematen dion euforia eta itxaropena pentsagintza guzira hedatuko da.

Pentsagintzaren eta zientzigintzaren aurrerapenak ez du etorkizunean mugarik. Eta bai bata eta bai bestea, izadia, gizonari, soziedadeari aplikatzen bait zaizkie, hauen ezagutzapena, eta ezagutzapenaren aldaketa, noraino hel daitekeen ezin da asma.

Segurua hau da: ez dagoela neurrik, eta arrazoimenak traba guziak gaindi ditzakeela.

Condorcet jaunaren iritzia, diogunaz argigile da:

Gizatasunaren aurrerapena argien eta zientzien aurrerapenean bil-laburtzen da, eta ez beste ezertan. Hauxe da eginen dudan liburuaren helburua, eta ondorioa beste hau izango da: arrazogintzaren eta gertakizunen bidez, giza-ahaltasunen hobekuntzari naturalezak ez diola neurrik jarri; gizonaren hobegarritasuna benetan amaiba-

koa dela; hobegarritasunaren aurrerapenak (geldiarazi nahi lukeen ahalmenengandik aske dagoelarik), naturalezak jaurti gaituen lurbiraren epeaz beste mugarik ez duela.

Aurrerapen hauek, habaila handian edo geldiroagoan joan daitezke, baina zalantzarik gabe ez dute sekulan atzera egingo.

### 5.23. *Naturalezatik gizartera*

Modernutasunari gagozkiola, badakigu naturalezaz (eta gizonaz) arduratu dela gizarteaz baino lehen giza-arrazoimena. Natur-zientzien ostean agertu dira zientzia sozialak.

Hala izadia aztertzean nola soziedadea, nahiz eta idorokunde berriak egin, nik uste, funtsean, pentsamenduaren logika bera dago.

Ez da gaurkoa naturalezaren eta gizartearen artean ikusi nahi izan den antzekotasun hori. XVII-XIX mendeetako gizonarentzat, *naturalezaren izpiritu-forma* dela gizartea, idatzi du norbaitek.

XVIII mendeak, eta bereziki hemeretzigarrenek gizartea *processus* bezala, beraz historialki, hartuaz, aurkitzen dute soziedadea. Giza-arrazoimena gizarte-ezagutzapenaren bila jardungo da. Zertarako ezagutu baina? Aldatzeko, oroit Marx-en esaera sonatua.

*Quesnay* (1694-1774) kontsidera daiteke ekonomia politikoaren **Fondatzaile**. (Gizartea beste

alde askotatik ere aztertu da garai hontan, baina Quesnay-ren etsenplua hartu nahi izan dut, zientziaren ikasgune berriarekiko joera honen prozesoa erakusteko). Luis XV eta Pompadour-en midikua izanik, ongi zekien Quesnay-k organismoaren osasunik segurtatzerik ez dagoela naturalezaren legeak beteaz ez bada. Giza-soziedadeak, organismo biziak bezalatsu dira. Hauek bezalaxe haiak ere beren legeak dituzte: naturalezaren lege fisikazkoei, ekonomikazkoak dagozkie hemen. Gizartearen osasuna eta hobekuntza nahi bada, zein da egin beharra? Lege horiek ezagutzeari, eta legeok baliatzea.

Gizartearen legeak ezagutuz, gizartearen jaun da gizona. Eta (ia) egile ere. Zeren-eta badaki nola funtzionatzen duen, eta funtzionamendu hori aldatzeko zer egin behar den ere. Berdin historiarekin. Jakitea, agintea dela uste du XVIII-XIX mendeetako jakintsuak. *Savoir est pouvoir*. Garaipen sendimendu guzizko hau da jaio-berri den makineriaren olioak. Eta iraultzarena. Baikortasunez drogaturik preesaten du e t o r k i z u n a. Etsenplu bat:

...Libretasuna eta berdintasuna industriaren eta komertzioaren ondorio *beharrezkoak* dira. (Nik azpimarkatzen dut.) («El Censor», politikazko eta literaturazko periodikua, VI, Madrid, 1821.)

#### 5.24. *Oharpen gisa bi kritikatzko*

Zertan datza *gizona* guzi hontan? XVIII-XIX mendeetako filosofigintza nola eta zenbat

axolatu da gizonaz? Pontu hau ikusi beharrekoa iruditzen zait. Eta hau arrazoi ximple bategatik, besterik ez balego: gaurko pentsaerak nola ulertzen duen ezagutzeko, ulertzapen hori edo haren haritik datorrelako edo haren reakzioz.

Gaurko zientzia-bideak, fenomenologiak, formaren psikologiak, psikanalisiak, gizonaren estudioan egiten dutela bere batasuna badakigu. Baina ez gizon hau naturalezaren eta historiaren bilakabide jeneralean hartuaz, inguruko munduarekiko, bestearekiko, munduz handikaldeko harremanetan aztertuz baino.

XVIII eta XIX mendeetan ez da holakorik. Emile Bréhier jaunak (*Les thèmes actuels de la philosophie*, 75 hor.) egin analisiez baliatzen naiz.

—XVIII mendea. Gizaldi hontako filosofilariaren begietan, gizona naturaleza moldakoa zen, nahi bezala alda zitekeena, izatezko barne-egiturarik gabea. Uste zen (bereziki Rousseau-k) kanpotik (gida zitekeela, kanpotik ezarritako xede hontara nahiz bestera eraman zitekeela. Naturelezan itoa zegoen.

Gizon moldakor honi, Iraultzaren gizona kontraerasoko zaio. Kenezinezko eskubidez hornitua, Kant-en kritizismoaren gizona, hots, kontzientziak naturalezari lege-eginaz eta, berebat, arrazoimen praktikotik legeak jasoaz.

Baina bietan (eta hau da azpimarkatu nahi genuena) gizon konkretua, gizakumea, gordea dago, izkutatua, ahantzia.

—XIX mendea. Bilakaeraren (*devenir*) eta inguruaren (*milieu*) zentzua, horra mende honen ekarria. (Comte — Hegel — Marx — Darwin). Filosofiak, orain, iraganaren eta etorkizunaren artean ulertzen du gizona. Iragana eta etorkizuna besarkatzen duen kate horren uztaia da. Gaurkotasunean situaturik dagoen uztaia.

Hemen ere gizona ez da behar den neurrian haintzat hartua. Kateaturik dago, horra.

Filosofiaren mailan, jakintza ez da iritsi gizon abstraktuaren eta konkreturaen, gizabana-koaren eta gizartearen batasuna egitera. Pontu askotan XX mendeko filosofia gizon konkretuaren mendekua dateke.

## 6. Iraultza eta modernutasuna

### 6.1. Modernutasuna, atzo eta gaur

Modernutasuna

Mendebaleko zibilizazio-mota hau da, gure kultura (hitz honen esangura antropoformikoan).

Gure kultura hau ez da jaio-berria. Bere mui-na aztertu nahian ikusiko duguna zera da, alegia, XVIII-XIX mendeen likidazioa egin gabe dugula Etorkizunaren guraso baino areago iraganaren seme gara.

Ez da sekulan aski gomendatuko, benetan bizitza aldatu (*changer la vie*) nahi bada, errealdadea sakonetik ezagutzeak duen garrantzia. Gaur, errealdadea hurbildik ezagutu behar dela aldarrikatzen da. Hurbiltasuna eta sakontasuna funtsari inguratze bide bera dateke, agian. Gure gizagintzaren, gizartegintzaren, pentsagintzaren lerro nagusiak ikastea preminazko da, bai kontzientziaren gure kulturaren alde egoteko, bai kultura hori arras kanbiatu behar badugu ere.

Modernutasuna filosofiazki irakurtzen saiatuko naiz, Paul Valadier-en laguntzarekin (1). Beharbada, galdekizun-zerrenda baten bidez jokatzearen arrazoi justifikatzailea aisago uler daiteke.

Zeren izenean eraiki da egungo baliogo-maila?

Zeren inguruan atontzen eta antolatzen da gizartegintza bezala gizagintza? Eta hau bezala pentsagintza?

Zeren funtzioan ulertzen, organizatzen eta justifikatzen da gizarte-egituren aurrerapen-behar hori?

Zerk damaioke gizonaren ekintzari zentzua?

Zein argumendu, zein tresna darabil gizonak bere burua pentsatzeko?

---

(1) Ikus *Etudes*, martxoa, 1972, 361-376 hor.

Zein da, azkenean, beharrezko erreferentzia?

Filosofiazki esanez, zein den modernutasunaren «kategoria» galdetuko genuke. (*Kategoria*, Eric Weil-en zentzuan hartuaz).

Geografiazki eta historiazki ikusiaz europear zibilizazio hau besteen aldean desberdin dela ez ikusteko itsu behar da izan.

Beste kontu bat da gure kultura hau delata, harropuzteko eskubiderik ba ote dugun. Diferente izateak ez bait du adierazten hobe denik. Badakigu betidaniko joera dela norberaren pentsa-egituretan sartzen ez dena arbuiatzea. Eta baitipait mendebaleko joera da, alegia, bere kulturaz aparte situatzen dena, basatzat jotea. Basatitzat, ongi diot. Zeren-eta gu sinetsirik gaude gure kultura goreneko mailan dagoela, beste denak desarroilatu gabeak eta atzeratuak direlarik. Kultura guziei ordua jartzeko erlojua geuk egin dugu (*monismoa*), eta denak bide bakar batetik behar dute joan (*eboluzionismoa*).

Baina hau den hau uste hutsa da, sinesmena, mitoa.

### 6.11. *Modernutasunaren zimentarria.*

Zein da, bada, (beti Valadier-en eskutik) gure gizarte modernu honen *kategoria*? *Arroizkotasuna*. Ardatz honen inguruan eta honen arabera balioztatzen eta baliogabeztatzen dira egintzak

eta ekintzak, gizona eta honen lana, berdin morala, erlijioa zein politikazko sistema.

Gizartegintza osoa honen esanetara eraikia da: «notre société s'édifie sous la catégorie de la action cohérente et rationnelle, visant à lédification d'un monde sensé, qui soit monde de l'homme et pour l'homme». (Valadier).

Lehen ere aipatu dugu naturalezaren eta gizartearen legeak ezagutuz, bi kondizionamendu (holaxe ikusiak ziren) horien nagusi eta egile bihurtzen dela gizona. Eta hori dena Arrazoimena-ri esker.

#### 6.12. Modernugintzaren oinarri euskarriak (2)

Arazo hau ulertu ahal izateko, berriz atzera itzuli beharra dugu, eta iragan garai horietan bereziki gizonak naturalezarekin izan duen erlazioa ikusi. (Gaingiroki eginen dugu, lehen ere aipatua dugu-ta).

Gizonaren eta naturaren artean betidanik izan da *elkarrizketa* deitu genezakeen harreman bat. Delako elkarrizketa hontan, halere, gizonak ez du beti modu berdinean naturaleza haintzat har-

---

(2) "Comme le progrès, la modernité se définit par l'exaltation des temps nouveaux sous la triple invocation de la science, de la technique et de l'humanité sans classes" dio Jacques Pollak-Lederer "Jean-Luc GODARD dans la Modernité", in *Les Temps Modernes*, 262 zenb., Paris, 1968, 1.562 hor.

tu. Betiere gizonaren jokabidea naturaleza menderatzea, domestikatzea izan bada (hau liteke *giza-lanaren* sentidua. Ikus Paulo Agirrebaltzategiren artikulua argigarria: «Gizona, kultura bide-tan» in *Kultura eta fedea*, Jakin) aintzinateko gizonarentzat naturaleza eredu zen. Naturelezaren arabera bizitzea zen gizon horren jomuga, estoikoek eta epikurozaleek zer zioten gogoratu besterik ez dukezu. Gizon *modernuarentzat* naturaleza ez da eredu (Rousseau-zaleren joeraz aparte), erabaki behar den problema tekniko bat baizik; konkistatu, antolatu, menderatu egin behar den zerbait, alegia.

Descartes-ek zioen: *Izadiaren nagusi eta jaun bilakatu*. Hori da pentsaburua. Gainontzeko gizarte-mota guzien kontrara, *naturelezaren kontra borrokatzea* nagusituko da gure artean. Descartes-en antropozentrismoarekin, gizona bihurtuko da erreferentzia beharrezkoa, *sujetua*. Eta naturaleza? *Objetua*, azterketa-terrenoa, menderatzeko objetua. Gerozkoan, naturaleza desmitifikatua eta desmistifikatua dago, hots, zientziaren eta teknikaren terrenoa da. Iraulketa XIV-XVII mendeen artean gauzakotzen da.

Bigarren urratsa dator gero.

Natur-jakintzak zientzia sozialak baino lehenago hedatu zirela historian denok dakigu.

Baina aurrez-eman edo postuladu beraren ize-nean, eta logikazki, teknikaren eta zientziaren bidez naturaleza aztertuz eta ezagutu nahiz eta

hauzitan jarriz gero, berdin gizarte-bizitza antolatzten duten historiako legeak ere hauzipean ezarriko ditu gizonak. Eta hau bi arrazoirengatik:

- a) postuladu hori (esan nahi da: arrazoimenaren bidez ingurua konkistatzea) orokorra delako, eta mugak non eta zergatik jarri ez delako ikusten. Eta
- b) gizartea eratzen eta zuzentzen zituzten iztituzio politiko, erlijioso, korporatiboak, etab. gizonak naturalezaren gain hartu berri duen jabetasun-molde honekin haserre datoztelako eta ezkontezinak direlako.

Bigarren iraulketa hau XVIII-XIX mendeetan gertatzen da. Gizonak bere burua libretzat jo du. Eta beraz, naturalezatik askatu den bezalaxe historiatik ere liberatu beharra du. Nola? Lehen erabilitako bide beretik, alegia, histori legeak aztertuz... eta kanbiatuz. Hori da dena. Ez gehiago historiaren mende, ez gehiago, beraz, gizartearen mende.

Harrez gero gizartea ez da begirunea eta lege-mordo bat agintzen duen totem bedeinkatu bat, zerbait sagaratu, ez. Aldatu behar den zerbait baizik. Aldatu bai, baina zertarako? Arrapostua ere eramana dugu: Arrazoizko askatasun batetara hel dadin. Arrazoimenaren bidez nahi du gizon modernuak gizartea aldatu, hain zuzen arrazoimenaren eraikidura eta erreinua izan dadin.

### 6.13. *Eraskin gisa.*

Aldaketa honen ondorioz balioztaturik gelditu diren baliogoak begien bistan edukitzeari interesgarri derizkiot.

- Lehen lehenik, oinarri eta helburu, Arrazoizkotasuna.
- Eta gero, teknikazki posible den oro opagarri eta beharrezko delatza pentsatzea.
- Honekin loturik, efikazia, eragikortasuna, onaren eta baliokotasunaren neurri berezle bezala. Efikazia da moral-irizpide nagusia. Efikazia zer da, baina? Errealidadea aldatzeko ahala, indarra duena, hori da efikazi emaile.
- Hola bada, proposatzen eta aldarrikatzen dena, arrazoizko ekintza aldatzailea da. Ekintza aldatzaile honen neurritan epaituko da giza-bizitzaren baliogoa. Logika-hari berean ikusten ditut, honela, progresoarene mentalidadea (kapitalismoak babestu duena) eta iraultzarena (marxismoak aupatzen duena). Nor noren hiltzaile den oraindik jakin ez arren, Kain eta Abel bezalatsu, biak ama-sabel beretik sortu dira (3).

---

(3) Jean-Marie Domenach urrunago doa:

(...) l'évolution du marxisme soviétique, l'attitude des Partis communistes révèlent la parenté des valeurs qui les inspirent avec celles du monde bourgeois: l'apologie du travail, qui discipline et "instrumentalise" la nature, le primat de l'infrastructure économique et de l'accumulation industrielle, le refus de tout mystère, de tout "arrière monde". Le marxisme est une philosophie de l'époque du capitalisme ascendant —sa négation certes, mais n'est-il pas lié à l'adversaire, comme l'avait aperçu Mounier, par une consubstantialité originelle, de sorte qu'il délivre aujourd'hui sa vérité et son efficacité dans l'organisation et les disciplines de l'industrialisation? (...) on le devine chez nous, dans l'opposition qui s'accroît entre la contestation gauchiste et le Parti Communiste qui assume de plus en plus clairement les valeurs traditionnelles de l'humanisme technique, du progrès, du ratio-

## 6.2. Modernutasuna hauzitan

Modernutasunaren kritika gero eta bortitza-  
goa da, bazter guzietan.

Arrazoizkotasunaren lehentasuna ukatzen da baitipait. *La Raison c'est l'Absurde*, zioen Kierkegaard existentzialistak. Hippien joera aipatu beharrik ere ez dago. Eta hauek bakarrik balira, lasai legoke soziedadea. Baina ez, Eguzkialdeko pentsamendu osoa aparte utziaz, Mendebaleko pentsagintzan ere bada halako bihurrera bat. Lucien Goldman neomarxista testigu bikaina da, irrazionalista pentsakerara bihurrera bat bada-goela dioenean.

Bihurrera bat dago, bai, ez kristautasunera, baina bai irrazionalista pentsakera batera. Pertsona gaindituko lukeen zerbaiten behar berriari lotua agertzen da; zerbait horren falta biziki, sakonki sentitzen da, existentzialismoarekin gertatzen zen bezalaxe (4).

Arrazoizkotasunaren lehentasunarekin, arrazoizko ekintza aldatzailea ere biziki gogor salatua da. Ekintza aldatzaile honen garrantzia ezeztatu gabe ere, ikusi da gizon enpirikoarentzat

---

nalisme, du dévouement à ces grandes images collectives (famille, nation) indispensables au fonctionnement d'un Etat centralisé et d'une économie moderne". ("Propositions", in *Esprit*, urria, 1971, 361 hor.

(4) Ikus LARRESORO: *Hizkuntza eta Pentsakera*, Etor 140-141 hor.

(izen eta deituraz ezagutu ohi den horrentzako) maiz ez dela inportanteena. Beste axola askok okupatzen dute bere pentsamena bezala bere bihotza.

Bestalde, ekintza honen bidez arrazoizkotasunaren gainean eraiki da gure mundu modernua, hala gizartea nola politika-antolamenduak. Teknikazko arrazoizkotasunaren fruituak nola bananduak ikusten ditugu? Baikor izateko itsu behar da izan.

Eta batez ere, senditzen da mundua aldatze soilak, naturalezaren kontrako borroka soilak ez duela moralik ekartzen, ez diola bizitza bati zentzua ematen. Hilargia konkistatzeak ez du bizi-zentzurik sortzen. Hilargia konkistatu, zerbaiten izenean konkistatuko da, helburu zenbaiten ize-nean-edo, bestela ekintza ekintzagatik egiten dugu. Ekintza aldatzailearen arrazoiak galduaz, aldaketa bera gertatzen da ekintzaren arrazoi nagusi. Hori da egun bazterretan ikusten duguna. Gizona ekintzaren mende. Gizona makinaren zerbitzuko.

Hitz batez esateko, modernutasunaren zimentarri den arrazoizkotasunari zer salatzen zaio? Nere ustez bi gauza:

Bateko, delako arrazoizkotasun honen azpian irrazionalkeria asko gordetzen dela.

Eta besteko, arrazoizkotasun hau gizo-

naren funts bezala hartzea bera irrazionalkeria dela.

### 6.21. «Susmoaren maisuak».

Gure gizarte-moduari susmo txarra hartu dio zenbaitek. Paul Ricoeur jaunak *les maîtres du soupçon*, hots, susmoaren maisuak, deitzen ditu Marx, Freud eta Nietzsche.

Izan ere, hauek (eta bere jarraitzaileek), egin-dako kritiken bidez, gizarte modernuaren intenzio garbiak ez direla hain garbiak erakusten digute, badela beti antolamenduan bertan aitortu nahi ez den zerbait izkutua; hizkuntzak bezala giza-iztituzioek (legediak, ekonomiak, dogmak, moral-baliogoak) esaten ez duten zerbait adierazten dutela, itxura apainaren azpian zatarkeria asko gordetzen dela.

Maisuon lanaren sentidua labur bilduz hola-tsu adieraz genezake:

- Marxek, kapitalismoarekiko arrazoizkotasun ekonomikoaren funtsezko irrazionalkeria agertarazten duela.
- Freudek, bere aldetik, irrazionalkeria estaltzarren arrazoizkotasun itxura hartu ohi duen hizkuntzaren, moralaren, gizonaren eta gizartearen konportamenduen egitura sakona salatzen du.
- Eta Nietzschek erakutsi nahi du, alegia, liberatu duela uste duen gizarte

modernuak gizona esklabuago egin duela, bere baitarik atereaz eta sistimaren beraren geroz eta beharkizun ugariagoei lotzera premiauz (5).

## 6.22. Urrunago joaterik?

Ikusi bezala, modernutasunaren oinarria, alegia, arrazoizkotasuna, onartua da gehienetan. Eztabaidatua edo kondenatua, arrazoizkotasun hori haintzat ez hartzea, edo batzuen etekinetarako bakarrik erabiltzea, edo horren posibilitadeak oro bakar batzuen eskuetan bakarrik egotea... izaten da. Liberalismoak bezala marxismoak defenda lezake gizona errealidadea aldatzeko dagoela, eta hori arrazoimenaren bidez. Bietan arrazoizkotasunaren lehentasuna azpimarkatzen da.

Ez da berdin gaurko joera askorentzat. *Lehentasun* hori ukatu egiten bait da, arrazoizkotasunaren iturburuak eta ondorenak estudiatuz. Orain

---

(5) Gutien ezaguna denez, eta modan jartzera doanez, hitz erdi bat zor diogu Nietzsche-ren pentsaerari:

Nietzsche-rentzat Mendebaleko gizartea gaisorik dago, oso gaisorik egon ere. Gaisotasun hori egoismoa da, guk antropozentrismoa, humanismoa deitzen duguna. Alegia, gizona erreferentzia guzien erdigunea bilakatu dela.

Gizonaren mina du gizonak. Gizonaz sofritzen du gizonak. Zergatik? Bere burua zentzukotzat hartu ohi duelako, giza-mundua absolutu bihurtzen duelako. Eta gizonaz sofritzen du gizonak, supergizon izateraino ezin delako iritsi. Gizonaren gaisotasun hori Socrates-ekin hasi da, Kristianismoarekin jarraitu, eta azken denborotan biziagotu egin da. *Antropozentrismoa* da gaitz hori. Hona gure kultura.

berrehun urte hasita gizagintzaren esperentzia honek frakasatu egin duela ikusiaz, atzera hasi nahi gizon berria egiten: gizon berria, gizarte berria, mundu berria.

Bi filosofia arras diferente dago hemen. Gizonari eta honen inguruari buruz bi pentsamendu. Horregatik kontzeptuak zorroztu egin behar genituzke, elkar ulertzea nahi bada. Esate baterako, alienazioarekin zer adierazten da? Aipatu dugun gizonarekiko filosofi desberdintasun horretatik ikusenezake marxistentzako eta ezker berri frangorentzako alienatzea ez dela gauza bera. Ez eta komunista eta hippientzako. Zergatik? Gizonari buruz bi kontzeptu desberdin dutelako, eta alienazioa nor-galtzea delako definizioz. Baina noiz galtzen da nortasuna? Batentzat halako situaziotan, bestearentzat beste halakotan.

Inori ez zaio izkutatzen (politika-ekintzaren estrategia arazoa kanpo utziaz) hontan dagoela ezkerren eta ezker berriaren arteko hauzia. Bi filosofia dira. Eta bakoitzak iraultza bere erara egin nahi du.

Iraultza proposatzeko orduan (beti filosofia barrutian), bien jokabideak honela adieraz daitezkeela pentsatzen dut:

— Modernutasunaren arrazoizkotasun hau okerbideturik ikusten dugu, baitipait liberalismoaren atzaparretan. Horregatik gure gaurko gizarte-moldeko

irrazionalkeriak oro. Erremediatzeko, orainarte ezagutu ez diren bezalako egitura politikazko eta ekonomiazkoak sortu behar dira.

Beraz, arrazoizkotasun hau zaindu beharra dago, hobeagotu beharra, naturaleza menderatzea bait da gizonaren lehen asmoa.

— Arrazoizkotasunaren lehentasuna ukatu egin behar da. Hortan datza irrazionalkeria, eta ez arrazoizkotasunaren erabilkera gaizto batetan. Eta gaurko gizona arrazoizkotasun honen ize-nean egina nola dagoen, eta hori ukatzen dugunez, berriz hutsetik hasi beharra dadukagu.

Gizona bera sustraian hartu beharra dugu. Sustraian, eta ez bakarrik bizitza-kondiziotan, edo ekonomiazkoetan, edo politikazkoetan, edo gizartezkoetan.

Hori da, hain zuzen, kulturazko iraultzarekin erdietsi nahi dena.

Ezkertiarrak eta ezkertiar berriak, biak iraultzaz mintzatu arren, iraultzaren bideak bezala iraultzaren xedea oso bestelakoak dira. Bi mogimenduon analisisa egiterakoan (6), honela dio Maurice *Duverger* ezagunak:

---

(6) Ikus *Le Monde*, 7 martxoa, 1972.

L'ultra-gauche veut un renversement brutal et total de l'ordre établi par une révolution au sens traditionnel du terme qu'elle estime seule capable de *changer la vie*, les méthodes communistes et socialistes ne pouvant que changer le gouvernement.

Eta honen arrazoia ere ematen du (taktika hauzia alde batera utziaz, noski):

...la gauche et l'ultra-gauche font des analyses de situation absolument différentes.

Lehen esandakoa gogoan baldin badugu, badakigu zertan oinarritzen diren egoeraren bi analisi desberdin hauek.

### 6.23. *Maurice Clavel-en iritzia.*

Clavel-en *Qui est aliéné?* (7) liburua bi aldiz irakurtu dut berrikitan. Clavel filosofaria da, eta ultra-ezkertiarra. Eta eskuindarrei sinesten badiegu bederen, gaurko Frantziako ezkertiar berrien guraso, Sartre-rekin batera.

Clavel-ek gizona alienaturik ikusten du. Baina ez marxismoak salatzen dituen arrazoi berengatik. Non dagoke, bada, nor-galtzearen iturburua? Denborari bagagozkio, orain berrehun urte. Egungo gizartearen gaitza horrez gero datorkigu. Modernutasuna bera da hemen tirokatzen dena, ez beste deus.

---

(7) Flammarion, Paris, 1970.

Modernutasuna zer den? Gizonaren haroa, gizonaren erreinua. Gizonak (Prometeok) Jainkoa *desterratu* egin du, eta honen lekua berak okupatu. Clavel-ek ederki dio:

*L'homme advenant remplace Dieu par soi-même, et s'attribue spontanément ce qui Dieu avait de plus que lui, ce qu'il lui enviait en secret: savoir la création de soi et du monde.* (hor. 252)

Jainko berri honek, *Jainko arrazoimendun honek*, bere buruaren aurrean eta besteen aurrean sinesgarri gerta dadin, kreatzailetasuna auspotu beharko du. Ez da ustekabea ez halabehara, mentu hontantxe, azkartzen eta indartzen badira zientziak, teknikak, industriagintza. Arrazoizko ekintza aldatzailearen bitartez froga behartu du gizon berriak bere baliotasuna, bere *jainkotasuna*, bere absolututasuna. (Clavel-ek: *L'homme doit ainsi se prouver qu'il existe, ou mieux, se faire exister.* 254 or.).

Duda gabe, bi azken mendeotako kulturaren karakteristika nabarmenena gizonaren absolutu hori da, edo gizona absolutu bezala. Baina *absolutu* hau, Prometeoren garaitzapen bezala konprenituaz. Hauxe da modernutasunaren karakteristika, eta hauxe modernutasunaren gaitza. Gizonaren suizidioa bait da. Antikultura bat sortu beharra dago. XVIII mendean sortutako gizon absolutuaren kultura honen likidazioa egin behar da lehenbailehen. Gaur gizonak ezin du jasan berak, (*eta berak bakarrik hain zuzen*) egin duen mundua. Jasagaitza, begien bistan da.

Gizona, gizon jarrai dadila nahi bada, erabat aldatu behar da. (...*changer radicalement pour rester lui-même, et lors c'est tout ce monde qu'il s'agit de détruire, pour trouver cet absolu d'homme dont on se croyait assuré par lui.* 223 or.).

Alegia, kulturazko iraultza behar da egin. Kultura bait da infrastruktura sakona, eta ez ekonomia. Eta gaurko zibilizazioak ekarri diguna ere (eta orobat ekonomia infrastruktura bezala jartzea esplikatzen duena) kulturazko iraultza izan da, alegia, *la révolution culturelle de la mort de Dieu en l'homme*.

«Sartre-ren semeek», iraultzak bizitza berri bat ekarri behar duela, bizitza berri oso bat, pentsatzen dute. Eta osotasun hau ez dela lortuko ekonomiazko kondizioak aldatuz bakarrik. Nahitanahiezkoa da zibilizazio-mota hau ankazgora jartzea, kultura aldatzea, alegia, erreferentzia-sistema osoa ganbiatzea. Esan nahi bait da: desarroilo ekonomiko eta sozial moduztapen berri bat, bizimodu berri bat; gizonak gizonarekin, gizonak lanarekin, gizonak bere buruarekin, dituen harremanak zuzentzen dituen sistema berri bat; teknikaren eta zientziaren, ahaltasun krea-tzaile ororen taxuketa eta erabilkera berri bat.

Clavel-ek zibilizazio berri honen zantzuak somatu zituen 68-ko Maiatzekoan. Dena dela, Clavel bera guretzat zantzu ezin hobea da.

## 7. Kontrairaultzaz ohar laburrak

Ausaz A. Decouflé-ren meriturik handiena hontantxe dago. Iraultza ikertzean, kontrairaultzari ere begiratu bat eman dio.

Lehen kolpean uste den baino askoz ere inportanteagoa da hau. Zeren eta, iraultza, ezarritako ordenuaren kontrako mogimendu bat bezala hartu ohi da beti. Hala da. Eta orduan iraultzak mila justifikazio eta atxakia bilatu behar ditu. Baina iraultza ez da hori bakarrik (eta ez

batez ere hori, faxismoa agian bai). Iraultza, pentsakera bat, filosofi abat da. Eta berdin, ezarrita-ko ordenua. Horrela ikus dezake Découflé, esku-bide osoarekin, iraultza eta kontrairaultza, proiektu bat beste proiektu baten kontra. Guk pentsakera horixe estudiantuko dugu hemen, gaingiro-kitamalez.

Ohartuko zen irakurlea ez garela ari kontrako iraultza batetaz, iraultza baten kontrakoaz baizik.

## 7.1. Kontrairaultzaren barne-egiturak

Iraultza aldakuntza osoa bezala presentatzen bada, kontrairaultzaren jomuga eta jokabidea aldakaitasuna da. Dena geldu, sendo lehenari lotua, tradizioari atxikia, instituzioak bezala egiturak, ideiak bezala ustekariak. Iraultzak, loturak deseginik, noraez zoroaren itsasoan sartzen du jendea. Legorrari eusten dion dena, ongi ikusia da. Bistan da: segurtasuna eman dezakeen kriterio bakarra, tradizioa da.

Baina kontra-erreboluzioa lehenaren luzapen hutsa balitz, gaitz erdi. Aurkairaultza ez da inertziaz bakarrik bizi. Iraultzaren kontra txertatu, eztitu beharra dagoela pentsatzen du. Estruktura gero eta hitsiago eta gogorragoak eraikiko dituela esan nahi du horrek. Bere lehen midizina, legea eta ordenua dira. Gaitz guzien iturburua, iraultza da noski. Baina txertaturik egonik ere, legea eta ordenua desafiatuz, iraultza lanean has-

ten bada, zanpaketa, errepresioa da bere bigarren harma. Biolentzia zuria, dakikegunez, ez da gorria baino biguñagoa.

Ekibokoz beterik dagoela iraultza? Baietz uste du Découflé-k. Baina ez gutiago aurkairaultza.

*Betiko baliogoen jagole eta gordetzaile* bezala aurkezten da. Zibilizazio kristaua salbatu nahi izan zuen lehen, Frantziako kontzairaultzaren garaian. Kontrairaultza nazional-sozialistaren denboretan mendebaleko zibilizazioa salbatu nahi izan du. Eta orain, Asian eta Hego Ameriketako demokraziaren zibilizazioa begiratu nahi du.

Aisa uler daiteke, esandakoarekin, aurkairaultzak historiakotasunarekin izan dezakeen harremana. Ez da deus berririk, geroa ez da lehena baino hobea, kontrara baizik. Historiarekiko oinarritzko burutapena probidentzizalea da. Gertakariak (ez denek) Jainkoaren borondatea erakusten eta adierazten dute. Historiak Jainkoaren borondatea agertzen badu, deabruarena ere bai. Hona, adibidez, iraultza. Eta hain zuzen, historiaren kontra doalako da iraultza beti txarra.

Guzizkotasunarekin, unibertsaltasunarekin ez du deus ikustekorik. Zibilizazio kristaua, mendebaleko eta demokratiko bat nahi du. Bego. Baina kasu!, izen-laguntzaile horiek ez bait dira koalifikatibu, eta bai determinatibu. Gainontzeko zibilizazio-mota guzien ukapena nahi litzake. Ez dago hor unibertsaltasunik, ez pratikan eta ez

teorian. Baitipait, dakigunean, zibilizazio-mota horiek jabe nagusi guti batzuen faboretan direla.

Manikeismoa salatzen zaio iraultzari. Eta arrazoiz. Eta aurkaerreboluzioa? Découflé-ren us-tetan

Iraultza sarritan manikeismo hutsal batetaz kutsatua (...) baldin badago, kontrairaultza manikeismo orokor batetaz egina dago eta bere proiektorearen oinarrizko kategoria gisa arrazoinatua (1).

## 7.2. Kontrairaultzaren iritziak

Kontrairaultza iraultzari barnetik lotua dago. Eta hori ez gertakizun gisa bakarrik. Filosofia eta pentsakera bezala ere bai, eta bereiziki honela.

Kontrairaultzak iraultza nola epaitzen eta ulertzen duen ikertuko dugu.

### 7.21. «Jatorrizko bekatuaren fruitua da iraultza».

Zergatik iraultza? Gizonaren izakera bekatarriagatik. Denbora berean, ondorioa eta zantzua da. Animalia ezin daiteke aske utz. Sena eta grina, ondo lotu behar dira. Iraultza zer den? Grina txarra, erantzungo dizu Rougemont-eko Denis-ek. Eta harekin beste askok.

---

(1) Ikus aip. lib. 122 hor.

*Virus iraultzaileaz* mintzo dira holakoak.

Patologiazko fenomeno bat daiteke iraultza.

Iraultzaren kontra txertatu beharra dago, alde aurretik gertu egon behar. Eginbehar bat da. Iraultzak ekilibrio guzia deuseztu egiten bait du, bere baitan bait darama gizarte bizitzaren heriotza. Gizarte bizitzaren garantia, ordenua da. Bekatuak apurturiko ekilibrioa, ordenuak dakar atzera. Jainkoak (eta jainkoek) ordenazaleak dira. Joseph *de Maistre* famatuak *Considérations sur la France* liburuan zera idazten du:

gizonak ordenua ezartzen lanegiten duenean, ordenuaren egilearekin bategiten du, lagundu egiten dio naturalezak berak, hau da, Jainkoatasunaren ministro diren bigarrenengo kausak oro.

## 7.22. «*Iraultza biolentzia hutsa da*».

Biolentziarik gorriena, begiztagabeena da iraultza. Indarka itsu eta deuseztatzailea.

Gorrotoa, odol-ixuriketa, deuseztapena, desordenua, erresumina... hauek denak iraultzaren beste izen batzuk daitezke.

Kontrairaultzaileak ez du iraultzailea zertan ezagutu. Aurrez daki nolakoa den: bizarduna, hiltuna, maltzurra, frakasatua askotan, menturazalea, tipia eta meharra, inbidiak janda, odolzalea, ilunbetako gizona. Ikus hontaz, nahi izanez

gero, askoz gehiago, Crane Brinton-ek egiten duen azterketan (2).

Gure zibilizazioa uste eta nahi dugun baino askoz ere kutsatuagoa dago. Iraultza eta biolentzia berdinbaliozko eta sinonimo egiteraino ailegatu gara.

### 7.23. «Piztikeria da iraultza».

Kontrairaultzaileak kontzientzia ona ematen dio bere buruari, zeren eta, bere iritzian, aurrean dituen horiek ez dira gizonezkoak, animaliak baizik, otsoak, azeriak, zakur amorratuak...

Zoologiako hiztegia agor-ezina da hemen. Eta gehien erabiltzen direnak piztirik arriskutsuenak dira, edota lotsagarrienak (zapoak, harrak, zeriak...)

Iraultzan ez dago sekulan komunidaderik, artaldea baizik. Ez dago legerik ez federik, ez giza-sendimendurik. Basa-legea da nagusi. Iraultzaileak gizajaleak direla uste da, elkar janez dabilzela: *Parisen (Commune delakoaren iraultzaileak) elkar janez dabilzela esaten da. Eta seguru hala dela* (1871, maiatzak 6, George Sand-ek).

### 7.24. «Iraultza mito hutsa da»

Iraultza bi zentzutan litzateke mitoa.

---

(2) Ikus aip. lib. 121 hor .

Bateko, mito gisa funtzionatzen duelako, bihotzari deiegiten diolako eta ez buru hotzari, bere erakarmen indarragatik...

Eta besteko, iraultzako pentsakeraren barne-muina hizkuntza mitiko hutsa delako, R. Aron-en iritzirako, gonbarazio batez, iraultza marxista bat ez da sekulan egikaturikoa, burutapenetik bertatik delako mitikoa pentsakera hori.

Iraultzaren eta erlijioen mitozko estruktura, bat bera da: eskatologia, apokalipsia eta mesianismoa.

Iraultzak, Zoroastroren erlijioaren, iranismoaren eta judaismoaren mito nagusiak lapurtu eta sekulartu besterik ez du egiten.

Erreboluzio orotan mintzatzen da «hobengabeko egoera batetaz», «paradisuz», «Mesias Salbatzaileaz» (pertsona nahiz talde bat), behinbetiko Erospen eta Salbamenaz. Inglaterrako iraultza *Jainkoaren erreinuaz* mintzo da; Frantziakoa, *justiziaren erreinuaz*; Errusiakoa, *gizonarekiko baliapenez askaturiko gizonaren erreinuaz* eta *bere buruarekin adiskideturiko gizatasunarenaz*.

Pentsaera mitikoa dateke, bada, iraultza.

#### 4.25. «Iraultza ilunbetako lana da»

Norbaitek aspaldi esan zuen, ilunbetako semea argitakoa baino argiagoa dela. Arrazoia ha-

rena, izan ere lekurik santuenetan ere iraultzailer horiek sarturik ikusten ditugu.

Iraultza, jakina denez, konplot zikin baten fruitua da, ilunbetan asmatua. Iraultzaileak ezin lezake argitan lan egin. Ilunbetako semea da.

Konplot honen buruzagitzan alderdi klandestino bat dago, terrorista talde bat. Arrisku horitatik gerizatzeko, ezagutarazi, *desenmaskaratu*, salatu egin behar dira, argitara ekarri.

Herriak uste duen baino arrisku handiagoak dira. Horien azpian eta atzetik konplot internazional bat bait dago, gure zibilizazioa edo gure herria desegiteko zin eginaz lanean ari dena. Salaketarik bitxiena eta zabalduena, kanpotiarren eragina eta lana da. Jadanik ohituretan sartua ere badago.

68-ko Maiatzean, Frantzian, gauza bera ikusi zela dio *Michel de Certeau* jaunak (3):

...Estudianteak, *gure* estudianteak, *izatera* deituak (baina bihar bakarrik *izatera*), ongi osaturiko talde hautatu hori borrokara ateratzea... hona jasan-ezina, hona azpikoz gora – barnetik – gizartea harrapatzen zuena. Amenazo honi itxura biguñagoa eta esplika-errazagoa eman *behar* ziztaion. Kanpotik zetorren, behar zuen, gauza normala. Hori defendatzen saiatu da propagan-

---

(3) Ikus "Pour une nouvelle culture: le pouvoir de parler", in *Etudes*, 1968, urria, 393 hor.

da... Atzerritarrak salatu ditu, zital-talde bat, Sorbonako katangarrak...; *gu* ez den etsai baten gainera bota behar zuen errua; aspaldiko joera zahar baten bidea hartu du, sorginak asmatu, gero haien ihizean ibiltzeko. Dena esplikatzzen zen *gure semeak* biktima ziren taldetxo batzuen bidez. Edota: Txinatik zetorren, dena... Mehatxu garaietan beti, Frantzian, ongi erantzun ohi duten irudiak biztu ziren: antisemitismoa, *chauvinisme* antialemana, etc.

**IRAULTZA BERRIAREN  
ZANTZUAK**

## 1. Gizarte berriari borroka berriak

68 Maiatza estu-  
diatu du A. Touraine jaunak. Eta garai bereko  
beste borroka zenbaitekin lotuz, hor denean gi-  
zarte-borroka berri bat antzematen du:

Oraingo borroka ez da zuzen zuzenik ekono-  
miazkoa... Frantses estudiantetek, eta berdin Ber-  
lingoek edo Berkeleykoek, integrazio, manipula-  
zio eta agresiozko tresnagailuen kontrako borro-  
kara jo dute. Hitz hauek, esplotazioarenak baino  
hobekiago zentzumugatzen dute borrokaren gu-

nea. Borroka, bada, bereziki ekonomiazkoa baino areago sozial, kulturazko eta politikazkoa da (1).

Alain Tourainek azpi-azpitik aztertu nahi izan du borroka hori. Hauziperatzen denaren garrantziaz horrela bakarrik kontura daiteke. Gaurko borrokatan, «iceberg» delakoaren goi alde a soilki ikusten du askok, urpean izkutaturik eta gainaren mogimendu bera daraman % 90 ahantzirik.

Gaurko krisia ez da axalekoa. Sakona da. Haustura nahia sekulan baino biziagoa da. Zibilizazio krisiaz mintzo da Malraux. Eta Garaudy, eta Jacques Monod, eta Domenach, eta beste mila.

Belaunaldi-borrokarekin dena esplikatu nahi izatea, hain zuzen gazteriaren eskabidea fisik ez ulertzea da. Ezaguna da zenbaiten maliobra: bai, gazteria betidanik da egonezina, adinak darama hori odolaren bizitasunean, eta bla-bla-bla. Asmoa badakigu: normala, betikoa, «biologikoa» dela erakutsiz... inportantzia kendu. Konklusioa, logika hutsean, «deus berririk ez dago eguzki-pean» dateke.

Alde edo kontra egon, krisiari aurrez aurre begiratu behar diogu. Eta krisi hori gaurko historia-unean ikusi behar da, ez historiatik kanpo. Horrela, nere ustetan, krisi hau ez da besteak bezalakoa, baizik bestelakoa.

---

(1) TOURAINE, Alain: *Le mouvement de mai ou le communisme utopique*, Ed. du Seuil, Paris 1968, 14 or.

Funtsa aztertu aurretik, berezitasun zenbaitez ohartzea ez da alferrik izango:

- Gure gizarte-modua gehienbat hauziperatzen duena, gazteria da. Eta gazteria, munduaren erdia da egun. Frantziako erdia, 25 miloe, 30 urtetik beherakoa da. Erresuma Batuetan, herraren erdiak 25 urtetik behera du. Txinatarren erdiak, 21 urtetik behera. D. Gabor profesorearen ustez, Gizadiaren erdiak 20 urtetik behera du.
- Gazteria honek, bere bizitzarekin, idatzigabeko legeekin, kontra-gizarte bat, antikultura bat sortzen du han eta hemen. Gure baliogo-hierarkia guzia ankaz gora botatzen du. Instituzioak berdin.

Gazteriaren haserrea, osoa da: kapitalismoaren kontradizioen aurkakoa, eta berdin bulgokrazia eta despotismo sozialistaren kontra.

- Gaur taxutzen ari den aldakuntzari gonbarazio bat historian bilatzea ez da gauza erraza, Garaudyren ustetan (2). Izan ere, XX mende erditik aurrera egin diren ordinatoreen, atomozko indarraren, telebistaren aurrerapenek, XVIII mende hondarretan bapore-makinarekin edo Errenazimenduan inprentarekin gertatutako aintzinamenduekin ikustekorik guti

---

(2) GARAUDY, Roger: *L'Alternative*, Ed. Laffont, Paris, 1972, 20-22 or.

dute. Askoz ere bortitzagoa da oraingo aldakuntza, zibilizazio berri baten jaiotzaren tankera duelarik, orainarteko zibilizazioaren has tapenean lur-lantzea, idazten ikastea, gurdia, errobeda, etabar izan diren erara.

Neolitiko garaitik hona ez omen da horren al daketa nagusirik lurrean gertatu. Holanola:

— gizonen lekuz-aldatzearen azkartasuna. Egiptoko lehen faraoiak, Alejandro, Zesar eta Napoleon, mendeak eta mendeak tartean izan arren, abiada berean mogitzen ziren, zaldien martxan. Eta orain hots-xistuaren abiada iragan du *Concorde*-k.

— ezagutzapenaren desarroiloa. UNESCOren kontu-emate sonatu batek ongi markatu zuen zibilizazioaren hastapenetik bizi izan diren jakintsu guzieta rik % 90 bizirik direla gaur.

Gaur jaio den haur bat Unibertsidatetik ateratzen denerako, Gizadiaren ezagutzapenak lau aldiz garrantzizkoagoak dira. Eta haur horrek 50 urte dituelarik, dakienaren % 97 jaioz geroztik asmatua izanen bide da.

Gazteria hautsiune eta giro honetantxe jaio da. Lehena prehistoria gisa epaitzea harritzeko ahal da?

## 1.1. Asmamena agintera!

68 Maiatzean, Pariseko hormatan, dei-hots hau irakur zitekeen. Eta garrasi hau ez da, gerora ikusi denez, orduan gobernamentuan zegoen taldearen kontrakoa bakarrik. Instituzio-modu guzien kritika da. Iraultza ez bait da baitipait agintea hartzea (eta aldatzea), baizik eta herria —langilea— bere bizitzako eremu guzietan autonomia hartzera daraman prozesoa.

Aginteaz mesfidantza ukaezina du gazteriak. Sinesgogorregi da, promesatan fidatzeko. *Gu agintean izango geranean, ikusiko duzue nola gauzak aldatuko diren.* Mitterrand eta Marchais jaunei, historia aterako die eskeptizismoa justifikatzeko.

Bestalde, gazteria gero eta gutiago sartzen da organizazioetan. Frantzian, esate baterako, (Garaudyren zenbakiekin) ehun mila gazte baino gutiago dago politikazki antolaturik. Eta hori, izateko moduan, bost bat miloi legokeelarik; hau da, % 2.

Zer adierazi nahi ote den?

Politikaren arbuiapena? Ez dugu uste. Hain zuzen, giro beretan dena dela «politika» esan ohi da. Kultura talde guziek politikara jotzen dute azkenean, berdin erlijiozkoek.

Baina hona!, gazteriak ez du politikarrik egin

nahi orainarteko antolaketa tradizionaletan. Fenomenu ezagun honi bi adierazbide bila dakiok:

- bat, gaurko politikazko partiduetan ez dago benetako alternatibarik. Esan nahi bait da, politika alderdien etsaitasuna ez dela helburuen mailan, bideen, medioen mailan baizik. Hauteskunde batzuen aurrean politika alderdiek egiten dituzten proposamenduak ikusi besterik ez dago: gauza bera nork hobeago egin, hori da eztabaidagai guzia. Funtsean, ekonomiazko hazkuntza eta kontsumo-maila igotzea besteak baino hobe egin baietz, hori da apostuan jartzen dena. Eta apostu horrek ez du gazteriarentzat lilurarik, helburu horietxetaz sortu da-ta eztabaida. (Hontaz gero gehiago).
- eta bi, tradiziozko politikagintza hortan, agintea bera ez delako hauzitan jartzen. Aginte-indarrak edo aginte-gizonak aldatzeak du munta haientzat, baina gazteriak dioena da talde batetik beste batetara gobernamentua igarotzearekin ere gizabanakoak bere agintea eta erabaki-nahia aparato bati delegatzen diola. Dualismoak hautsi gabe jarraitzen du: zuzendariak batetik, zuzenduak bestetik; aparatoak pentsatzen eta erabakitzen du beti, besteen izenean, «herriaren» izenean.

*Demokrazia zuzena, direktoa* eskatzea, dualismoa ezabatu nahia da. Autogestioa, dezentralizazioa, «langile-kontseilua» proposatzea, dualismoa hautsiz, gizonaren bizitzari eta lanari bere giza-dimentsioa ematea da.

Gazteriak gogotik salatzen du dogmakoikeria, ortodoxia, klerikalismoa, bulegokrazia, etabar.

Nola irakur daiteke salakuntza hau?

Batzuek hor anarkia-zaletasuna, nihilismoa, utopismo antzua, ukapen hutsa besterik ez dute ikusten. Ezpairik ez, gaurko ezkertiarren proposamenduetan denetarik bada: utopia, idealismoa, Proudhom-zaletasuna, anarko-sindikalismoa, Marx-zaletasuna, Rousseau-zaletasuna, Rosa Luxemburgo-zaletasuna, etab. Ong iikusten ez dudana da zergatik fenomeno hau besterik gabe arbuiatzen duten askok. Nire ustez, fenomeno honek halako sentikortasun berri bat, bilakuntza berri bat, nahikunde berri bat adierazten du, eta hori inportantea da.

Eta gainera, ukapen hutsa dela mogimendu hau? Hala balitz ere, ukapena *a contrario* irakurri besterik ez genuke, ukapen hutsik ez dagoela antzemateko. Nago, bati baino gehiagori ez ote zaion gertatzen Txinako esakuntzaren leloari bezala: *Behatzak hilargia markatzen duenean, behatzari begiratzen dio leloak.*

Hitz batetan bil-laburtu behar banitu gazteriarren borroka eta bilaketa horiek, honela egingo nuke: gazteen arabera, *alienazioaren kontrakoa, kreazioa da. Kreazioa da alienazioaren antidotoa-*

## 1.2. Elizatik kanpo

Gazteria gero eta gutiago dator elizara. Horrek ez du esan nahi, halere, sinesten ez duenik. Hala diote behintzat. Dena dela, eliz-agintarientzat ez dago dudarik: Elizatik kanpora ez dago salbamenik.

Hemen, Eliza ez da kristau-eliza, politikazko partidua baizik.

Elizaren eta Alderdiaren arteko gonbarazio hau gero eta sarriago ikusten da. Annie Krieggel-ek, eskolaldi batetan, kontuz ibili behar dela esan zigun. Baina berak ere Frantziako Alderdi Komunista (P.C.F.) aztertzen duenean, erlijiozko hiztegia darabil sarritan (3).

Guk hemen, gazteriak egin ohi duen kritika-eredu gisa, FM-ek (4) eginikako lanaz baliatuko gara. PCF etsenplu baliagarritzat hartzen dugu, ez bakartzat (5).

---

(3) Ikus *Les communistes français*, Seuil, Paris, 1968.

(4) FRERES DU MONDE: *Voie révolutionnaire et organisations*, 65 zenb., Bordeaux, 1970.

(5) Ohar bat egin behar da hemen, gerorako ere balioko duena. Bistan da ezkerre, politikan, sozialismotik pasatzen dela, Rikardo Arregik dioenez (JAKIN: *Rikardo Arregi*, or. 103). Halere, Europako politika-giroa ikusiaz, ematen du ezker berriarentzako etsairik amorratuena ezker klasikoa dela, baitipait AK. Eta berdin alderantzira. Bien arteko diferentziak biziki handiak direla ukatu gabe ere, ez da ahortzi behar badutela biek arerio komun bat, kapitalismoa deitzen dena. Hori dela-ta, ezker berriarentzako, AK-ren kontra borrokatzeak

Zer salatzen zaio bada politikazko organizazioari? Hona, labur emanik, kritika batzuk:

- politikazko antolamenduak jokabide erlijiozkoa du, hots, barnetik izpiritu kritiko oro aldentzen duena, egiaren monopolioan sinesturik. Eta horrela, politika-organizazioak begiak ireki beharrean, hautsa botatzen du begietara; errealidadearen benetako kontraesanak ikusten erakutsi beharrean, dotrinaren dotrinaz, ideologiaren dogmatismoaz, ortodosiaren hitsikeriaz itsutu egiten du jendea. Eta dogmak ez ikutzearren, Inkisizioa sortzea, hots, «epaiketak» eta «garbiketak».

*Alderditik kanpora ez dagoela salbamenik* uste izatea, «gauchiste» direlakoak hereje bezala kondenatuz.

- ideia eta helburu batzuk errealidadean hezurmamitzeko jaio arren, denboraren poderioan, helburuen erdiestea baino organizazio eustea hoberiztea. Praxiaren berotasuna baino liburuaren hoztasuna bizikiago maitatzea eta zientziazkoagotzat jotzea. Behetik datozkeen inizatiba guzien mesfidantza. Klerikalismoa: apaiz nagusiek, buruzagiek izatea beti azken hitza eta erabaki-ahalmena, eta haien esanetara beti gertu egon beharra. Nagusia kritikatzeko, sakrilegioa da: nagusia ikutzen duenak, Eliza osoa, Alderdi osoa ikutzen du.
- gizarte-modu monarkikoa izatea, hierarkiazkoa eta piramide eitekoa. Egiaren, interpretaketa zuzenaren, iturburua goian dago. Agintea goitik behera dator. Dotrina zuzena ote den, praxia nolakoa behar den, hori dena goian erabakitzen da.

---

ez du inolaz ere kapitalismoaren alde deus adierazi nahi. (Esan beharra zegoen hau, ezkerren barneko borroka pozten dituen eskuindarren ilusioak oro ezabatzeko).

– bitartekotasuna. Alderdiak zubiarena egiten du, fondatzailearen eta herri jarraitzailearen artean. Fondatzailearen eta herriaren izenean hitzeginaz. Fondatzailearen eta herriaren iritzi zuzena eta egokia interpretatuz.

Profetismoa eta karismak baztertu egiten dira, ukatzen ez direnean.

Askatasun eta librakuntza-nahiek organizazioaren, «aparatoaren» bitartekotzatik igaro behar dute, egiazkoak badira. Gainontzeko guzia, abenturismoa, espontaneismo arriskutsua, nobizioen buruberokeria da.

Kritika hauetan ere lehengo gauza bera nabari da. Ortodosia, hierarkia, dogmakoikeria, erdi-koikeria (errealidade oro edo leku batean, edo pertsona batengan, edo dotrina batetan bildu beharra)... salatzen da. Eta bidenabar, inizatiba, sortzailetasuna, kreatzailetasuna, lekuan lekuko borroka, behetik gorako agintemodua, praxiatik eta herriaren beharkizun konkretuetatik hasi beharra... auspotzen.

### 1.3. Munduko hiritar

Txokokeria guzien aurka, unibertsaltasunaren alde jokatzea, ezkertiarren betiko joera izan da. Iraultzaren bihotza da.

Bestalde, beti izan du ezkertiarrek bere baitan pertsonaren defentsa, dela agintearen kontra, dela egituren kontra, dela azken aldi hontan, sasi-unibertsalismoaren aurka, libertadearen izenean.

Bi joera elkar ukatzaile? Ukatzaile ez baina ezkongaitzak bai, historiari begiratzen badiogu. Gaur ere, alde batetik partikulartasuna balioztatu nahiz, eta bestetik baliogo unibertsalezko gai baten atxikimenduari eutsi nahiz, lanak ditu ezkerak. Halere, Jean Marie Domenach jaunarekin (6) hori dela gaurko ezkeraren joera pentsatzen dut. Komentzitzeko, ezkertiar ez dogmatikoen edozein aldizkari irakurtzea aski da:

- bateko, askatasunak oro aupatzen dira: psikearena, seksuarena, kulturazkoa, eskualdearena...
- eta besteko, orokortasun eitea duen zanpake-ta-mota baten kontrako borroka askatzailea (langilegoarena, gehienetan) azpimarkatzen da...
- bateko, emakumezkoak, homosexualak, beltzak, eskualde bakoitzak, etnia bakoitzak bere «liberaziozko mogimendua» du...
- eta besteko, klase borrokatik igaro behar duela edozein borroka eta borroka oro predikatatu ohi da...

Beste ikuspuntu batetik begiraturik ere, edozein gizonen jokabidea nola bitarutzen den ikus daiteke: gizonak harro bere burua munduko hiritar bezala jotzen du, eta gero tamainu gizon-gisazko gizartea eskatzen du. Gizonak hurbil senditzen du, komunikabide azkarrei esker, edozein

---

(6) Ikus "Propositions", in *Esprit*, urria, 1971, 362 or.

mundu-alderdi. Eta bestalde, gero eta erro sendoagoak behar dituela konturatzen da. Guillou jauna, gaurko gizonaren kontzientzia pangizatiarraz, planetarioaz eta sujetuzkotasunaren beharraz, mintzo da.

Baina lot gakizkion utzitako hariari, bigarren puntu bat ikusteko.

Bada herri hazietako gazteengan identitate krisi bat, eta beraz propiotasunaren bilaketa berri bat. Ameriketara bezala Europan. Bada monokulturaren aurkako erreakzio bat. Monokulturak, odol-ahaidetasunak bezala, eskastu, sortzailetasuna antzutu egiten duela frogatzen da, edo uste da. Monokultura handi eta ospetsu horren aldarean gainontzeko kultura tipi guziak opaldu behar direla uste dutenak ez dira falta.

Ezkerra, herri tipien, kultura zapalduen defentsatik pentsatzen da gaur. Eskerrak ez du teknikazko zibilizazioa hauziperatzen, tradizio atzerakoia, arbasoen ohitura zaharrak aldezteagatik. Ez lehenaren izenean, etorkizunarenean baizik. Hain zuzen hor dagoelako, uniformizazioaren antidoto, *kreatzailetasun-gunea*. Iniziatibaren, sortzailetasunaren, gizongisazko gizartearen bilaketan, Marcuserekin batera salatzen ditu ezkerrek «uniformisation» eta «standartisation» direlakoak, eta Sartrearekin batera «sérialité» delakoa (7).

---

(7) Hontaz gehiago nahi duenak, interesarekin irakurriko du "Ferments révolutionnaires", in *Frères du Monde*, 70, Bordeaux 1971, baitipait 44-62 orrialdeak.

#### 1.4. «Gauza bat bakarrik beharrezko: DENA!»

Jacques Berque jaunak gaurko joera berri hauek ulertu egin nahi izan ditu. Langile borroka bezala deskoloniapena.

Eta lehen begi-kolpez ikusi du, liberazioaz mintzo dela gazteria. Liberazioaz eta deskoloniapenaz, halanola, emakumearena, eskualdearena, nazioarena, kulturarena, pertsonarena. Gazteriak hemen salatzen duena, Berqueren hipotesian, berdinketa-gogo hori da, alegia, errealidade guziak molde eta eredu bakar batzuetara bildu nahi izatea: nazioak Mendebaleko zibilizazio-motara, kultura tipiak kultura nagusi horietara, emakumea gizonak egindako gizartera. Berdinkuntza-saiaera hortan ikusiko lukete askok alienazio-iturburua.

Egindako analisiaren arabera, liberazio-desirkundeak oro hirurko batetan bil daitezkeela uste du Berque jaunak:

- *gizabanakoaren askagintza*; esistentzia liberatu bere burua liberatuz, esango genuke.
- *taldearen askagintza*; talderik tipiena ere bere buruaren jabe izanez, eta ez edo goikoaren edo giroaren oihartzun.
- *kulturaren askagintza*, azkenik, (kultura zentzu antropologikoan ulerturik),

askatasun hau, horrela, bizi-moldearena eta izan-moldearena izanen litzake.

Abantail ez tipia du eskema gisako honek: osotasuna du kontuan. Osotasun hauxe dateke hain zuzen ezkertiar berrien berezitasun nabarmentariko bat. Pontutxo bat eta bestea ikutuz adabakitan ibiltzeko bokaziorik ez du gazteriak. Zer nahi duen?: dena! Zer aldatu behar den?: dena! Guzizkotasun hau dela-ta, iraultzaren tradiziorik garbienari lotzen dira Pariseko 68 Maiaitzeko eta gisakoak.

Jean-Michel Gauthron-ek ongi adierazten du kontzientzia honen testigutza, dioenean:

gaur politika-ekintzaile batzuk horren kontzientzia sendoa dute, hots, ekonomiazko harremanak, produzio edo kontsumo molde bat aldatzea ez dela kontua, DENA iraultzea baizik.

*Changer le monde et la vie*, bizitza eta mundua aldatu behar dela diote beste batzuk, gauza bera adierazteko. Edo nahi bada, estrukturak eta pertsonak, biak batera, kanbiatu behar direla. *La Révolution sera totale ou ne sera pas*, iraultza, baldin osoa ez bada, ez dago iraultzarik, idazten dute «Noir et Rouge» aldizkari anarkiazalekoek, honela adierazbidetuz: *nahi den iraultzak ez du askirik gizarte-egiturak aldatzearekin. Kontzientzia transformatzeko lana dago-kio* (8).

---

(8) Ikus *Les "gauchistes"*, in *La Nef*, 48, 122 or.

Honek denak badu izen bat: *kultur iraultza*.

## 1.5. Asetuen iraultza

Hona progresoaren laztanak progresoa hauzitan jartzen.

Ekonomiazko progresoa ez omen da beti giza progresoa. Gizonaren desarroilo bezala barik zientziazko eta teknikazkoa bezala definitzen omen da aurrerapena. Gehiago oraindik: ekonomiazko progresoaren aldarean opaltzen omen da gizonaren progresoa.

Progresoaren laztanok, kantidadeari kalidadea kontrajartzen diote, «zentzurik-ezaren zibilizazioari» (*civilisation du non-sens*, Guillou) zentzuaren bilaketa larria; makinari, gizona; gizar-tearen etorkizun bidezko eta zihurrari, gizartegintza berri baten esperantza amorratua; edukitzeari, izatea; alienazioari, sortzailetasuna; berdinkerari, nortasunaren baieztapena. Hau dena eta gehiago dabil gazteriaren buru-bihotzetan. Eta hori hippy-etatik hasi, kontestatario eta hasarretu guzietan igaroaz, ezker berri puntaraino.

Charles Fourier jaunak zalantza sarrerazi behar zaiola gizar-teari (*il faut appliquer le doute à la civilisation*) proposatzen zuen. Duda bakarririk ez baino leher-ziria sartzen zaio gaur gizar-tegintzari bezala produzio-gintzari. Zer salaten zaion?

- produzioaren eta kontsumatzearen gaurko orientazioak, mintzatzeko, kreatori, maitatzeko, hitz batean, bizitzeko, ahalmenak antzutu egiten dituela.
- gaurko produzio-xedeak, giza-taldeak, gizarte-taldeak, klaseak, endak eta kontinenteak hazien eta ez-hazien arteko zuloa nagusiagotu egiten duela.
- gaurko produzio-bideak gizarteari kalte eta ondoez anitz dakarkiola, baitipait ondasunak alferrik galtzea, jendea bezala ondasunak leku batetan pilatzea, poluzioa, hirigiroa eta izadia deuseztea.

Gizarte-aztertzaile zenbait, iraultza-mota berri hau koalifikatu nahiz, aberatsen iraultzaz, asetuen iraultzaz, lantegiztapen-ondoko iraultzaz mintzo da.

Aberatsen eta asetuen iraultza dela esanaz, bi gauza adierazi nahi da: batzuen ustez, Mendebaleko iraultza dela; eta beste batzuen ustez, deus falta ez zaien aitaren seme politena eta intelektualena dela.

Bai, guk iraultzailatzat dugu geure burua. Bai, gizartearen transformaketa osoa nahi dugu. Bai, gutako batzuk – historian sekula baino ugariago – bizitzera *beharturiko* moduz hain higuindurik gaude, ezen egun guziak hitzeginaz, irakuriaz, plangintzaz igarotzen ditugu, iraultza egiteko asmoz.

Eta halere, gutako gehienok behintzat, gizarte-er-

tzean ameslari, burgesagotik irtenak, zuriak eta ikasiak, lehen baino konfort handiagoan bizitzeko behar den guzia badugu. Higitzeko, aldegitoko, han eta hemen ibiltzeko askatasun gehiago badugu. Seksu-libertade gehiago dugu. Esan nahi duguna esateko lehen baino askatasun gehiago dugu, etsai bezala erabiltzen eta deuseztatu nahi dugun gizarte kapitalista aurreratuan berderen. Beraz, zergatik nahi dugu iraultza? Eta nolako iraultza? Eta zer egingo genuke hartaz?... (9)

Zer esan hontaz? Ortodoso zenbaitentzako ahulezia besterik ez dagoke hemen. Nik, halere, kontuan eduki behar den zenbait egia agertu nahi nuke. Ez da ahortzi behar ez miseriak ez zorigaiztoak duela automatikoki iraultza ekartzen; ez eta *zientifikoki* sozialismoaren beharra erakutsi zaiolako, ondoriobidez, inor ez dela derrefentente iraultzaile bilakatzen. Esan dugu proiektoa dela iraultzaren bihotza eta motorra. Eta proiektu hau ez dago historiatik kanpora eratua eta elaboratua. Aldian aldiko kontraesanak dute proiektua taxutzen.

Interesgarri iruditzen zait hontaz Maoren «Kontradizioaz», baitipait kontradizioaren guna eta kontradizio hortan bertan dauden aldiak eta etapak bereizten dituelako, frogatuz kontradizio nagusi bat bigarrenko bilaka daitekeela memento batzutan, etab. Dogma baten barnean errealdadea sarrarazi nahi ez badugu behintzat, nerezat garbi dago aldian aldiko kontradizio eta

---

(9) GERASSI, John: "Vivre la Révolution", in *Les Temps Modernes* 276.

arazoketa desberdinak sortzen direla. Gehiago oraindik: aldian aldikoak eta lekuan lekukoak. Horregatik, printzipio bat berarekin dena esplikatu nahi izatea eta iraultza-ordu bat erabakiz mundu guzia zutik jarri nahi izatea, monismorik txarrena iruditzen zait. Euskal Herrian eta Madagaskar-en borroka-gaiak eta borroka-indariak ez dira berdinak.

Ohar hauen argitan uler daiteke, nere ustez, «herri aberatsetan» sortu den borroka. Eta ados nago J. L. L. Arangurenekin, hau dioenean:

(...) Azkenik, «kontestazioa» gizon *osoaren* alde egiten da, bizimodu osoan harturik. Iraultzaren ulertzapen hontan, URSS-en eta Mendebalean *krisian* sartu den bizitzaren era kolektibuaren ukapen bezala, alegia, politikazko edo sozial edo ekonomiazko helburuak bakarrik bilatzen dituzten iraultzek eskas dirudite, nahiz eta ia seguru atzeratutako egoera kolektibuentzako beharrezko izan etapa probisional bezala (10).

---

(10) Ikus aip. lib., 73 or.

## 2. Ekologiatik iraultzara

Jean Daniel, *Nouvel Observateur* asteroko ezkertiarren zuzendariaren iritzian, 1972-a ekologiaren kontzientzia hartzearen urtea izan da Frantzian. Europa osoan ere, uste dudanez, berrikitan ageri izan da, bizi bizian bederen, ekologiaren arazo hau mahain gainera.

Kontzientzia ekologikoa zer den? Gizona «sistema» batetan dagoela, honekin dialektikazki loturik. Esan nahi bait da, «ingurua» deitzen den

hori, naturaleza, *ekosistima* bat dela, hots, animaliak bezala landareak, dena, elkarrekin loturik dagoela, batasun bizi batetan, etengabeko harremanetan sareturik. Antropozentrismoari antropo-egoismoa deitzen dio zenbaitek. Gizadiaren eta gizakumearen etorkizunerako garrantzi erabakitzailea bait du, orainarte baino askoz gehiago kontuan hartu beharko du gizonak bera bakarrik ez dagoela munduan eta ez diola berdin bere ingurua desegitea. Animalia-mundua, landare-mundua, sistima ekologikoaren elementu beharrezkoak dira. Elementu baten desagertzeak desekilibrioa dakar betiere. Esaterako, uraren zikin-tzeak ondorio ikaragarri kaltegarriak ekar litza-ke, etorkizun hurbil batetan ez bada ere luzarora.

Pogresoaren gaurko ulertzapena hauzitan jartzerraino datoz batzuk, ekologiaren arazo honen kontzientzia hartzetik hasita. Ikusten duguna da —diote hauek— gizonak, progresoaren izenean eta makinaren bidez, izadi guzia desegin behar duela, ura usteldurik dugu, haizea zikindurik, lehen-materia asko agortzen doaz. Eta zalantza larri batez amaitzen dute: gaurko abaila hontan gizonaren etorkizuna posible ahal da?

Europar ekologiako kontzientzia hau politikazko arazo bezala baitipait sartu da. Problema horren kontzientzia hartzerakoan, gutienek hartu dute beatnik eta hippyen bidea gure artean; gizartetik ihes egitea ez baino gizarte horixe aldatzea dela inportantea uste da. Gizartea aldatu,

bai, eta erabat gainera: oinarriak bezala helburuak.

Gizartea xede eta helburu berri batzuetara gidatu behar da, izadiaren eta gizadiaren etorkizuna segurtatu nahi badugu, esaten da. Baina, gizarteari helburu berriak ezartzea posible ahal da kapitalismoa eta interesaren bilakuntzan oinarritzen den sistema batetan? Ezetz uste da.

Bestalde, sozialismo klasikoa gizarte berri (ez berritu) baten benetako alternatiba izan ote daiteke? Herri sozialista deitu horietan ere gaitz bera ez ote dugu ikusten? Hemen iritziak bitarturik ikusten ditugu, batzuentzat gaitza industria-gintzari berari josi behar zaio; eta beste batzuentzat, sozialismoaren historiako eta geografiazko ahulezia probisional bat izan da soilik. Beste era batera esanik, honen ustez gaitza desarroilo-moduarena da, eta haren ustez desarroiloaren bera-rena.

## 2.1. S.O.S.: lurra bortxatzen!

Lur Amak birjintasuna aspaldi galdua du.

Orainarteko politikarekin jarraituz, jakintsuek dioskute lurraren lehen-aberastasunek ez dutela luzaro iraungo. Berriak bila ditzakeela gizonak? Zalantzarik gabe. Baina noiz arte luza ote daiteke itxaropen hori?

Gure izadia gero eta zikinago dago. Poluzioa-

ren arazoa. Erresuma Batuek urtero ehundaka miloi tonelada ematen dute ketan eta gas pozoinduetan; errauts eta hondakin mila-miloika tonelada; ur beroa, ehundaka miloi metro kubiko; eta gainera, 7 miloi automobil-hondakin; 20 miloi tonelada paper botaturik; 50 mila miloi kontserba-ontzi husturik; 26 mila miloi botela... (1).

Uraren problema, ikaratzeko moduko da. Bi mila metrotara igo beharra dago ur garbia zer den jakiteko. Piriniotan ibili denak badu horren berri, ez Tolosan bizi denak (2).

Errekak, ibaiak, itsasoak, pozoindurik, kirasurik daude, edo izateko arriskuan edo bidean. Erradioaktiko-ekaiak, kimikazko produktoak, detergenteak, insektizidak, ez dute errekaren eta itsasoaren edertasuna galerazten bakarrik, baidetik eta batez ere fauna eta flora guzia erretzen, hiltzen eta alferrik-galtzen.

Bestalde, gizonak gero eta ur gehiago behar du bizitzeko. Mende erdi bat dela, europearrak eguneko hamabi bat litro bakarrik behar omen

---

(1) Ikus ELGOZY, Georges: *Les damnés de l'opulence*, Calmann-Lévy, Paris 1970, 142 or.

(2) Nere adiskide bati gertatuak ongi erakus dezake diodana. Amorraiketean doala dio aitak 6 urteko mutikoari. Amorraia zer den galdetzen dio semeak. Eta aitak: *errekako arraina. Puf* —dio semeak iguin-keinua eginaz— *ez dut jango nik behintzat!* Tolosako Oria ezagutzen zuen semeak, eta erreka guziak horren zikin zirela pentsatzen. Amorraina ez baino arratoia ikusten zuen Orian mutikoak.

zuen. Egun, ostera, ia bostehun behar du. Eta amerikarrak hiru bider gehiago.

Ura garbi litekeela? Bai, baina Erresuma Batuetan ur-garbiketa 25 mila miloi dolarretik gora gostatuko omen litzake, hots, Frantziako 1971-ko presupostu osoa hainbat.

Eta airearen etorkizuna ez da hobea. Londresen, 1952-an, behe lainoaren eta kearen nahasteak lau mila pertsona hil zituen (3).

Eta Parise ondoko Fontainebleau arboladian airezko metro kubikoko 50 mila mikrobio kontatzen den artean, Pariseko karrika nagusietan 600 milatik gora dago. Atmosferaren zikinkeriak, gaxotasunak, bronkitis, biriketako minbizia, etab... dakartzela nork zalantzan jarri?

Holandako jakintsu zenbaitek hirietako jendetzaren eta biriketako minbiziaren artean sarritasun-lege bat bilatu bide du: ehun milako hirietan bas-herrietan baino bi aldiz minbizi gehiago dagoke.

Vietnam-eko gerran ameriketarrek egin duten hobenik beltzena ez da agian Hegoko gobernamentuari laguntzea eta hainbeste jende hiltzea, baizik eta «napalm» eta gainontzeko bonba-mota horiekin hango jende, animalia eta landareen ekilibrioa apurtuaz, erreaz, etorkizuna gaiztotzea. Marcusek dioenez, ez dute bizia hiltzarekin aski

---

(3) Ibidem, 136 or.

izan: jaiogabeei ere bizimodua edo gaiztotu edo debekatu egin behar!

Jean Rostand-ek dioenez:

Lehertzapen nuklearrek hil baino ere zerbait okerrago egiten dute. Bizitza gaistoa prestatzen dute; beti eta beti ernean joango diren hazi gaistoak sartzen dituzte gorputzean.

Eta hori, giza-batasunaren ekilibrio-legeak oro galerazteraino. Kimikazko eta bakteriologiako harmen ondorioak neurtzeko goiz da oraindik. Geroak du hitza.

Gure biosfera galzorian dago!

Bizi-iturrietan pozoina sartzen ari gara. Lurra, ura, laster airea, diruaren trukee rosi beharko ditugu. Eta horietxek ere negozio-bide bihurtuko! Fenomenu honen zentzugabekeriaz ohartu beharra dago.

Ekosistimak hau erakusten du: gizonak harreman beharrezkoa duela inguruarekin. Gaurko hazkuntza, bada, ekosistema deseginaz zibilizazioaren autodeusezte da.

Ekonomiazko, industriazko hazkuntza egile (irakur ongile) bezala ikusia izan da orain arte. Desegile ere badela ikusten hasteko ordua da.

Marcuseren ustez, zergatik ekologiaz axolatu? Lurraren bortxatzea, kontrairaultzaren alderdi funtsezko bat delako.

Eta Edgar Morin soziologoak dioenez, ekologi kontzientziak arazoaren funtseraino garamatzi Lurrean Biziaren arazoa, gizarte modernuarena, eta gizonaren geroarena konbanatuz, Mendebaleko zibilizazioaren bidea hauzitan ipini behar dela dio.

Izan ere, «gizonaren eta biziaren defentsarako Batzordeak» egin beharretan aurkitzeraino heldu gara.

## 2.2. Teknikazko arazoa ote?

Ekologiazko mogimendua, errekuperatua, «irabazia» izan dela Erresuma Batuetan dio Marcusek.

Kapitalismoak, «poluzioaren» arazo guzia problema teknikoa dela pentsatzen du. Eta horrekin bere geroa preparatzen. Michel Bosquet jaunarekin ikus dezagun nola (4):

Hazkuntzarik-eza bi arrazoigatik gerta daiteke: lehendabizi, politikazko erabaki bategatik, Mansholt-ek nahi lukeena. Eta bigarren, hazkuntza gelaraztea ekonomia kapitalistak berak eskatzen duelako.

Lehenengo pontua utopiatzat joaz, bigarren

---

(4) Ikus "Le débat du club de "L'OBS": ECOLOGIE ET REVOLUTION", in *Le Nouvel Observateur*, 397 zenbakia. Horko informazioak darabilzkit sail hontan.

posibletasunari lot gakizkion. Zer gertatuko litzake orduan? Talderik nagusienak, indartsuenak, aterako lirake irabazle, eta talde tipiak suntsitu egingen lirake. Poluzioaren kontrako borroka ez ditu monopolio boteretsuak ikaritzen. Hain zuzen, beraiek sortuko lituzkete poluzioa deusezteko teknika-gailuak, horrela produzio «garbiaren» monopolioa eginaz. Eta teknika-tresna berriok salduaz, etorkizuna segurtatua lukete. Esan nahi bait da, merkatu berria sortzen dela eta monopolio horietxek hartaz jabetuko direla. Eta orduan, naturalezaren kontra borrokatu beharrean, naturalezaren kapitaltzea gertatuko da.

Agian posibletasun honen zain dago gaurko monopolio zenbait. Dena dela esan-nahitsu da Volkswagen, Fiat eta Ford Foundation automobilaren monopolioak ordaindu dutela MIT-en estudioa jakitea (5).

Gisa hontako irtenbide batek bi gauza frogatuko luke. Alde batetik, bizi luzea duela kapitalismoak betiere kontradizioak bere erara garaitzen dituelako. Eta bestetik, horrek presuposatuko luke ekologiaren arazoak teknikazko soluzioa duelako. Bietan, bada, soluzioa sistimak berak luke.

Edward Goldsmith-ek ez du hola pentsatzen.

---

(5) Erromako Club delakoak eskaturik Massachusetts Institute of Technology (MIT) batasunak estudio bat egin du, etorkizuna nolakotu nahiz, demografiaren, hazkuntza ekonomikoaren, etabarren gaurko joeran finkaturik. Geroa, biziki beltza agertu du ordinatoreak.

Honen ustez, ekonomiazko hazkuntzak sortu dituen problemak soluzionatzeko ez dago teknologiazko irtenbiderik.

Poluzioaren kasua har dezagun, etsenplubidez. Gure ingurura 500 mila substantzia zikin botatzen dugu, eta urtero mila bat berri asmatzen. Hauen ondorioak oso desberdinak dira, baitipait beste batzuekin nahasten direnean. Aski laboratorio ez omen legoke sekulan munduan ondorio guziak ezagutzeko. Eta ezagutzea, dokumentatzea ez da nahiko, poluzioa ebitatzea bait da kontua. Ebitatzea, ordea, hortara jarrita ere, garestiegi da. Halanola, Erresuma Batuetako lantegi eredu baten sorketa pozoinduen % 80 elimintzeko, 500 aldiz gehiago ordaindu beharko litzake. Ahantzi gabe, horibera probisional litzakeela, urtean % 6 ritmoan gehiagotzen bait da.

Berdin esan behar omen da, alegia, teknologiazko soluziorik ez dagoela, janaren, jende-hazkuntzaren berrizta ezin daitezkeen lur-aberastasunen ustiatearen, edo gizarte-birrintzearen arazoaz. Hitz batez, demografiaren, poluzioaren eta inguruaren («environnemet») irtenbide teknilogiazkorik ez dagoke.

Jaio berri den ekologiaren kontzientzi hartze honek askoz ere urrunago jo behar du, Edgar Morin soziologoaren utez ere. Arriskua, aipatu dugun horixe da, eta gaurko joera nagusia ere bai, alegia, ekologia teknika arazo gisa ulertzea. Zer egiten den hortarako? Poluzioaz bakarrik mintzatu, eta poluzio-mota bakoitza aparte azter-

tu, hemen paper-lantegi batena, han motor-egin-tzarena, etab. Horrela, problemak banan banan azterturik, problemaren benetako funtsa izkuta-tu egiten da. Hauzia hondakinen garbiketa balitz bezala. Hauzia gizartearen antolamendu osoare-na da, hots, gizon-izadiaren erlazioarena, indus-triaren etorkizunarena, dio Edgar Morin-ek. Tek-nologia, zilo-miloak estaltzeko gauza bada, baina ez *sistema berpentsatzeko*.

Azkenik, esan beharra dago, ekologiaren ara-zo hontaz axolaturik ikusi ditudan denek aitort-zen dutela aho batez aldatu beharra.

Baina gaitzaren arabera proposatzen bait da beti sendabidea, hemen ere berdin gertatzen da. Bil-laburturik, hiru modutan epaitzen dela gaitz hori esango nuke:

- lehenengoentzat, gaurko «akatsak» teknikaren gaurko egoeratik datoz. Tek-nika ez dago oraindik behar eta nahi bezain aurreratua, eta beraz, erreme-dioa teknologia hobetzean dago.
- bigarrenentzat, kapitalismoak du errua. Gizarte kapitalista salatu behar da. Eta ekologi problemaren soluzio-bide ba-karra, sozialismoan dago.
- hirugarrenentzat, hauzitan jarri behar dena ez da kapitalismoa soilki, gure Mendebaleko zibilizazio honen funtsa bera baizik. Hazkuntza ekonomikoa iza-

tea progresoaren izena, eta progresoa bera beti desiragarri dela uste duen pentsaera, hori da ukatu behar dena. Iraultza oso batetan dago soluzioa.

### 2.3. Hazkuntzaren mitoa

Arrazoimenaren nagusitasunarekin, efikaziaren lehentasunarekin, eta naturaleza zientzigune bezala hartuaz, azken bi mende hontan, gizonak bere kultura giroa eraiki du. Berak egina. Berarentzako egina ote, gero?

Aitzina jotzea zen eta da lege, aurrera egitea beti eta beti. Zer da, baina, aurrera egitea? Dimentsio bat bakarrean ulertzen eta onartzen da hori, diote ezker puntakoek. Dimentsio hori *homo faber* delakoarena da, eta horrek bereziki produzioa, eta baitipait ekonomiazkoa, adierazi ohi du. Horrek du lehentasuna gaurko gizartean, horrek erabakitzen du joera bat «aurrerazalea» den ala ez.

Kantidadearen kultura da gurea, esaten da. Egun, *izateak edukitzeari* aurrea hartu behar dio. Progreso dimentsio askoduna dela pentsatzen da. Kantidadearen eta kalidadearen artean borroka latza sortu da, edo sortu behar da. Ez noski bata bestearen ukatzaile delako, ez elkar ukatzaile direlako. Lehen plaza nork hartu, hori da gakoa. Elkar osatzaile dira biak, baldintzapen batekin, hau da, lehentasuna kalidadeari emanaz.

Hori lortzeko, hazkuntza ekonomikoa gelditu egin behar dela pentsatzen dute batzuek. *Hazkuntza huts, zero* famatua. Alegia, hazkuntza gelditu edo frenatu, edo gutienez abiada gutitu egin behar dela. Iritzi honek defendatzaile asko ditu. Eta kontra ez gutiago. Ez noa ni kontrako iritzi guziak aztertzerara. Halere, ezker aldetik egiten zaizkion bi salaketa agertu nahi nituzke.

*Hazkuntza hutsa* gure gizartean proposatzea, eta hor bertan posible dela uste izatea, gizarte honen logikatik kanpo dagoela ez konturatzea da. Ekonomiazko hazkuntzaren eta giroaren desarroilo osoaren artean berez ez dago kontraesanik. Gaur bai, ordea. Eta kontradizio hori sofritzen dugun gizarte-modu honexegatik da, dio garbiki Edmond Maire jaunak. Soluzioa bada, politikazkoa da, sistema osoa aldatu behar dela adierazi nahi delarik.

Edgar Morin eta Edward Goldsmith jaunen ustez ere holako proposamendu batek, sistema barnean beti, ez du ez buru eta ez buztanik. Izan ere, soluzio teknokratiko bat arazoari ematea litzake, orain ere lehentasuna teknologia eta ekonomiari utziaz (eta zentzu hontan sistimaren logikan gaudeke). Pontu hontan egin behar dena da hazkuntza bera desarroiloaren barne integratu, desarroilo horri ekonomiazko zentzu barkeria ezabatuz.

Hauen iritzian bada, alde batetik, holako soluzio bat lehengo zulo berean erortzea da (gizarte arazo guziak teknikazkoak balira bezala); eta

bestetik, ez da posible, sistima apurtu gabe. Hain zuzen Mendebaleko zibilizazio osoa hazkuntza horretxen gainean eraikia delako. Posible dadin, gizarteak guzizko aldakuntza bat eskatzen du, antolamendu eta helburuetan.

## 2.4. Iraultzaren beharra

...Ez da gehiago mintzatu behar poluzioaren kontrako borroka bere hortan helburu bat bailitzan. Gaitzaren gain-agerpenak sendatzearekin bakarrik ez da gauza handirik eginen. Sendaketa, gizartearen aldakuntzatik bakarrik etor daiteke. Nere iritzian, sendabidea gizarte sozialista batetan dago, gizabanako bakoitzari dagozkikeen erresponsabilitateak utzi eta eskaintzean... (6).

Edmond Maire, CFDT sindikatoko idazkari nagusiarentzat, hau dioenean, aldaketak eta gizarte berri horrek izen bat du: *autogestioa*.

Maire jaunaren iritzian, Gizatasunaren etorkizuna produzio-modu kapitalistarekin elkargaitza da. Eta arrazoia ere ematen du. Merkatuko ekonomiaren helburua, hazkuntza da; kontsumo-obsesioaren ideologia; objektu irabazpidedunen xedea...: gizakiaren amets eta nahikundeen kontra joanaz gainera, ezin liteke bide hortatik jarrai mundua hondamendira eramane gabe.

Maire jaunaren esanen arabera, gaurko haz-

---

(6) Ikus *Le Nouvel Observateur*, 397 zenbakia.

kuntza ez doa giza-pertsonaren bizitza hobetzearen alde. Zeren-eta bizimoduaren hobekuntza horrek karakteristika hauek eduki behar ditu: bizitza soziala gero eta asebetetzeago bihurtzea, bere eginkizun eta etorkizunari buruz gizabanako bakoitzak gero eta esku-hartzea gehiago izatea, bakoitza autogestioaren eta plangintzaren egile bilakatuz. Horrela, multzoka eta demokratikoki, gizarteak dela heziketari, dela osasunari, dela hirigintzari, eta berdin gizartezko harreman eta beharkizun materialei balio egokia eman dezaike. Eta Maire beraren hitzekin jarraituz:

Baina hazkuntza zentzuaren itzulipurdikatze honek, gizakien desalienatze bat, funtsezko nahikundeen askatze bat jakintzat ematen du. Esan nahi bait da, ez dela bakarrik kapitalismoa zentzu tipian (alegia, produzio-bideen jabetza pribatua) deusezteka bakarrik, baizik eta berdin agintze hierarkiazkoak, Mendebalekoak bezanbat Eguzkialdekoak, hots, dela kapitalaren, dela zientziaren, dela alderdiaren izenean goitik behera beharkizunak eta hautapenak herriari agintzen dizkionten sistimak oro desegitea...

...Autogestioa eta autoeginezko plangintza egikaritu behar dira, bata eta bestea produzio-lanabesen jabetza sozialaren sistiman. Inguruaren hobekuntzak benetako dimentsioa hartzen du horrela, hau da, gizakiak izadiarekin eta gizakiek beren artean duten harremanen transformaketa. Eta horrek berak ekarriko du industri desarroilomoduaren eta aberastasun-banakuntzaren birpentsaketa. Hortixe sor liteke humanismo berri bat.

Goldsmith ekologista inglesak eta Morin-ek

ere aldakuntzaren premia azpimarkatzen dute. Aldakuntza bortitza, guzizkoa da lortu behar dena. Eta aldakuntza hori lehen esandakoaren bitetik. Kulturazko iraultzaz mintzo da Morin:

...Iraultza ez dela bakarrik kapitalismoaren deuseztea, burgesgoaren desegitea, ulertzen hasia da jadanik jendea. Izan ere, gizarte-makinak atzera klase menderatzaile berri bat, estruktura zanpataile berri bat sortzen eta eraikitzen du. Gizartearen fenomenologiako estrukturen sustraian, nahiz gizartearen nahiz biziaren antolamenduan agintzen duten estruktura sortzaileak badirela konprenitzen hasi da gizona. Hauxe da hain zuzen Mendebal eta Eguzkialdean sarri mitozturik erabiltzen den iraultza kulturaren zentzu sakona.

Horrela bada, ekologiaren kontzientzia-hartzetik gure gizarte-gintzaren nondinorakoa, helburua, proiektoa hauziperatzeraino heltzen da Morin. Eta hau deus bortxatu gabe, emeki emeki, esango nuke. Hona nola:

...Kontzientzia ekologikoak egundainoko sakonera eta hedaturazko problema dakarkigu. Izan ere, denbora berean Lur planetako Biziaren arazoa, gizarte modernuaren problema eta gizonaren destinoarena elkar aurkeztu behar ditugu. Eta honek Mendebaleko zibilizazioaren orientazioa ere hautitan jartzera behartzen gaitu. Izan ere zibilizazio honek, egun bere galera bilakatu diren hiru abia-buru antolatzaile hauetan eraiki du bere arrakasta: bat, erabiltzeko diren objetuen mundua eta giza-sujetua, Descartesen arabera berezirik (humanismo modernuaren funtsa); bi, zientzia, ez zentzuz ez helburuz axolatzen den ezagutzapen

objetibu bezala hartuz, horregatixe alginte eta botereen tresna bilakatzen delarik zientzia hori; eta azkenik, gizona naturalezaren konkistatzaile bezala ulertuz, Eguzki hauzoaren Gengis Khan bihurtzeraino, eta hau lehenengo burgesgoak eta marxismoak gero.

Edward Goldsmith jaunak ere, munduan eta historian gure gizartea dela progresoa helburu bezala jarri duen bakarra, eta hor dagoela gure gaitzen iturria gogoratu ondoren, gizarte honen orientazioaren guziko aldakuntza proposatzen du.

Interesgarri da aldakuntza hau nola pentsatzen duen jakitea. Esan dezadan bakarrik, dezentralizazioa eta komunitate tipetan gizartea antolatu beharra azpimarkatzen dituela (7).

Bat edo bestea hartu, pentsamendu-hari bat bada denetan: gizongisazko soziedade baten nahia, mundua eta gizartea gizonaren neurrira ekarri nahia, behetik gora eta tipitik handira doana aupatzea. Hau da, dezentralizazioa eta autogestioa logika-hari berean.

---

(7) Il nous faudra sans doute développer une société décentralisée, organisée en communautés beaucoup plus petites, capables de se diriger elles-mêmes, et possédant donc la condition principale de la stabilité. Une telle décentralisation permettrait également de réduire au minimum la pression de la population humaine sur l'environnement. Il est, d'autre part probable que de telles sociétés pourront se satisfaire d'une consommation de ressources et d'énergie sensiblement inférieures, ce qui réduirait d'autant la création de polluants".  
*Ibidem.*

### 3. Iraultza-haizeak Mendebalean?

#### 3.1. Ezkertiar berriek diote

ERREBOLUZIOA POSIBLE AHAL DA? Hau Mendebaleko Herri aurreratuetan sozialista jatorrek egiten duten galdera da.

Erreboluzioak sistimaren eta ezarritako moldeen sustraitik egindako aldaketa gogorra eta erabatekoa esan nahi du. Mixeria agerian dagoen alderdian, justiziaren premia eta errebolatu beharra berehala jaioko daiteke. Argi ikusten da, hirugarren mundu erdi hazitako Herrietan errebolu-

zioa eta sozialismoa derrigorrezkoak direla, ez bait da beste biderik azaltzen herrialde horietako arazoak zuzendu eta konpontzeko.

Gure gizarteetan aldrebes da. Menperatutakoei, langileei, ez zaie azaltzen, besterik gabe eta berehala, bere problemak konpontzeko eta bere gizatasuna osatzeko sozialismoa biderik egokiena bezala...

Sozialismoa erdi hazitako Herriak beren atzerapenetik ateratzeko modurik egokiena dela, gehienek dioten gauza da. Izan ere, sozialismoa ekonomiaaren aldetik atzeratuta zeuden Herri batzuetan bakarrik hasi da jasotzen. Gainera, Stalinen garaiez geroztik, sozialismoa egiteko moduaren adibide bezala Sobietikoen Batasuna jarzen zuten komunistek.

Hirugarren munduan, mixeria hain handia denez, sozialismoa, burua erne duen batentzat, derrigorrezkoa dirudi. Hazitako eta erabat industriatutako Herrietan, berriz, derrigorrezkoa baino gehiago, gizatasunaren aldetik egin litekeen aukera bakarra bezala ageri da. Beharbada, mendealeko gizona salbatzeko posibilitate bakarra sozialismoa dela, eta hau izateratzeko benetako erreboluzio bat nahi eta nahiezkoa dela, diote ezkertiar berriek. (...)

Ezkertiar berriek erreboluzioa posible dela diote, eta derrigorrezkoa gizarte gizatiar batentzat... Gizarte hauetako sozialismo berezi batean pentsatu behar dela (1).

Rikardo ARREGI sozialista eta ezkertiar ko-

---

(1) Ikus ARREGI, Rikardo: "Ezkertiar berriak" in *Rikardo Arregi*, JAKIN sorta 3.

mentzituaren aipamen hau bere luzean egin nahi izan dut. Nere ustetan, testu egokia da, lekuko bezala. Bil-laburturik agertzen bait dira hor, gaurko ezkertiar berrien analisi eta jokabideetan topa ditzakegun joera asko. Halanola, etsenplubidez:

1. — *Iraultzaren guzizkotasuna.* Erreboluzioak erabateko aldakuntza esan nahi du, sistimarekin konpromisorik gabekoa. Erreforma pila bat ez da iraultza. Hori bateko.

Eta besteko, AK tradizionalei Mendebalean egiten zaien kritika gogorra: iraultza izpiritu guzia galdurik dutela; kapitalismoaren jokuan sartu direla; iraultza, hitzetan ez baino ekintzetan erabat baztertu dutela. Iraultza bere gordintasunean gorde eta aurrera eramane beharrean, aginteaz jabetzearren beren anima saldu dutela salatzen zaie, horrela iraultza «révolution de palais» bihurtuz eta ez «révolution sociale». Eta egia esan, Carrilloren AK-ren zortzigarren Kongresoko erabakiak ikusterik besterik ez dago.

2. — *Iraultzaren premia.* Gizonaren izenean, dio Rikardok, gizona kontsumo gizarte hondatzaile hontatik salbatzeko. Kapitalismoak ez bait du gizona ekonomiazki bakarrik zapaltzen, baizik eta giza-harreman guziak gaiztotzen baitipait herri aurreratuetan. Horregatik bada, frente guzietan horrokatu behar dela esan nahi du honek: produzioan, eskolan, familian, ideologian, etab.

3.— *Iraultzaren eredurik-eza.* Herri hazietan oraingoz ez da iraultzarik gauzatu. Daniel Singer jaunak, bere liburuan, 68 Maiatza izan dela gizarte hazi batetan egin den lehen iraultza-entsegua uste du. Eta jakina, eredu guzien aurka.

Orainarteko ereduak, modernuak, Errusian edo Txinan gertatutakoak dira. Baliozko ote dira gurerako? Denok dakigu nola urte luzetan Errusiakoa izan den eredu bakar, unibertsal eta beharrezko. (Agian zer zen sozialismo eta zer errusitar ongi bereiztu gabe). Gero, ereduen pluraltasunaren premia aterada plazara. Pluraltasuna, hain zuzen aldi bakoitzak eta herri bakoitzak propio zaizkion kondizioak eta kontradizioak dituelako.

Aspaldi dela eta orain ere pentsatzen dut sozialistatzat bere burua dadukaten organizazioek, herri hazi baten sozialismoa zer izan daitekeenaz ideia falta ikaragarria dutela. Neurritz-gaineko analisi-gaitasun bat bilatu behar dute, beren garaian Marx batek eta Lenin batek izan zutena bezalakoa; gaurko Europa bereizten duen teknikaren desarroiloari eta gure inguru ideologiazko eta politikazkoari dagokion proiektu sozialista bat eskaintzeko premia dute (2).

Ortodosiatik libratu diren politikazko ezker alderdi oro dabil horren atzetik, herri hazietan bezala erdi hazietan.

---

(2) Ikus ROCARD, Michel, in *Le Nouvel Observateur*, 308 zenbakia.

4. — *Mendebaleko iraultzaren berezitasuna.* Ezkertiar gehienekin batera, herri hazi eta erdi hazitakoak bereizten ditu Rikardok ere. Ere-durik ez dagoela adieraztean iraultzaren inportaziorik ez dela posible agertu nahi den bezala, orain —bereizketa honekin— iraultzaren mamian eta egiteko bidean ere badirela diferentziak agertu nahi da. Iraultza-ordurik ez dago mundu osoarentzako, eta iraultza-bide bat bakarrik ere ez denentzako baliagarri daitekeenik. Areago oraindik: iraultzaren funtsa bera ere desberdina da, herri bakoitzaren egoera historikoa kontutan hartzen bada. Iraultza bidea bakarrik ez baino iraultzaren kontenidua ere ez daiteke bat bera Frantzian, Errusian eta Kongon egin behar den iraultzan.

Ez da zuzen hirugarren munduko eta herri hazietako iraultzen artean kontradiziorik ikustea. Erabat desberdinak ere ez dira, kontradizio nagusi zenbait han eta hemen bait da nagusi. Hau esanez, Jean Leca jaunak dakarren analisiarekin ados nago:

Marx, Lenin, Bakunin, Trotski eta... J.J. Rousseau elkarren ondoan jarriaz ideologiazko jantzi nahasiaren bidez, Maiatzeko «kontestatarioek» proiektu sozial europarraren krisia, eta zentzurik bortitzenean ulerturik kontzientzi krisia agertu dutela iruditzen zaigu...

Europar krisia, hirugarren mundukoaren kontra-aldea besterik ez da: honek «gehiago eduki» nahi du eta «zerbait izan». Europar gazteek «zer

eta nor diren» galdetzen dute, eta beren eduki-tzeak zertarako balio duen.

Bi arazoketa hauek biltzea gerta liteke, posible da, eta horrela indar bateratu bat taxutzea: hau da bederen «hirugarren mundu-zaleen ideologien» iritzia. Halere, objetibuki, ezin daiteke segurtasun osoz baieztatu. Zindotasun bereko bi mogimendu estrategia desberdinetan edo kontrazkoetan hezuramitu bait litezke biziki ondo. Industri haro aurreko eta industri haro ondoko iraultzok, elkar ulertuko ahal dute? Hona, zalan-tzarik gabe, gure garaiko problema larrienetarik bat (3).

5. — *Iraultzaren posibletasuna.* Rikardok ongi dio: iraultza posible dela pentsatzen du ezkertiarrek. Gurea bezalako gizartemodu baten baldintza objetibuak beti daudela heldurik uste du, eta markatu behar dena nahizkotasuna dela. AK baldintza objetibuez mintzo denean, beti da iraultza gerorako uzteko. Hori, ezkertiar berrien salaketek diotenez, maliobra txar bat da, eta determinismo zahartu baten ondorio. *Zaitzte errealista: ezina eska!* zen Pariseko «festan» entzun eta irakur zitekeen slogan bat. Martin Fierro poetaren heroe haren ausardia bere egin nahi du iraultzaile berriak. Etsaiak ugarri direla eta kontuz ibiltzeko, denen kontra ezingo duela oharrarazten diotenean, zera bakarrik dio: *No pregunto cuántos son, / sino que vayan saliendo.*

---

(3) LECA, Jean: "Situations et stratégies révolutionnaires", in *Société injuste et Révolution*, Seuil, Paris 1969, 49-50 or.

Hor, utopia-zaletasuna, ameskeria eta nobizioen berotasuna salatzen dute kupidarik gabe «errealistek». Roger Vekemans-ekin bat letozke, «pazientzia eskaseko eskatologia-zale zenbaiten politika-lapurretaz» mintzo denean.

Bakoitzari berea emateko, esan beharra dago, halere, ezkertiar berriak ez direla itsu, eta itsuturik ere ez daudela. Baldintza objektibuen garrantzirik ez dute hauek, besterik gabe ukatzen. Diotena da kondizio objektibuez baliatzen dela asko, iraultzaren izenean baldintza horiek aurretik eta zientziazki ipiniaz baina iraultza inoiz ez egiteko asmotan. Eta horiek agintea nahi dute eta ez iraultza. Hona esate baterako, D. Cohn-Bendit, Pariseko 68 Maiatzako buruzagi eza-gunenak proposaturiko *bide iraultzailea*:

Nere ustez, kontua ez da metafisikaz jardutea eta iraultza nola eginen den bilatzea. Nik uste dut, eta berrikitan esana dut, batez ere gizartearen etengabeko aldakuntza batetara goazela, eta pa bakoitzean, ekintza iraultzaileen bidez eragirik. Gure gizarteko egituren iraulketa osoa ez litzake posible, supituki, gonbarazio batetarako, ekonomiazko krisi latz bat, langile-mogimendu indartsu bat eta estudianteen ekintza bortitz baten bateratzea ez balego. Egun, baldintza horiek ez dira aurkitzen ahal. Kasurik hoberenean ere, gobernamentua botatzea pentsa liteke. Baina gizarte burgesa lehertzea ezin liteke ames. Deus egiterik ez dagoenik ez du honek esan nahi:

kontrara baizik, guzizko ukapen batetik hasiaz borrokatu behar da poliki poliki (4).

### 3.2. Etorkizun iraultzailerik bai ote?

Orainarte aipatutakoarekin, iraultzaren premiari eta posibletasunari gagozkiolarik, iraultza berria beharrezko dela argumentuz eta posible dela sinesmenez agertu dela pentsatzen dut.

Herri teknikatsu eta industriatsu batetan erreboluzioa posible denentz eta egitekotan nola ikusi nahi duten aburuei urrera gakizkien atzera.

Badakit mila iritzi dagoela hortaz, eta pentsamendu-familia bakoitzak berea duela. Gaia agortzeko asmorik ez esperantzarik gabe, hiru iritzi-mota agertu nahi nituzke, eta horiexek ere gaingiroki.

#### a) *Iraultzarik ez da aurrerantzean posible.*

Iraultza hil dela pentsatzen du Maritain-ek. Hil egin da, hil den gizartearekin batera. Lehengo gizartegintzan, bai, orduan bazuen eginkizunik iraultzak, dio Maritain-ek. Gaur, ordea, ez luke ez eginkizunik ez posibilidaderik. Gaurko gizartea konplikatuegia da, iraultzaren esku uzteko.

Bide beretik doa André Philip, Sorbonako

---

(4) J. P. Sartrekin egindako elkarrizketa, in *Le Nouvel Observateur*, 1968, maiatzak 20.

ekonomista eta soziologilaria. Iraultzak be-  
rea egin duela esan du André Philip-ek. Iri-  
tzi horrek eztabaida latza sortu zuen bere  
garaian, eta honela esplikatzen digu Arthur  
Riche-k André Philip-ek horrekin zer adie-  
razi nahi zuen:

(André Philip jaunak zera erakutsi nahi du, ale-  
gia... iraultza gordin eta bapatekorik gizarte lan-  
tegitzatu batetan ez dela posiblezko, nahiz eta  
iraultza-giro bat gizarte horrek barnean eduki.  
Zeren-eta, holako haustura batek (eta hau berdin  
Sobiet Batasunean), produzio-sistema teknikazko,  
eta berdin gizarte-egiturazpi osoaren astinaldia  
ekarriko luke, eta hori, dena pobretzearekin ba-  
tera, atzera itzultzea litzake, hau da, benetako  
suizidioa. Iraultzaren problema, bada, desberdin  
planteatzen da gizarte industriatsu (aurreratu) ha-  
zietan eta desarroilo-bidean daudenetan. Egoera  
makurrek eta zuzengabekeriek eskaturiko gizar-  
te-aldaketak ezin daitezke iraultza-bidez (hitzaren  
zentzu klasikoan) lor, oraindik antolamendu ez  
oso saretua (konplexua) duten erresumetan beza-  
la. André Philip, pitin bat esajeratuz, iraultzaren  
azkenaz mintzo denean, ez du honekin adierazi  
nahi gizartearen politikazko eta sozial egituren  
aldakuntzak amaitu direnik, ez, atzoko iraultza  
mogimenduen tankerara eramandako itzulketa  
zakarren azkena baizik... (5).

Hedaturik dago iritzi hau. Uste da iraultza  
lehertzen bada, mundu haziak dituen hil-  
-tresnak kontuan harturik, ekonomiaren kon-  
plikazioa eta mundu osoarekiko hedadura

---

(5) Ikus *Eglise et Société*, t. II, Genève, 1966.

ezagutuz, ondorioak neurtzerik eta mugatzerik ez dagoela.

Beste batzuen ustez, iraultza harma primitibua da. Iraultzaren bidez gizarte baten hobekuntza egin nahi izatea, tiragomarekin kanoi baten aurka joatea bezala da. Progresoak zentzuz hustu du iraultza, diote. Thierry Maulnier-ek: *Il est possible que l'accélération du progrès technique finisse par ôter son sens à la Révolution elle-même.* Horrela, esate baterako, Raymond Aron-en ustez, (nik uste) iraultza ideologiazko aztarna hutsa da; bizi bada, ez da errealidadearekiko egokitasunik duelako, ideologiazko auspoz sua piztu nahiz dabilelako baino. Hauentzat, iraultza ez da ez sinesgarri ez baliagarri.

Beste batzuentzat oraindik, iraultza ezina da. Eta hau arrazoi ximple bategatik: iraultzailerik ez dagoelako. Intelektual eta estudianteen harma, hitza da, haizeak daramana. Eta gainera ez dira fidagarri, iraultzailetasunik (unetxo batzutan izan ezik) ez da-ta inondik ere ageri. Langileak hor dira, bai, baina nork ez daki dagoeneko iraultza ez baino beren bizitza-mailaren hobekuntza nahi dutela herri hazietako langileek?

Hauen ustez, bezero faltaz hitsi beharko ditu tabernak eta elizak iraultzak.

b) *Iraultza posible da, baina ertzetik.*

Marcuseren joerako azterketak sar genitza-

ke hemen. Langileriak ez duela herri hazietan erreboluzio-izpiriturik ikusten du Marcusek. Baina ez horregatik iraultzaren posibletasunik ukatzen. Walter Benjamin-en hitzak erabiliaz uste du esperantza berria esperantza ez dutenengandik datorkigula, alegia, gaurko gizartean ez integraturik ez integratzeko esperantzarik ez dutenengandik datorkigukeela iraultza hori. Hitz batean eta labur esanik, *lumpen-proletariat* litzake eragile (*intelligentsia* delakoaren laguntzarekin, hori bai).

Marcusek egoera bat aztertzen du, eta soluzio bat bilatzen. Esanaren kontra, kapitalismoa bizi bizirik dago, krisiak oro garaiturik ezpada ere gutienez kontrolaturik. Hautsetatik berriztaturik eta indarturik ateratzeko habilezia erakutsi du, azken hogeitortan, kapitalismoak.

Eta gero, produzio-bideen jabeei jabego pribatu hori kendu zaien herrietan (produzio-bideen jabe zirelako bakarrik zirela langileen lanaren lapurtzaile ustez) ikusi da langileriaren bizimaila eta oinarrizko libertateak ez direla agindutako paradisuak. Eta «klase» berri bat, «hirugarren klasea» jaio dela hortik ikusi da. Bestalde, beren propaganda entzutea besterik ez dago. Zer proposatzen dute? Terreno berean herri kapitalistak baino gehiago izatea. Berdin herri kapitalistetako Alderdi Komunistek.

Dena den, langileriak herri industriatsu nagusietan (U.S.A., Alemania, Ingalterra) sal-

batzaile horien borondate salbatzailea dudagarri ikusi du, eta esperantza galdu ere. Eta langileriak bere esperantza gaurko gizartean jarri du. Horrela, erreboluzio perspektiba dena galduaz. Langileriak produzio-hazkuntza sistiman integratu nahi du. Borrokak oro sistema hortan bere situazioa hobegotzeko dira (berea eta bere semeena), baina ez sistema ankazgora botatzeko.

Eman dezagun hola dela. Zer egin, orduan? Bi irtenbide dago: edo iraultza ideia behin betirako baztertu, edo herri industriatueta-ko langileriatik kanpo bilatu iraultzaren ekile historikoak.

Alternatibaren bigarren alderdia hautatu du Marcusek. Kanpotik datorke salbamena. Dela hirugarren munduko sub-proletariotzatik, dela laugarren mundutik. Hau da sistimak kanpoan uzten dituen horiengandik, edo sistimaren desarroiloak abandonaturik daduzkan horiengandik. Hirugarren munduko pobreek, gure hiri nagusiak inguratzen dituzten lan-bilatzaileek, oraingoz lehertza-penik ekarri ez badute ere, ez du horrek esan nahi aurrerantzean berdin jarraituko dutenik. Hauxe da gelditzen zaigun esperantza bakarra, diote joera hontako aztertzaileek: esperantzarik gabekoez damaigutena. Hauek kanpotik jotzen dute sistema, eta radikalki. Izan ere, beren *ez-edukitzea* ez da langileriaren *gutiago-edukitzea*, baizik *anti-edukitzea* bilakatzen da. Horregatik dira sistimaren mekanismoan sar ezinak. (Hor-

tan lagundu behar diote hain zuzen intelektualek, alegia, elkar ukapen hori markatzen, helburuen kontzientzia ematen, erreboluzio-bide eragikorrak gauzatzeko gaitzen).

d) *Iraultza posible da, eta barne-muinetik bertatik.*

Yvon Bourdet (6) eta autogestiozale zenbaittek beste bide batetik jotzen dute. Erreformismoan edo *klase berri* baten agintean eroriko ez den iraultzarik egiterik ez ahal dago? Kapitalismoak irentsiko ez duen iraultza bat posible da. Bulegokrazismoak eta agintekeriak zimelduko ez duen iraultza bat posible da.

Baina iraultza hori ez datorke kanpotik, diote Marcuseren aurka.

Yvon Bourdet jaunak ez du deus Walter Benjamin-en esakuntzaren kontra. *Esperantza, esperantza-gabekoek ematen digute* dio berak ere. Baina formula honi zentzu arras bestelakoa ematen dio. Yvon Bourdet jaunak ez du uste *lumpen-proletariat* hori kontsumoko gizarte-sistimatik horren landa dagoenik. Eta esplikatzen da: batzutan egia izanik ere sistimaren fruituez baliatzerik ez duela, halere gizarte hori opagarri bezala agertzen zaio, nahi luke han parte hartu. Erreboltatzen bada ere, ezin duelako esku-

---

(6) Ikus YVON BOURDET: *La délivrance de Prométhée*. Anthropos. Paris 1970.

-hartu da: iraultza negatibua. (Nik gorago *errebolta* izendatu dudana).

Bourdet-en tesia hau da: benetako «esperantzarik gabekoak» ez dira oraindik kontsumoko gizartean sartu ez direnak, sistima hortaz aseturik daudenak baino. Iraultza nondik datorkeen? Sistima ezagutu, bere fruituak jan, eta horrek berak nazkatu eta higuindu dituen horiengandik.

Gaur gaurkoz, problema hau gehienbat *intelligentsiak*, intelektualek, estudiantetek, monopolizatzen badute, ez da aparteko sentikortasunez naturalki eratutako klase bat delako. Langileria ere esperientzia berera iritsiko da, kontsumoko gizartean erabat sartua eta integratua denean. Denbora kontua da dena. Oraingo opagarri agertzen zaion ugaritasunezko gizarte honen muga itotzailleen esperientzia egingo duenean, gaurko *intelligentsia* horren argitasun berarekin eta askoz ere indar gehiagorekin ukatuko du langileriak gizarte-mota hau.

(Teoria hontan langileria da, Marxen arabera, iraultza egilea.)

Oraingo, gehienetan, langileriaren eskabi-deetan kontsumogaiak dira nagusi: hazkuntzaren ondasunak hobekiago banatzea eskatzen da. Baina jadanik, borroka askotan, kreaziozko problemak planteatzen hasiak dira. Gizona, lantegian eta gizartean, kreatzaille ez delako dago alienaturik. Produzioa bezala agintea, gutigo batek monopolizatzen

du. *Ekintza askatasunaren arnasa-hartzea* den autogestiozko gizartea daiteke soluzioa. Esanaren arabera, herri hazietan ez da iraultzaren sua hilko. Mementu batetako epel-giroak inpresio hori eman dezaiguke. Baina luzarora, gizarte hauetan sor daiteke benetakotako iraultza, Prometeoren egiazko askatasuna. Askatasuna erdiesteko, Prometeok borroka latza egin beharko du: *edukitzeak ematen duen agintearen kontra, jakiteak damakien agintea monopolizatu nahi dutenen aurka, eta agintearen Olinpoa gerizatu nahi duten minoria zuzentzaileen kontra.*

Askatzaileengandik askatu behar du oraingoan gizonak.

### 3.3. IL MANIFESTO-k:

#### Mendebala iraultzarako heldurik

*Il Manifesto-k* (7) iraultza Europan posiblezko dela dio, eta ondorio hori zenbait azterketen fruitu bezala aurkeztu dute. (Jarraian, bere analisi eta logika agertu nahi nuke).

---

(7) 1969-ko azaroan intelektual andana bat Italiako Alderdi Komunistatik baztertua da. Horien artean, Rossana Rossanda, Aldo Natoli, Luigi Pintor, Lucio Magri, ezagunenak. Zergatik boteak izan ziren? *Il Manifesto* hilerokoa kreatu zuten, gairik bizienekin, halanola, estrategiaz, Mendebaleko iraultzaren gaurkotasunaz eta posibilitadeaz, abangoardia eta masaren harremanez, kulturazko iraultza, etab. Geroa badakigu: alderdikoi eta ezkertiar bezala "eskomunikatuak" izan ziren.

— *Il Manifesto*-ren esanetatik, erreformismoak eta herri-freuteek, biek frakasatu egin dute.

Erreformismoa kapitalismoak irentsi egin du. Diotenez, «sistema kapitalistak bere barne egozierari traba egiten dion edozein eskuhartzeri krisiarekin erantzuten dio. Saiakera erreformatzaile guziak honelaxe txokoratu ditu. Aginte sozial-demokrataren hogeituro urtetako agintearen ikaskizuna hauxe da»...

Herri-freutearen taktikak huts egin du, Errusiak ekonomiazko eta gizartezko nagusitasuna agertuko zuela ustez eta haren laguntzak, orduan, Mendebaleko herrietara sozialismoa ekarriko zuela pentsatuz eraiki zelako taktika hori. Baina Errusiak orain kapitalismoaren joku bera egiten du. Horregatik orain «errebisionismo modernuaren oinarriak, Mendebalean bezala URSS-en, objektiboak dira».

— Gaur, gizarte berri bat eraikitzeko bide horiek desegoki dira. Alderdi garbi eta gogor bat atzera kreatzeak ez du iraultza salbatuko. «Iraultzaren eskema klasikoa egiztatu ezina bihurtu da. Eskema honen arabera, gutigo (minoría) ohartu batek erabiltzen zituen Erresumaz jabetzeko eta jabego-erlazioak itzulizkatzeko masaren oinarritzko eskabideak». — Baina egun, duela 50 urteren aldean, kapitalismoaren eta kontsumoko gizartearen ideologiaren eragina askozaz ere sakonagoa da. Horregatik *Il Manifesto*-k iraultzaren berrikuntza proposatuko du:

«Errebisionismoa ezin da gudukatu (...) bal-

din gure garaian iraultzak presentatu behar duen berezitasuna eta berritasuna aitortuz ez bada, eta berak sortzen dituen arazoei teoriazko eta praktikazko erantzunak eskainiz ez bada».

- Kapitalismoa, bere aldetik, krisipean dago, eta Gizadiaren etorkizuna gidatzeko ez da ja-danik gauza. Kapitalismoari, gizonaren bene-tako gose-egarriak asebetetzeko efikaziarik-eza eta bere baitako irrazionalkeria salatzen zaizkio.

«Sistema bat, barnean dituen ahaltasunen egiz-tatzeari traba egiten dionean, orduantxe zahar-kiltzen eta ahitzen da», diote. Hontaz kargu egin omen da gaur gizona, eta horregatik sis-tima kapitalistari ez dio barkatuko aberasta-sunak alferrik galtzea, langileen ahalmenak txikitzea; osasunaren, zahartzaroaren, inguruaren problemak ez soluzionatzea. Zeren-eta, horri denari erremedio jartzeko posibletasuna gaur badago. Hori dela-ta, gizonak, gizarte ha-zian, gaur senditzen dituen beharkizun berriak oro, *implicite* bederen, sistimaren ukapen dira.

- Gaitz horien erremedioa ekarriko duen iraul-tza egoki hori egiteko, Mendebala heldurik dago.

«Historian lehendabiziko aldiz, komunismoa, eta beraz sozialismoa bitarteko epe bezala, po-litikazko programa posible bezala presenta-tzen dira». Gizarteak lortu duen goi-maila hon-tan, kapitalismoak handiagotzen duen *egiazko*

*desarroiloaren eta desarroilo posiblearen distantzia hori* laburtzea badagoelako, gizonaren benetako beharkizunak asetzea posible da; produzioa kantidadez eta kalidadez haztea, giza-lana arinduaz, egin litekeena da; lan zatikazko eta errepetitzailea ken liteke, gizonaren sortzailetasuna eta ekintza libreak zuzenki produzitzaile bihur litezke.

Baina hara!, gizarteak bere barnean haur dituen ahaltasun hauek haustura guzizko baten bidez egizta litezke soilik produzio-indar (teknikazko, lanbidezko, zientziak, erakundezko) beraien «iraultzatze» baten bidez. Kapitalismoak kutsaturik bait daude, egon ere. Beharrezko da, horregatik, «produzitzeko, kontsumitzeko, pentsatzeko eta bizitzeko... kritika guzizko eta konkretu» batetik igarotzea.

— *Il Manifesto*-k ez du uste kolpe batez, transiziorik gabe, iraultza egikari litekeenik. «Progresibuki», diote.

Perspektiba hau begien aurrean edukiaz *borroka-gaietara itzultzea* eskatzen dute, beti gerorako utzi gabe.

Nola, ordea, hezurmamitu hori? Ez «zientziaren» eta «kontzientziaren» jabe den abangoardia baten bidez, hortxe bait dago, egon ere, AK guzien egoera motelaren zioa. «Zentralismo demokratikoa ez da historiak iragana bakarrik, Mendebaleko AK-en errebisionismoaren kausa sakonenetako bat bera da».

*Kontsejuak, soviet-ak, langile-taldeak* proposa-

tzen dituzte, alegia, «batera politikazko eta sindikatozko diren gizarte-talde beretsuen espresio bide zuzenak».

Eta iraultza hau, gizarteko *processus* bezala izateratuko da. Magri-k dioenez:

la révolution ne résultera pas d'une décomposition du système, d'une paralysie de la production; elle ne sera pas le fruit du désespoir, de la révolte élémentaire. Elle ne pourra s'y affirmer qu'en tant qu'alternative historique positive... la révolution prolétaire doit être avant tout un processus social.

## 4. Iraultza berria, Garaudyren arabera

1972-ko martxoan, Roger Garaudyk *L'Alternative* (1) liburua argitaratu eman du. Haren 25garrena da, oker ez bainago.

Liburu hortan Garaudyk, betaurrekorik gabe ikusi nahi izan du gure gizartea. Iraultza behar-kizunen eta iraultza indarren irakurketa bat da liburua. Eta, lerro artean, etorkizuneko iraultza

---

(1) Editions Robert Laffont, Paris 1972.

nondik joango den (nondik doan jadanik) antze-  
man du.

Baina nor dea Roger Garaudy?

Frantziako AK-n 37 urte militante, eta 20 ur-  
tetan buruetarik bat; taldeko buru pentsatzaile-  
tarik bat, izan ere.

68 Maiatzeko gertakizunak zirela-ta, eta urte  
berean Txekoeslobakiako zanpaketa zela-ta, ger-  
takizun hauek interpretatzeko eta epaitzeko or-  
duan, Alderdiarekin arras iritzi desberdineko aur-  
kitzen da. Eta Alderditik botea da, arrazoi ho-  
riengatixe.

Haatik, Garaudyk ez marxismoa ez komunis-  
moa baztertu du.

Garaudyk Poitiers-eko Unibertsidadean ematen du eskola. Estetika eta Prospektiba irakasten du.

#### 4.1. Garaudy edo ezinaren grina

(Hastapenetik esan nahi dut ez noala Garau-  
dy loriatzen, ez santifikatzen, ez etsenpluzat ematen. Ez da nere arloa. Baina gizon batek proposatzen duena ongi ulertzeko, bere pentsamendua-  
ren nondinorakoa agertzea onuragarri iruditzen zait. Gainera, nere ustetan, Garaudyren baitan nahiko garbi ikus genitzake *iraultzaren filosofiazko pentsaera* izenda dezakegunaren lerro nagusiak,

halanola, gizonarekiko sinesmena, guzizkotasuna, historiaren zentzua...)

Garaudy, hamalau urterekin, fededun bihurtzen da, protestante. Hogeirekin AK-n sartzen. Biak batera ezin dela uste da garaian, eta erlijioki-deek hautatzera behartzen dute. Alderdia hautatzen du Garaudyk. Eta hemen jarraituko du 37 urtez. Atzera hautabeharra du 1968-an: edo alderdiaren ortodosia edo egia-bilakuntzaren askatasun osoa.

Eta, halere, 20 urterekin bezala ia 60rekin haren asmoak, ametsak, helburuak... beti berdinak dira.

Eta nahiz-eta kristauek haintzat hartu ez, eta nahiz-eta Alderdi komunistakoek marxistatzat jo ez, kristau eta marxistatzat eduki du beti bere burua Garaudyk. Eta hortan jarraitzen du.

Berak esanik dakigu bere bizitzako motorra esperantza izan dela betiere: esperantza gizonarengan, esperantza etorkizunean.

Non dira itxaropen horren erroak? (2).

— Garaudyren esperantzak *historiazko oinarri* bat du, lehenik. Iraganari begiratzuz aurreratu egin garela ikusten du. Haren ustetan historiak

---

(2) Ikus "Conversation avec Roger Garaudy: Marx et Jésus sont-ils inconciliables?", in *Panorama aujourd'hui*, 46 zenb.

espiral mogimendua darama. Eta Gizatasunaren igokunde bat ikusten du gaur. Pozkor bihurtzen du horrek, guti gora behera Teilhard de Chardin-en optimismoarekin.

— Bigarren esperantza-iturria: 68 Maiatza eta gazteriaren jarrera.

Zer antzematen du Garaudyk gazteriaren jokabidean?

Hazkuntza hazkuntzagatik, hobaria hobariagatik, ez da gehiago onartzen. (Gizona ekonomiazko desarroiloaren tresna eta ez xede egiten duen gizartea ukatu egiten da.

Gazteriak, ukatzen eta gaztigitzen duenagatik, irakaskizun asko dakar. Eta batez ere bi, esango du Garaudyk:

Alde batetik, 'gizarte dualista' izendatzen dudaren ukapena. Alegia, zuzendari eta zuzenduen, esku-langile eta intelektualen, esplotatzaile eta esplotatuen banakuntza arretaz egina duen gizartea. Hau den hau, gazteek ez dute gehiago nahi. Orobat ez dute onartzen horizonterik gabeko, helbururik gabeko gizarterik. Ukapenaren bigarren alderdia da. Oso seriotan hartu beharra dago.

Honek egituren eta kontzientzien iraultzaren beharra erakusten dio Garaudyri.

— Hirugarren, esperantza oinarria, gizonarengan duen sinesmena da. Dioenez, begiak zabalik, lurra anitz aldiz desegiteko haina atomi-

kazko indar, Sortaldean bezala Sartaldean, lurpean gorderik badela ahanzi gabe, Argien filosofoek bezala progresoak dena esplika eta konpon lezakeenik pentsatu gabe, halere gizonarekiko sinesmena.

Gizona, etorkizunaren erresponsable oso oso-rik da. Kreatzaile da.

Gizonak egiten du historia (dialektika-legea ukatu gabe, historiak ere egiten duela gizona).

Garaudyk gizonaren baitan sinesmen osoa (ez itsua) du. Horregatik konfidatzen du etorkizun-ean ere. Gizonarekiko esperantza horrek hiru postuladu ditu Garaudyren baitan:

- etorkizuna ez da iraganaren luzapen hutsa. Historia ez dago aurretiaz idatzia. Eta hori, gizona beti *bestelako* («autre chose») delako, sortu duten kondizioek baino askoz gehiago beti.
- bigarrena: historiazko esperientzia ororen nolabaiteko erlatibutasuna. Postuladu profetikoa. Gure eskuek eta gure izpirituak sortzen dutena ez dela absolutu onartzea. «Bidean goazela helburura iritsi garela sinestera garamatzien idolatria bat da. Historiazko egintzarik ezin daiteke azken burutzat eduki. Komunismoa Marxentzat ez da historiaren azkena. Historia aurrearen azkena da».
- hirugarrena, postuladu eskatologiazkoa da, datorren munduarekiko kristau sinesmenarena. Gizona, gizartea, berbiztea bera ere, ez daude erabat eginak. Eginkizun dira. Datorren mundua, eginkizun da, gizonaren esku dago. Eskatologiazko esperantza hauxe da historiaren hazkarri eta orantza. Esperantza horrexek elikatzen du gizonaren ekintza. Kristianismoari funtsezko zaio pentsamendu hau. Eta Kristianismoan epeldu egin denean, eta teolo-

gia esplikapen huts bilakatu denean, iraultzak hartu du aldia, erreleboa.

## 4.2. Gazteriaren aupada

Zer salatzen du gazteriak?

- Errenazimenduz geroztik gizarteari ezarri dizkiogun *xedeak* bateko.
- Eta besteko, zibilizazioaren hastapenetik gure gizartearen karakteristika den politikazko eta ideologiazko *dualismoa*.

Zer bilatzen du gazteriak?

- Hitz batez esateko: *Autogestioa*, horra.

Hau den hau, ez da ahantzi behar, desafio moduan botea eta jaso da. Geroz eta sinetsiagorik dago-ta gazteria, bai aldatu beharrez, bai aldatu ahalez. Berebat sinetsirik dago adabakiak ez baino erabakiak hartu behar direla. Guzizko erabakiak, hartu ere. Horregatik da gazteriaren kritika kupidagabea, deus barkatzen ez duena: familia, Eliza, eskola, Erresuma, lanaren eta jabegoaren, politikaren eta moralaren, kulturaren eta artearen konzepzioak.

Familia, esate baterako. Jokabide-ereduen luzapenaren sinbolu da familia. Irudia desegitean, errealidadea bera ere deuseztatu nahi litzake, horrekin tradizioa ukatuz eta biziera berriak sortuz. Famili inguru guzia ere berdin, bereiziki seksualidadea.

Eskola ere hauzitan ipinia da. Denbora berean sistima eta gai bezala. Ematen den moduak eta ematen denak errealidadea izkutatu egiten du, argitu beharrean; egoera iraunarazi nahi da, Erresumaren jokua egiten du gaurko jakintzak. Gero, eskolak pertsonatasuna desarroilatu ez baino txikertu eta gesaldu egiten du. Irakaskintza guzia, izan ere, inposatua da, goitik ezarria. Ez dago kreatzailetasunarentzako lekurik. Oso intelektua-lista da dena, gainera.

Familiarekin eta kulturarekin bezalaxe, berdin berdin Elizarekin, politikazko alderdiekin, gizarte-legeekin haustura hori gertatzen da. Agintea beti aginte, nagusiak beti nagusi, hierarkia-ren Olinpoa, etab... hori da salatzen dena konzepzio bezala eta gizarte-joku bezala. Esan nahi bait da, dualismoak irauten duen bitartean gizateria-ren gaitzak ez direla desagertuko; eta, bestalde, pribilejiatuek, beren egoerak iraun dezan, ahal duten guzia eginen dutela.

Honi, bapateko, zuzeneko, tartegabeko eskuhartzea kontrajartzen dio gazteriak. Berdin politikan, musikan, dantzan. Nortasunaren baiez-tapena ere badago (ez indibidualismoaren zentzuan). Garaudyren interpretazioaren arabera, hauxe erakusten du «demokrazia direktoaren» egarriak, dantza eta musika berriaren jokabideak.

Hitzari, intelektualismoari, konzeptualismoari ihes eginaz, berarizkotasuna, espontaneismoa bilatzen da. (Ezagutzapenaren bestelako teoria bat dago hemen). Drogak berak, haustura bai,

baina sentikortasun eta berehalatasun berri bat ere adierazbidetzen du.

Kasualidadez bezala, gazteriaren eredu eta joerak oro Mendebaleko kulturatik landazkoak dira. Halanola: Erresuma Batuetako Beltzen borrokak lortu duen irazartzea, Vietnamgo askatasun-guduak egin duen batasuna munduko gazteen artean, Indiak sortzen duen liluramena, yogaren eta *zen* budismoaren erakarmena, txinatar kulturazko iraultzaren eredutza, gazteen borroka-ereduak, Mao, Lumumba, Che, Angela Davis izatea. Kasualidadez bezala guziok gure zibilizazio-mota hontatik kanpo eta kontra aurkitzen dira. Kasualidadea ez baino kausalidadea ikusi behar da hor.

Ez ote digu honek erakusten badagoela hor arrazoizkotasunarekiko mesfidantza (hots, gure gizartea finkatzen duen oinarriarekikoa: teknika, burujakintza, efikazia...), eta berdin gizarte-antolamendu guziekikoa ere (hain zuzen denek oinarri bera onartzen dutelako)?

### 4.3. Estrukturen aldakuntza

Ekonomian, eta gizarte osoan ere, xederik ez dagoela-ta salakuntza zerrenda bat aipatu dugu. Garaudyren ustetan, salaketa hori kapitalismoaren muinarena berarena da, kapitalismoaren printzipio berak ukatzea.

Errenazimenduz geroztik merkatu-legea eta

etekina absolutu bihurtzen dira, gainontzeko lege eta iritziak oro (erlijiozko, moralezko, politikazko) haien esanetara ekarriaz, edo bestela baztertuaz. Lehenengo komertzioarekin, gero industria-rekin. Teknikaren aurrerapenek, komunikabideek, Bankuek, Boltsek joera hori azkartu eta gogortu egiten dute. Dena sartu da merkatu-joku inguruan: *dirua, lurra, giza-lana*. Dena hari egokituz. Hirurko honen gainean eraikirik dago merkatua.

Dena eros daiteke, dena sal daiteke. «Deabruaren errota» hortan eho ez daitekeenik ez dago.

Kapitalismoa ez da ekonomiazko sistima bakarrik. Kapitalismoak bere bere diren gizarte-egitura bat, politikazko antolamendu bat, kultura eta zibilizazio eredu batzuk ere baditu. (Eta halere, zibilizazio xederik gabe historian eraiki den lehen gizartea bide da kapitalismoa).

Diruaren, lurraren, lanaren konzepzio eta erabilkeraren aldakuntza ekarri behar du sozialismoak, hortarako kapitalismoaren erroetaraino joaz: produzio-tresneriaren jabego pribatua birrintzeraino.

Baina sozialismoaren premia ez da soilki ekonomiazkoa, esan bezala kapitalismoa ekonomiazko sistima hutsa ez delako. Kapitalismoak gizarte-bizitza osoa ekonomiazko gorabeheretara egokitzen behartu du. Integrazio honen kontra doa sozialismoa. Marxek ongi ikusi zuen sozialismo osatu hau, sekula sozialismoaren helburuak ekonomiazko tresneriarekin nahastu barik. Nahas-

menu hau Stalinek egin du. Eta ondorengo guziek beste hainbeste egin dute. Sozialismoa hezur-mamitu dela uste izan dute ekonomiazko baldintza bat bakarra (hots, jabego-sistimaren aldakuntza) bete delarik, eta demokrazia sozialistaren eta kulturazko sorkuntza askatasun eta egingtzaren oinarriak ere falta direlarik.

Sozialismoa ez da jabegoaren sozializatzea bakarrik. Edukitzearen, agintearen eta jakintzaren sozializatzerik egiten ez deino ez dago sozialismorik.

Produzio-tresneriaren jabego pribatua erauztea, noski, beharrezko da gaurko iraultza gerta dadin. Ez da aski, ordea. Demokrazia sozialistarako ez delako aski agintea hartuaz nazionaltzeak egitea. Baldin aldaketa hontarako herria gerturik ez badago, baldin buruzagi batzuei herriak bere «agintea» *alienatzen* badie (hauteskunder edo txaloz, berdin da), orduan betiko dualismoan jarraitzen da: buruzagiek erabakitzen dute xedea eta plusbaliogoaren partiketa. Hor ez dagoke helburuen autodeterminaziorik ez produzio-indarren autogestiorik. Atzera egiztatuko litzake lege mardikatu hura: *herria agintera* eraman duen iraultzarik ez dagoela.

Beraz, ez kapitalismorik, ez eta teknobulegokraziakeria estalinistarik! Biek ekonomiazko efikazia jainkotzat hartuaz bidea helburutzat eduki dutelako eta biek baliakizun eta aginte guzien zentralizatze bortitz bat dutelako.

(Halere, Garaudyren ustetan, diferentzia erabakitzaile bat bada kondenapen hontan: kapitalismoa esentzialki bere muinean kondenatzen den bitartean, sozialismoaren historiako akats eta okerbideratze zenbait salatzen dira).

#### 4.4. Kontzientzien aldakuntza

Aipaturik utzi dugu estrukturen aldakuntzarekin ez dela aginte aldaketa bat eta jabego kanbiamendu bat bakarrik erdietsi nahi. Autoegin-tzazko sozialismo bat eraiki behar da. Esan nahi da, dualismoak desegin eta gizakume bakoitzak eta orok, inoren eskuetan agintea galdu beharrean, xedeen autodeterminatzea eta gizartearen autogestioa praktikatzeko kondizioak sortu eta lortu behar direla.

Baina bakoitzaren esku-hartze pertsonal honek kontzientzia iraultza bat eskatzen du. Krea-tzailetasunean sinesten ez duen herriak, gizonaren ahalmenetan sinesten ez duenak, beti zuzen-dua, gidatua, erabilia izatea edo maitatzen edo onartzen duen herriak, helburuak «kanpotik» jasotzea onartzen duenak, horrek ez du iraultzarik egingo.

Helburuen eta bideen artean holako joanetorri bat badagoelako, xedeen, jomuguen planteamolde jator bat beharrezko da. Gizagintza hori izpiritualismo huts antzu batetan ezartzen bada edo materialismo mekanikazko txikitzaile batetan, orainarteko akatsak luzatu besterik ez dugu

egiten. «Izpirituzko» ekintza soil batek ezin du mundua aldatu. Egitura-aldaketaren iraultza-teknika batek ezin ditu gizon bakoitza eta gizonak oro bere historiaren egile bihurtu.

Izpiritualismoari kontrajarri behar zaio kondizio objetibuen garrantzia, estrukturen pixua, erakutsi behar zaio nola gizona eta bere lana haiek baldintzaturik, mugaturik dagoen. Eta gizonaren obra direnez gero, alda daitezkeela eta aldatu egin behar direla, gizonaren zerbitzutan ipiniaz. Materialismo mekanizistari ere zera erakutsi behar zaio, alegia, kontzientzia ez dela ispilua, «reflejoa», ez dela pasibua; aktibua dela, proiektua (3).

Urtetan, puntu hau dela-ta, hauzi faltsu batetan ibili gara. Oiloaren eta arraultzaren lehen-tasuna erabaki nahirik. Alda ezazu gizona, bai, —zioten batzuek— eta esturukturak berez aldatuko dira. Alda ezazu esturuktura, —erantzuten zuten bestee— eta horrek ekarriko du gizon berria. Arazoa, dialektika gisa planteatu beharrean, mekanizista tankerara egin dugu. Biak batera eraman behar direla uste duen iritzia geroz eta hedatuagoa eta sakonagoa da. Garaudyren uste-tan, Kristianismoak hoge mendetan erabili duen

---

(3) Honekin loturik dago trazendentziaren problema, zeren-eta kontzientzia egoeraren ispilu eta reflejo soila ez bada, non du bere iturburua?

Trazendentziaren ulertzapena eta premia bere liburu hon-tan, eta bestetan, sarri aztertzen du Garaudyk. Trazendentzia eta inmanentzia dialektikazki lotzen ditu berak, eta *izatearen* mailan ez baino *egintzarenean* lotu ere.

bidearen frakasuak erakusten digu gizona aldatzeak ez dakarrela berez egituren berrikuntzarik. Eta komunismoaren mende-erdiak frogatu du ez dela aski gizon berria kreaktzeko, kultura berria eta zibilizazio-xede berriak sortzeko, produzio-bideen jabetgo pribatua desegitea eta agintea Alderdi komunistari uztea.

Autogestioaren ardatza, hementxe dago, Garaudyrentzat: instituzioen funtzionaketak eta funtzionaketa hortan parte hartzeko gizabanakoen edukazioak duten elkarrekiko harremanetan. Estrukturen aldaketaren eta kontzientzien aldaketaren batasun dialektikazkoa da, bada, autogestioaren abiaburua.

Iraultzari gagozkiolarik beti, kontzientziaren independentzia eta garrantzia azpimarkaturik dago Garaudyren baitan: baldintza objetibuek, ez zientziak, berez ez dutelako iraultzarik sortarazten. Zergatik? Betiere, iraultzazko ekintza baten abiaburuan sinesmena dagoelako: mundua alda daitekeela, gizonak berria kreaktzeko ahalmena duela, eta bakoitza pertsonalki aldakuntza hortan erresponsable dela.

Gizakumeak kontzientzia honen kontzientzia hartzea da Garaudyk eskatzen duen kontzientzia-aldakuntza.

#### 4.5. Zibilizazio-xedeen aldakuntza

Helburu bat: *autogestioa*.

Bide bat: *kultur iraultza*.

Kulturazko iraultzak gure kulturaren helburuak eta funtsa aldatu nahi lituzke, gure bizimoldea bezala gure eredumoldeak.

Gurea, klase kultura da, eta errepresibua. Zer-gatik klase kultura eta zanpatzaile? Ordenu baten zerbitzuan eta jokuan dagoelako gehienbat. Eta ordenu hori, dagoen hortantxe, beharrezko eta mugikaitz kontsideratzeko joera duelako. Giza- eta gizarte-kondizionamenduak lerropetuz, sistema aldatzeko ahalegin guzien ezina, hutsa eta akatsak baitipait aipatzen dituelako.

Gure kultura, arrazoizalea da, alegia, giza-personaren baitan arrazoi-hesparrutik kanpo dagoen oro mezpretxatzen duena.

Gure kultura, positibista da, hots, errealidadea dagoen hortan soildurik ulertzen du, historiako mogimendutik bereizturik eta baitipait posiblearen hurbiltasuna ahantzirik.

Hori dela-ta, hiru habetan sostengaturik erai-ki nahi luke Garaudyk kultura berria: *Informatika / Estetika / Prospektiba*.

— *Informatika*. Jakintza-metatzea, ezagutzapenak pilatzea, errepetiziozko lana eta mekanikazki egitekoa informatikari utziaz, kultura liberatu egiten dugu. Liberatu, benetan gizonari dago-kiona indarragotzeko: arazoak proposatzea eta xedeak erabakitzea.

— *Estetika*. Edergintza, kreatzailetasuna. Makinaren kultur garaian asmagintzari garrantzi geroz eta handiago eman behar diogu. Eta tresnak bilatzen diren mementoan, are inportanteagoa da helburuen asmakuntza.

Eta Sokrateren, Leibniz-en, Hegel-en arrazionalismoari, bazterturik gelditu den estetikaren dimentsioa kontrajarri behar diogu, sentikor-tasuna indarberrituz, esate baterako.

Estetikaren bidez, bereziki gizatiar dena bizitu eta berritu behar litzake. Eta hori, lan kreatzailearen, historiazko inizatibaren bitartez. Gorki-k antzemanetz, estetika ez ote etorkizuneko etika?

— *Prospektiba*. Etorkizungintza. Prospektiba ez da (ez du izan behar) etorkizuna ihartzea, asmatzea, eta bai egitea. Gaur egin ohi den prospektiba erabakiguneetatik hurbilegi dago, eta etorkizuna kolonizatu egin nahi du, Robert Jungk-ek dioenez.

Etorkizuna proiektu bezala hartu behar da, mila posibleren gune bezala. Horrela ulerturik, zer litzake prospektika? Nolako geroa nahi dugun erabakitzea eta horren arabera historia eramateko zer egin behar dugun aztertzea. Prospektiba, horrela, inizatiba historikoaren metodologia bilakatzen da, eguneko kontraizateetatik abiatuz, horiek gaindi ditzaketen etorkizun posibleak asmatzeko zientzian eta artean gaitzen, hezitzen gaituen metodologia hain zuzen. Zentzu hontan dio Garaudyk, Marxen erentziaren muina prospektiba dela.

## 4.6. Autogestioaz

Minoria baten eginkizuna ez baino jenderia osoarena dela iraultza defendatzen duen pentsaera gero eta onartuagoa da. Herriaren mogimenduz baliatzea eta herriak berak iraultza egitea ez da berdin, bistan da (baina esan beharra dago). Eta herriaren izenean mintzatzea ere ez da aski herriaren pentsamendua ongi agertzeko, baitipait aurretiaz herri hori mututu-arazi denean. Kasu hauetan, gehienez ere, herriaren alde, *herriarentzako* egin liteke iraultza, baina ez du herriak egiten, ez da *herriarena*.

Lehen aipaturiko dualismoa desegin nahi bada, herriak egin behar du iraultza. Horregatik uste da iraultzak, parte-hartzea, kreatzailetasuna, libertadea... gerorako promesa bezala uztea ez dela jokabide garbia. Seinale txarra. Gero eta gehiago iraultza, eguneroko praxia dela medio, epaituko da. Eramaten diren konzepzioetan bakarrik ez baino elaboratzeko prozesotan ere iraultzaile izan beharra dago. Horregatixe presentatzen da autogestioa, hain zuzen, iraultzaren eredu eta bide bezala.

### a) *Autogestioaren hiru etsai nagusi.*

Goitik eta behetik, ezker-eskuinetik atakatzen da autogestioa. Utopia omen da, ugazaben us-tez. Burokratek bazter-saltsa dela pentsatzen dute. Edo berdin ez dena, batzuek zein besteez, hala dadila nahi lukete.

Baina arretaz gaurko borrokak aztertzen baditugu, autogestioaren aldera datozela esateko eskubiderik badugula dirudi. Edozein krisitan, zentralismoa, agintarismoa, etab. kritikatzten dira. Eta eskatu, langile-kontseiluak, giza-mailako gizartea, iniziatiba, kreatzailetasuna, etab. eskatzten dira.

Egia esan, autogestioak, eztiak euliak bezala, etsaiak bere ingurura biltzea ez da harritzeko. Izan ere, xedeekin bezala ekintza soilarekin, hiru gizarte-molde ukatzen du:

- kapitalismoa oso osoan. Produzio-bideen jabe go pribatua deuseztatuz, ondorio guziak errotik ateratzen direlako. Izan ere, edukiaren jabe goari esker ditu eskutan kapitalismoak agintearena eta jakitearena. Jabego honek eraikitzen duen dualismoagatik eta proposatzen dituen helburuengatik, autogestiozko sozialismoa premiazko eta desiragarri den neurri berean da imposible ere jabego hori desegin arte.
- bulegokraziaren eta hierarkiaren moldeak oro. Kapitalismotik datozenak eta «sozialismo» agintezale eta erdirakoitu batetatik datozkeenak oro. Kritikatzten den sozialismo-mota hori sobietarren eta hauen kumeena da.
- agintea ordezkatzeko printzipioa. Alegia, (Parlamentu jokuan sartuaz) demokrazia burges formala, eta «sozialismo» burokratikoa. Sistema hontan, gizon bati edo talde bati agintea

*alienatzen* zaio eta orduan herriak barik ha-  
rek hartzen ditu erabakiak.

Demokraziaren benetako printzipioa ez da se-  
kulan demokrazia formaletan egikaritu. Bi  
arrazoigatik: ekonomiara hedatu ez delako de-  
mokrazia hori; eta politika alorrean ere klase  
banaketa luzatu egin duelako mila moduz.

b) *Autogestioa: ideologia? teknika?*

Garaudyren gardiz, autogestioaren asmoa  
Jean-Jacques Rousseau-ren «Contrat Social»eko  
demokraziarena da: bakoitzaren autonomia eta  
denen erabakian parte-hartze guzizkoa.

Bide beretik doake Pariseko «La Commune»  
delakoan eskatzen zena, batez ere Proudhom-za-  
leen eraginez: demokrazia zuzena, hau da, agin-  
tearen hartzea ez baino agintearen banakuntza  
problema nagusi bezala; ekonomiazko autoges-  
tioa; politikazko federalismoa.

Autogestioaren tankerako sozialismoa litzake  
Marxek amestu zuena: *guzien desarroiloaren kon-  
dizioa bakoitzaren desarroilo librea den sozie-  
dadea.*

Baina autogestioaz ari garelarik ez ote gabil-  
tza gero utopia orrazten?

Han eta hemen, autogestioaren ezina adieraz-  
teko argumentu asko entzuten da. Garaudyrekin,  
gehienak bitan bil daitezkeela uste dugu. Hauek

dira: bata, *langileen kapazidaderik-eza*; eta *plangintzaren ezina*, bestea. Entzunaren entzunaz ongi ezagutzen dituzte autogestiozaleek kontrazko iritziok denok.

Autogestiozale guziak ados daude hontan: autogestioa enpresagintzan aurrera eramateko *teknikazko* eragozpenik ez dago. Lanaren organizazio aldetik, produzioa azkartzeko lanaren zatikitzea beharrezkoa zela uste izan da urte luzetan. Taylor-en irakaskintza diskutatua da, haren egia ukatua, eskuin aldetik oraingoan. Lan-zatikitzearen efikazia bera da orain hauziperatzen dena. Sueziako Volvo, automobil-lantegiak, «kate-sistema»ko lanaren ordez talde erdi-autonomoak sortu ditu, eta langile bakoitzak lantxo bat bakarra (lau tornillo hestutzea) bizitza osoan egin beharrean elkar-aldatuz egin ohi dute dena guzien artean.

Ikusi da lanlekua gizonari egokituz gizona lanlekuari eginaz baino gehiago produzitzen dela.

(Ez da hori autogestioa, baina harantza doa. Eta interesgarri da jakitea, kapitalismoak jakitea, kapitalismoa amore eman beharrean aurkitzen dela, ez bakarrik bere sistema hobe zaintzeko baizik ere langileek ez dutelako gehiago holakorik onartu nahi).

Baina ziria beste nonbaitetik dator, autogestioaren eta teknikaren artean berezko eta guzizko ukapen bat balego bezala. Esaten ez duena

esan-arazi nahi zaio autogestioari. Autogestioak ez du teknikazko konpetentziarik ukatzen. Teknikazko konpetentzi-mailak bistan da izango direla, ez, ordea, hierarkiarik (alegia, edukitzeak —kapitalak— edo politikazko botere baten ordezkotzak eman ohi duen aginterik). Egingo den antolamendu-bereizketa, teknikazko trebetasunetik eta lanaren atontzetik datorrena bakarrik izango da. Lan-antolamena, bestalde, teknikazko premietatik isuria da, eta ez menperatze-nahikundetik.

Bigarren objezioa ere ezaguna da. Plangintzak dakartzien problemetatik autogestioaren ezina ondoriobideztatu nahi da. Autogestiozaleek ez dute zailtasunik hemen ere ukatzen. Diotena da ondorio hori ez dela bidezko. Autogestioak ez du plangintza ukatzen. Baina kasu! beste modu batetan antolatzen du.

Plangintza-eredua kapitalismoarena edo zentralismo burukratikoarena izan beharrea, hemen ere antolamena behetik gorakoa izanen litzake. Ez da bakarrik oinarriari kontsultatzea, ez eta oinarriaren «izenean» erabakiak hartzea. Oinarriak hartuko lituzke erabakiak, eta egiten denaren kontrola eraman ere bai, «lan-batasunen» bidez. Gizarte guzia «lan-batasunen» sare bezala atontzeko teknikazko eragozpenik ez dago mundu aintzinatu hontan. Askotan uste ohi denaren kontrara, —dio Garaudyk—, teknikazko aurrerapenak (automazioak, esaterako) lagundu besterik ez dio egiten autogestioari .

Amaitzeko, aztertu ez baino agertu dugunetik, autogestioaren bi baldintza ikusten da: Bateko, kulturaren beharra, heziketa nagusi baten premia. Hortik etorri bait da Errusiako «soviets» haien frakaso, Leninen ustez. Eta bigarren, gizarte sozialista baten nahitaezko kondizioa, «autogestio uharterik» ezin bait da iraun-arazi, inguru guzia beste dinamika batez doalarik. Hortik Gramsci-k Italian proposaturiko «langile-kontseiluen» frakaso ere.

Errusian subdesarroiloa, Italian erreformismoa, herri hazietako gizarte sozialista batetan autogestioak ez luke berez eta izatez trabarik.

## Bibliografia

Lan hau egiteko edo egiterakoan erabili dudan zenbait libururen zerrenda —ez osoa— eman nahi diot irakurlari. Hauetatik erabilienak liburuan bertan aipatuak dira.

Luzeegi litzake-ta, artikuluen zerrendarik ez dut ematen.

Azterketa-lanen zerrenda da soilik. Eta hori ere iraultzaile ezagunenak aipatu gabe utziaz, halanola, Marx, Engels, Lenin, Mao, Castro, Che, etab.

*Iraultzaren filosofiaz*

- ALTHUSSER, Louis: *Lire le Capital*, Maspero, Paris 1968.
- AZURMENDI, Jose: *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa*, Euskal Elkargoa, Baiona 1971.
- CAMUS, Albert: *L'homme révolté*.
- CARR, E. H.: *Estudios sobre la revolución*, Alianza Editorial, Madrid 1968.
- CASSIRER, Ernst: *La philosophie des lumières*, Fayard, Paris 1966.
- COMBLIN, Joseph: *Théologie de la révolution*, Edit. Univ., Paris 1970.
- ELLUL, Jacques: *Autopsie de la révolution*, Calmann-Lévy, Paris 1969.
- FAVRE, Pierre eta Monique: *Les marxismes après Marx*, PUF, Paris 1970.
- GARATE, G. M.: *Marxen marxismoa*, Etor, Bilbao 1971.
- GIRARDI, J.: *Dialogue et révolution*, Cerf, Paris 1969.
- GUICHARD, Jean: *Le marxisme (de Marx à Mao. Théorie et pratique de la révolution)*, Lyon 1968.
- MARCUSE, H.: *Raison et révolution*, Paris 1968.
- MARCUSE, H.: *Philosophie et révolution*, Paris 1969.
- MOUNIER, E.: *Révolution personaliste et communautaire*, Montaigne, Paris 1935.

*Iraultzaren soziologiaz*

- ARENDT, Hannah: *Sobre la revolución*, Revista de Occidente, Madrid 1967.
- ARON, Raymond: *La révolution introuvable*, Fayard, Paris 1968.
- ARON, Raymond: *Dix-huit leçons sur la société industrielle*, Gallimard, Paris 1962.
- ARON Raymond: *La lutte de classes*, Gallimard, Paris 1964.
- BAECHLER, Jean: *Les phénomènes révolutionnaires*, PUF, Paris 1970.

- BRINTON, Crane: *Anatomía de la revolución*, Aguilar, Madrid 1962.
- DECOUFLE, André: *Sociologie des révolutions*, PUF, Paris 1968.
- GODECHOT, Jacques: *Las revoluciones (1770-1799)*, Labor, Barcelona 1969.
- GURVITCH, Georges: *Etudes sur les classes sociales*, Gonthier, Paris 1966.
- MONNEROT, Jules: *Sociologie de la révolution*, Fayard, Paris 1969.
- ROCHER, Guy: *Le changement social*, HMH, Paris 1968.
- RUBEL, Maximilien: *Révolution et Socialisme* (pages de Karl Marx pour une éthique socialiste), Payot, Paris 1970.

### *Iraultza berriaz*

- BOURDET, Yvon: *La délivrance de Prométhée* (pour une théorie politique de l'autogestion), Anthropos, Paris 1970.
- CERTEAU, Michel: *La prise de parole*, Desclée, Paris 1968.
- CHAUVEY, Daniel: *Autogestion*, Seuil, Paris 1970.
- CLAVEL, Maurice: *Qui est aliéné?*, Flammarion, Paris 1970.
- ELKARLANEAN: *Société injuste et révolution*, Seuil, Paris 1969.
- FRERES DU MONDE: *Voie révolutionnaire et organisations*, Bordeaux 1970.
- FRERES DU MONDE: *Ferments révolutionnaires*, Bordeaux 1971.
- GARAUDY, Roger: *L'Alternative*, Robert Laffont, Paris 1972.
- GORZ, André: *Le socialisme difficile*, Seuil, Paris 1967.
- GRAMSCI, A.: *Lettres de prison*, Editions sociales, Paris 1959.
- KESSEL, Patrick: *Le mouvement maoïste en France*, coll. 10, 18, Paris 1972.
- LA NEF (elkarlanean): *Les gauchistes*, Librairie J. Tallandier, Paris 1972.
- LEFEBVRE, H.: *Critique de la vie quotidienne*, Paris 1963.
- LEFEBVRE, H.: *La vie quotidienne dans le monde moderne*, Gallimard, Paris 1966.

- MANCEAUX, Michèle: *Les Maos en France*, Gallimard, Paris 1972.
- MARCUSE, H.: *L'homme unidimensionnel*, Paris 1968.
- MENDIGUREN, Xabier: *Ezkertiar berriak*, Etor, Bilbao 1971.
- REVEL, J.-F.: *Ni Marx ni Jésus* (la nouvelle révolution mondiale est commencée aux Etats-Unis), R. Laffont, Paris 1970.
- ROCARD, Michel: *Le P. S. U. et l'avenir socialiste de la France*, Seuil, Paris 1969.
- TOURAINÉ, A.: *Le mouvement de mai ou le communisme utopique*, Seuil, Paris 1968.

## IRAULTZAZ

- abantail:** ventaja, avantage  
**abiaburu:** principio, principe  
**abiagune:** lugar inicial, lieu de départ  
**abiapontu:** punto inicial, point de départ  
**adabaki:** remiendo, raccommodage  
**agintezale:** autoritario, autoritaire  
**ahobero:** bocaza, bavard  
**aldakaitzasun:** incambiabilidad, inchangeabilité  
**aldeztu:** konparatu  
**alxamentu:** alzamiento, soulèvement  
**amorekaitza:** inflexible, intransigent  
**andana:** serie, troupe  
**antzekotasun:** similitud, similité  
**aparamen:** aparato, appareil  
**apeta:** capricho, caprice  
**arbuia:** despreciar, mépriser  
**Argien Filosofia:** Aufklärung, XVIII mendeko filosofiagintza ezaguna  
**arrakalatu:** rajar, fendre  
**arakasta:** éxito, réussite  
**arapostu:** respuesta, réponse  
**askagintza:** liberación, libération  
**atundu:** arreglar, arranger  
**aurrebaldintza:** condición preliminar, prémise  
**aurre-iritzi:** prejuicio, préjugé  
**aurrez-eman:** postuladu eta presupostu  
**ausaz:** menturaz, agian  
**auspotu:** animar, encourager  
**azterketa:** análisis, examen  
**baieztapen:** afirmación, affirmation  
**baikortasun:** optimismo, optimisme  
**baldinkizun:** condición, condition  
**balioberritu:** revalorizar, révaloriser  
**baliogabeztatu:** desvalorizar, dévaloriser  
**baliotatu:** valorizar, valoriser  
**banakuntza:** distribución, répartition  
**beltzeran:** moreno, brun  
**berarizko:** espontáneo, spontané  
**berdinbalioko:** equivalente, équivalent  
**berregaintasun:** independencia, autonomie  
**berriztapen:** renovación, renouvellement  
**bezero:** cliente, client  
**bihurrera:** conversión, retourne  
**bilakuntza:** búsqueda, recherche  
**bil-laburtu:** resumir, résumer  
**biteratu:** bitan adarkatu

**desagaratze:** desacralización, désacralisation  
**desegokitasun:** inadecuamiento, manque de convenance  
**desirkunke:** deseo, envie  
**dogmakoikeria:** dogmatismo, dogmatisme  
**doharik:** de balde, dohan  
**duintasun:** dignidad, dignité

**ebakidura:** corte, rupture  
**egikaritu:** realizar, vérifier  
**eho:** moler, moudre  
**eite:** figura, ressemblance  
**ekai:** materia, matière  
**elikatu:** mantener, nourrir  
**elkargaitz:** irreconciliable, irréconciliable  
**erabakigune:** centro de decisión, lieu de décision  
**erabilkizun:** uso, emploi  
**eragidura:** influencia, influence  
**eragikor:** influyente, influent  
**eragotzi:** impedir, interdire  
**erakarmen:** atracción, attraction  
**erdietsi:** lograr, réussir  
**erdigune (edo funtsa):** núcleo, centre  
**erdikoikeria:** centralismo, centralisme  
**errebolta:** rebelión, révolte  
**erresuma-kolpe:** golpe de Estado, coup d'Etat  
**erresumin:** dolor intenso, douleur sourde  
**errobada:** rueda, roue  
**eskegi:** colgar, suspendre  
**etekin:** provecho, profit  
**ezabatu:** borrar, effacer  
**ezados:** disconforme, désaccord  
**ezarian:** pausadamente, lentement  
**ezinbestezko:** inevitable, inévitable  
**eztanda:** estallido, éclatement

**gabezi:** escasez, misère  
**gañditu:** transcender, surmonter  
**garaitzapen:** victoria, triomphe  
**gardi:** parecer, opinion  
**gauzeztana:** inútil, inutile  
**gazitgatu:** advertir, avertir  
**gehiengo:** mayoría, majorité  
**geidiune:** parada, arrêt  
**gerizatu:** proteger, protéger  
**gertakari:** suceso, événement  
**gesaldu:** desalar, dessaler  
**gino:** proporción, proportion  
**gizabanako:** individuo, individu  
**gizagintza:** humanización, humanisation  
**gizajale:** caníbal, cannibale  
**gizarte-egitura:** estructura social, structure sociale  
**gobnuera:** forma de gobierno, forme de gouvernement  
**goraki:** altamente, extrêmement  
**gutigo:** minoría, minorité  
**guzizkotasun:** totalidad, totalité

**haatik:** halere, hala eta guziz ere  
**hagitz:** muy, très  
**halabeharra:** derrigorra  
**handiuste:** aires de grandeza, airs de grandeur  
**harozko:** cíclico, cyclique  
**haustura:** ruptura, rupture  
**hautabeharkizun:** alternativa, alternative (gisakoa)  
**hauteskunde:** elección, election  
**hautsiune:** punto de ruptura, point de rupture  
**hauziperatu:** llevar a juicio, juger  
**haztegi:** seminario, séminaire  
**hedadura:** zabalera  
**hedatu:** zabaldu  
**hesparru:** barruti  
**hezurmamitu:** egikaritu, gertatu  
**higidura:** mogimendu  
**higuin:** nazka

**hizpide:** conversación, entretien  
**hobaria:** ganancia, gain  
**hobegarritasun:** mejorabilidad, amélioration  
**hobekuntza:** mejora, amélioration  
**hoberitzi:** preferir, préférer  
**hondakin:** despojo, dépouille  
**hots-xistuaren habaila:** velocidad del sonido, vitesse du son  
**hurbilketa:** aproximación, approche  
**hutsal:** efímero, éphémère

**idealzale:** idealista, idéaliste  
**idoro:** aurkitu  
**indarkeria:** violencia, violence  
**irizkera:** opinión, opinion  
**izatetasun:** ser, être  
**izendatu:** nombrar, nommer  
**izarlaritza:** astronomía, astronomie  
**izialdura:** espanto, frayeur

**jabego:** propiedad, propriété  
**jabole:** zaitzaile  
**jangangaitz:** inaguantable, insupportable  
**jopu:** esclavo, esclave

**kapela:** sombrero, chapeau  
**karreatu:** acarrear, charroyer  
**kontraketa:** oposición, opposition  
**kontraizate:** oposición (en el ser), opposition (dans l'être)  
**korrunka:** corriente, courant  
**kutsapen:** contagio, contagion

**lanabes:** instrumento de trabajo, instrument de travail  
**langailu:** instrumento de trabajo, instrument de travail  
**lantegizatze:** industrialización, industrialisation  
**lehertzapen:** explosión, explosion

**lehia:** empeño, désir ardent  
**lerratu:** deslizar, glisser  
**lerropetu:** subrayar, souligner  
**lobelar:** opio, opium  
**lorkizun:** logro, atteinte  
**lur-lantze:** agricultura, agriculture  
**lurpe:** subsuelo, sous-sol

**matxinada:** motín, soulèvement  
**meatzu:** amenaza, menace  
**mendekari:** vengador, vengeur  
**mendeku:** venganza, vengeance  
**menderatzaile:** dominador, dominateur  
**mesfidantza:** desconfianza, méfiance  
**moldakoi:** adaptable, adaptable  
**mugikor:** movédizo, mouvant  
**munta:** importancia, importance  
**muturzale:** extremista, extrémiste

**nahikunde:** deseo, désir  
**naturalezagaina:** sobrenaturaleza, surnature  
**neurrizgaineko:** sobremedida, exagéré  
**ncraez:** sin rumbo, sans but  
**nor-galtze:** alienación, aliénation

**onarpen:** aceptación, consentement  
**ondorioztatu:** concluir, déduire  
**oro-esplikatzaila:** dena esplikatzzen duena  
**osakai:** elemento integrante, élément d'intégration  
**osakuntza:** integración, intégration  
**osteratu:** erantzun, etc.

**patu:** destino, destin  
**pentsaburu:** principio, principe  
**pentsagintza:** creación de pensamiento, création de la pensée

**pentzu:** cuidado, protection  
**plangintza:** planificación, plani-  
fication  
**premiatu:** beharra sortu

**salatari:** acusador, accusateur  
**sarritasun-lege:** ley de la fre-  
cuencia, loi de la fréquence  
**sekulargintza:** secularización,  
sécularisation

**sitiaketa:** sitio (de una ciudad),  
siège (d'une ville, etc.)

**supituki:** de repente, tou d'un  
coup

**suspertu:** avivar, aviver

**tankerazkotasun:** semejanza,  
ressemblance

**taxuketa:** composición, compo-  
sition

**testuinguru:** contexto, contexte

**topaketa:** hallazgo, trouvaille

**traiziokatu:** traicionar, trahir

**traizioketa:** traición, trahition

**tresnagailu:** instrumento de pro-  
ducción, instrument de pro-  
duction

**tsar:** Zar, Errusia Zaharreko  
agintaria

**txiker:** mínimo, minime

**ukapen:** negación, négation

**urrats:** pausu

**urreratu:** aproximarse,  
s *approcher*

**ustiatu:** aprovechar bien, bien  
employer

**zalu:** ágil, agile

**zantzu:** signo, signe

**zentzumugatu:** definir, définir

**zimentarri:** cimiento, fondement

**zio:** motivo, cause